


# PLORENTZI



## OILLAR BATEN GORA-BEERAK

Zubiri'tar Iñaki  
(Euskerazaintzakoa)

**Zubiri'tar Iñaki**  
(Euskerazaintzakoa)

# **PLORENTZI**

**OILLAR BATEN  
GORA-BEERAK**

## AURKIBIDEA

### IZENPURUA

### ORRIALDEA

SARRERA.....	9
JAIOTETXEA .....	17
OLAGOITI'KO ERREMENTARIA.....	29
GOIKOLANDA'KO ABADENA .....	45
BATAIOA .....	61
EUPEME'REN PEKATUA .....	69
ITSU-MUTILLA .....	73
ARTZAIÑA .....	81
IBARGANE.....	93
BIURPENA .....	111
GARAIPENA .....	117
ZARTZAROA .....	127

Depósito Legal: BI-1.590-90

Fotocomposición e Impresión:  
FLASH Composition S.A.  
Ercilla 11 1.º Derecha  
48009 - BILBAO

## OILLAR "DROGOSA" (AURKEZPENA)

Liburu barri bat idatzi dau Zubiri'tar Iñaki idazleak. Elebarria da oraingo au. Eta Euskalerrian liburu bat argitaratzen danean, euskaldunak jai egin bear genduke, jai egin eta irakurteko gogo bizkortu, gure idazle lana alperrekoa izan ez daiten.

Irakurgarria da Iñaki'ren elebarri au.

Lenengo zortzi orrialdetan elebarriari sarrera egiten dautso idazleak: Ederto asmatua da sarrera au, Goikolanda'ko abade eliztigillea agurtzeko erri aretara osterea eginda eta abade oneri oillar ospetsu baten barriak eskatzen jakozala.

Gero oillarrak berak idatzitako agiri bat oiñarri dala, kondaira zuzena da elebarria.

Elebarriaren edeslaria oillarra bera da, sarrera amaitu ezkeru, eta iñoz beronen autuak luzeak diralako, edeslaria aiztuta geratzen da, baiña laster gogoratzen dau irakurleak, oillarrak esandakoa dala dana.

Elebarriaren joanean, aldia zuzen doa, baiña sarrera inguruan ba-dira aspaldiko elebarrietan oitzen diran aldiaren atzerakuntza batzuk: Oillarra aundi eginda ikusi ondoren, bere kondaira azaltzeko txita zan aldira atzeratzen da.

Elebarri osoa "Prosopopeia" edo norkigintzaren motara sartu bear da: ulertzen dan idazten daki oillarrak, baiña ez itz egiten.

Oillar ori gaiñera, sarritan, irakasle biurtzen da eta orretan alegien irakaspena dirudi, baiña irakaskintza ez da larregi agertzen liburuan; une batzutan eutanasia txartzat agertzen danean, esker txarra alboratu bear dala esaten danean edo liburuaren azkenerantza umegaiak iltea oillarrak berak be zorakeritzat artzen dauanean.

Gero oillarrak bere edestia esaten dauanean, etxerik-etxe dabil, Goikolanda'ko abadea lenengoa dala, beste askori laguntzen: Errementariari, Aldekone'n, itsu baten etxean, artzain baten txakur zaarraren ordez, Iburgane auzoan.

Edestia makobil antzera itxiten da, asi dan lekuan amaitzeko, Goikolanda'ko abadearen etxean bere gomutakiak idazten.

Elebarriaren tokia zeaztutea ez da gauza erraza, erririk-erri dabil, batzutan Goikolanda inguruan, beste batzutan urrin, baiña Goikolanda bera be non dagoan iñoz iragarten ez dala.

Liburuaren bitarte batzutan idazleak asmauriko bertsoak be agertzen dira, abesti antzera. Ba-dakigu gure idazle au olerkigintzan ona dana.

Oilloai buruz baserrietan izan diran oiturak ondo agertzen dira: Janariak billatzen, jatekoa banatzen, arrautzak egiteko sasoiak, eta abar.

Eragiña edo ritmoa ondo daroa idazleak, toki batzutan edestiak, esaterako artzaiñen arteko leiaketa, naikoa luzeak izan arren.

Trebebideari begiratu ezker, elebarri onek "GALDU" txakurraren antza ba-dauko, an txakurra edeslari dan antzera, emen oillarra dalako, baiña elebarria oso ezbardina da.

Gaurko arazoak agertzen dira liburuan, baiña garraztasun barik, gogotasuna ugari dala.

Irakurgai egokia dozu, irakurle, liburu eder au. Ordu atsegin batzuk igaroteko lagun izango dozu.

**Olazar'tar Martin**

Ames egin neban...

Uda aretan eskuetara eldu yatan "Euskal Eliztia Bizkaieraz" eritxan ikasbide bikain-bikaiña, eta onen egillea ezagutzeko naiez, liburuari azterketa baten ostean, abadea zala, Goikolanda'ko erretorea ain zuzen be jakin neban. Eliztiak, gai batzuari buruz nebazan zalantzak bein betiko argitu eustazan, baiña oraindiño geratzen yatazanak uxatzearren, Dagonilla'ko oporrak ustiatuz, aspalditxu bat erri aretan igarotea erabagi neban.

Eguraldi zoragarriko eguberdi baten Goikolanda'ra eldu nintzan, eta Erriko Taberna aukeratu neban ostatutzat, garbi ta baketsua zalako. Eldu ta urrengo egunean, arratsalde-erdian, On Markos, erriko erretore ta euskaltzale jatorra ikertzera joan nintzan.

Irurogei bat urteko gizaki apala ta garaia zan. Aren begiai adimenaren argitasuna erien, eta ezpanetako irribarre maitekorrak, edonor erakarten eban. Bere idazgelako maiaren ondoan aurrez-aurre jesarrita, euskerearen alorretatik joan gintzazan guztitariko gaiak aztertzen genduzala. Jardun atsegiña gertatu zan benetan, eta amaitu zanean, egunoro ikertalditxu bat egitea erabagi neban.

Olan ba, goiz guztietan menditik ibiltan, eta arratsaldean On Markos'ekin izketan, astia arin joiakidan. Euskereari buruzko gora-beera guztiak autu-gaitzat artuta, onein artean "El Batua" k euskereari ekarrirako kaltea, bizkaierari batez be, bat gentozala. Arrituta nengoan abade xotil aren jakintasuna egiztatzean. Baserriko seme jatorra izanik, bere euskerea, erraza, zoragarria ta amai-ka esaera errikoiaz beterikoa zan, aren ezpanetatik dilindan ninduala beti. Ain zuzen bere, aspaldirik onuragarriena euskal-alorrean azaldu yatan.

Bein baten, Erriko Taberna'n baserriar batzuekin jarduten nebala, oneitari-ko batek Plorentzi oillarra aipatu eban, eta entzundakoak zirikatuta, dalako oillarraren zertzeladak eskatu neutsazan. Orduan berak,

—Jakin gura ba'dozuz Plorentzi'ren gora-beerak —esan eustan—, iñor ez gure abadea baiño egokiago aren ekintza arrigarrien barriak emoteko, alkarrekin bizi izan ziran-eta.

Arratsalde aretan, On Markos'en biagoa amaituta, oiko ikertaldia egin neutsanean, auxe itaundu neutsan:

–Aizu, Markos, gaur bazkal-aurretik Erriko Taberna'n nengoala, baserritar batzuen arteko autua entzun dot. Areitariko batek Plorentzi oillarra aipatu ondoren, an egozan guztiek abo batez oillarra arrigarri edo apartekoa zala autortu eben. Ekintza siñisteziñak egiteko gai zala, esaterako, aurrekuaren zati batzuk, dantzan egiteko, eta beste arrigarriak be. Dalako oillarraren zeatz geiago eskatu neutsezanean, iñor ez zu beste egokia aren gora-beerak emoteko esan eusten, emen, Abadene'n zurekin bizi izan zan-eta. Ain zuzen be, Markos, jakin-gurak jota nozu. Zer esan dagikedazu Plorentzi oillarrari buruz...?

Au entzutean, Goikolanda'ko parrokoa makurtu zan besaulkian atzerantz, eta begiak leioan zear urrutian jarrita, oroimenean murgildu zan, eta isillune baten ostean,

–Oillar arrigarria izan zan –irribarrez esan eustan–, orko leio-barren orretan kokatuta nenkusanean, eta bere aldarria jaurtiten ebanean, bazirudian goi-arnasa edo iradokia nitzaz jabetzen zala, eta etorriaren egoetan irudimena barruti ezaugetaraiño pizten yatan, eta orduan nire lumak eragin zerutarrak artuta, egan egiten eban.

Isildu zan barriro, eta naigabezko itzal batek laiñoturiko begiak nigan jarrita, onetaraxe jarraitu eban:

–Badira urte batzuk ezagutu nebala... Eguberdi baten, zuk ezagutzen dozun euskal eliztia gertatzen niarduala, bapatean kukurruku ozen batek lana iztera beartu ninduan, eta begiak jasota, orko leioan islatuta, iñoiz ez asmatu-riko oillarrak ederrenak agurtu ninduan. Ikus-gurak jota, urreratu nintzakion, eta barruko eragintzeari men egiñez, luma zirikotsuak laztandu neutsazan. Txairo ta jas bikaiñekoa zan, eta begietan adimenaren txinpartak igarten yakozan. Itxura yaukalekoa zan, eta eguneko argipean, lumadiak ortzadarraren litsak erakusten ebazan...

–Nongoa zan...? –eten egin neutsan–.

–Aspaldi luzea igaro arte, ez neban jakin ori, Iñaki, baiña laga dagigun ori bere garaian edesteko. Gero, eten egiñiko nire lanari ekin neutsan ostera, eta alako baten, oillarra ostendua zala oartu nintzan. Tamal andia artu neban, baiña biaramonean egunsentia barik, aren kukurruku adoretuak iratzarri ninduan, eta meza emoteko eleizara niñoanean, jarraitzen eustala oartu nintzan.

–Gauza arrigarria, izan be.

–Bai benetan. Gosalduta gero, idaz-maiaren aurrean lanari ekiten neutsala, bere aldarria aditu neban barriro be, eta leio-barrenean kokatuta agertu yatan. Ostera be idazten asi nintzanean, nigan aldakuntza arrigarria jazo izan

zala oartu nintzan. Adimena zorroztu izan bai'litzakidan, gaiak iñoizkorik argien ikusten nebazan, eta izkuntzaren korapilloak berez askatzen yatazala oartu be...

–Siñisteziña da diraustazuna, Markos, eta beste batek orixe bera esango ba'leuskit ez neuskio siñistuko.

–Ez nau arritzen, baiña ekiodan oillarrari. Aldiaren bidean oso ondo alkar artzen genduan, eta nik biagoari emoten neutsala, berak errian zear egurasten eban, eta au bai siñisteziña benetan...! Arrotzen legea bete egiten eban zearo, iñongo oillarrekin burrukarik egiten ez ebal, eta oilloen arrera ona ta begikada txeratsuai ez eutsen jaramonik egiten. Izan be, andiki baten itxura ta jasaz kaleetan zear joiala, oilloen so maitetsuek erraikioren ostendu arte, baiña berak burua biurtu be ez.

–Dirudiane, dalako oillarra ez zan orreitariko On Juan arroxkoa.

–Ezelan be ez. Errian zear egiñiko egurastetik, illuntze aurretik leiorea etorkidan, eta bere biurpena aldarri ozen batz iragarten eustan. Gero, or baratzeko ikondo orretako adar baten kokatzen zan gaba emoteko, baiña lotara aurretik, eskukada bete arto emon oi neutsan, auxe baizan bere janaririk kutunena.

Izarpeko bere lenengo aldarri ozena aditzen zanean, oindiño gaba izanik jantziten nintzan, eta egunsentian jadanik eleizara niñoala, ateraiño erraikidan, eta ona alduta, aren bigarren kukurruku zangarra aditzen zan.

Ez nekian nondik etorria zan, baiña ezkutu au bein baten estalgetu neban. Jaieguna zan, eta erriko jaiak izanik, eretirako berariz etorritako txistulari batek meza-osteko aurreku-joteari emon eutsanean, oillarra dantzan egiten asi zan itxura arranditsuz, danok arrituta begiztatzen genduala. Bapatean, andrazko batek: "Ene bada... –esan eban–. Ori Aldekone'ko Plorentzi drogo-soa da...!

Au entzutean, zur eta lur geratu gintzazan erriko guztiok. Nork ez ebazan bein edo bein Aldekone'ko oillarraren ekintza siñisteziñak entzun...? izan be, aren ondorengo batzuk baegozan Goikolanda'n, eta guztien eritxiz, bikain-bikaiñak ziran. Oartu gintzazan orduan, Plorentzi lako oillar ospetsua gurekin izatea, errirako doai andia zala, eta ordutik, erritar guztien begirune ta palaguak inguratzen eben. Jaiegunetako meza nagusia amaituta, bide egiten genduan, eta erdian jarrita, Plorentzi'k dantzan egiten eban...

–Ain zuzen be, Markos –eten egin neutsan–, aurrekuko zati garrantzitsu batek oillarraren dantza itxuratzen dau. Eurok izan dira neurri baten, beraz, aurrekuaren sortzailleak.

–Bai, Iñaki, eta beste errietatik ikusle asko yatorkun gure oillarraren erti ikusgarria begiztatzeko, eta arazo onek ospe andia ekarri eutsan gure erriari.

Baiña ekiodan barriro gure Plorentzi arrigarriari. Beiñola, jazoera batek ondatu euskun beragan ipiñi izan genduan itxaropena, eta guzurra badirudi be, errian sendotzea egitearren gotzaiñaren etorrera izan zan gure zoritxarraren iturria. Senitarteko urruna dodan Eupeme'k, nire neskameak, oi-ez-lako bazkari gain-gaiñekoa gotzain Jaunaren goratarrez atondu gura izan eban, eta... Plorentzi berberaz errekoa atontzea ez yakon otu ba...? Sendotzea guztiz ondo jazo zan, baiña nire bazkal-deiari gotzaiñak uko egin eutsan, beste iñora joateko zalaren atxakiaz. Nire ustez, benetako zioa, Eupeme'gan sukaldaritzat uste ona ez izatea zan, eta ain zuzen be, gotzain Jauna ez egoan oker.

Egun aretan bertan, ez neban Plorentzi iñondik ikusi aal, eta urrengoan bardin, aren zantzurik ez. Atsekabez beterik, Eupeme eratorri neban, eta oillarrari buruz itauntzen asi nintzakionean, eskuan lotura bat eukala oartu nintzan. Nire galderek estututa, jakin neban noizbait, erailteko asmoz oillarrari oratu eutsanean, onek orkatzaz arramaska itzela egin izan eutsala. Au jakitean sumindu nintzan, izan be, nire bizitzaldian iñoiz ez beste, baiña sumiña samiña biurtu yatan, Plorentzi betirako joana zala uste izatean. Erriak be naigabe andia artu eban, eta danok aalegindu gintzazan gure oillarra idoroteko, baiña alperrik, aren zantzurik iñon ez. Askozaz geroago jakin neban, Aita Errojelio, lekaide baten aboz nora joan zan Plorentzi, eta zelako gora-beerak jasan ebazan.

Arrezkero, aspaldi antzu bat jasan neban, lan egin gura ta ezin. Nire iradokia edo etorria joana zan, eta ezin nengikean euskal eliztari iñongo aurrerakadarik emon. Asteak eta illabeteak igaro ziran, eta bein baten, leioan zear urrutira begiratzan nebala, alako baten, lekoreko argian zerbaiten ebakuna islatu zan, eta kukurruku ozen batek eguberdiko bakea astindu eban. Bera zan... Zorionezko didar bat iges egin yatan oldartzen nintzakiola, eta aspaldian lez, bere luma zirikotsuak laztandu neutsazan. Pozik emoten eban, ni baizen pozik, alegia.

Ordutik, iradokia berrirabazita gauzak lengora biurtu ziran, eta berak emostan gogo-argiaz noizbait gai izan nintzan eskuen artean nerabillen eliztia amaitzeko, eta niretzako egun aztuezin baten argia ikusi eban Mintegian egin yakon aurkezpen edo "bataio"z. Ordutik, Plorentzi'k ez ninduan itzi, eta bere azkenerarte alkarrekin bizi izan gintzazn.

Aren biurpena jazo zanetik, eta erri onen biztanle guztien ederrespenak edonora laguntzen eutsala, gure Plorentzi arrigarriak zaar-saridunen biziera baketsuari emon eutsan, bere aukeran bizi izaten zala. Oso arauzale izaten jarraitu eban, eta ordurarteko biziereari erraikion, bere oiturak aldatu barik. Gabeko azken zatian, aren kukurruku zangarrak iratzarten ninduan, eta goizaldeko bigarren aldarria jaurtita, eleizaraiño laguntzen eustan, eta jarraian erritik

osteratxu bat egiten eban. Goizeko erdian orko leio-barrenean kokatzen zan, bere isla bikaiña lekoreko argian nabarmentzen zala. Eguberdi-egurberdian aren aldarri adoretsua entzuten nebanean, lanari eten egiten neutsan, eta bera-ekin autu bat izaten neban, nire eritxiak, asmoak etab. jakiñerazoten neutsazala, eta berak isil-isillik ardurarik andienaz niñotsanari erraikion. Argi egoan niretzat, Plorentzi adimen ezkutu batek apaindua zala, aren begien itxura aldakorak orixe adierazoten eustan-eta. Arratsaldeetako nire biagoaren bitartean, kaleetan zear beste egurastu bat egin oi eban. Ikustekoa zan zelako ederrespenaz jarraitu eutsoen, oilloen begikada maitetsuek aren irudi txairo ta lumadi bikaiñean josita, kalean beera errege baten itxuraz joiala. Eta arratsbeera baiño len bayatordan barriro be, aren agerpena aldarri indartsu bat az iragarririk. Illuntzean oiko arto-eskukadea emoten neutsan, eta baratzeko orko ikondoko adar baten lo egiteko kokatzen zan.

Baiña aldiaren esku latzak zelanbait ukutu eban, eta apurka-apurka bere bizitzaren beeraldia asi zan, bein baten leioraiño ikoti egiten neketsu biurtzen yakola. Orduan, leio-barrenetik baratzeraño ol luze bat ipiñi neutsan, eta onen bidez eragozpena baztertu zan. Bein baten, baiña, beste aldakuntza bat oartu neban beragan, eta auxe alegia: arratsaldeko egurastutik ez zan biurtzen illuntzerarte baiño. Bereiztasun onek eraginda, eta aren zergaitia jakitearren, arratsalde baten biagoa egin barik, Abadene'ko ataditik zelatari jarri nintzan, eta luzaro barik eleizako sakristegira abiatzen zala ikusi neban, eta aalik ezkutuen jarraitu neutsan.

Sakristegiko ormara elduta, onen luzera osoan eratsiriko arrizko aulkira zapart egin, eta emendik leio bateraiño. Oneri leiar-zati bat peitzen yakonez, zuloan zear sartu, eta barruko nire idaz-maian kokatu zan liburuxka baten aurrean. Baziran egun batzuk idaz-mai orren gaiñean umeak irakasteko erabilten diran abede-liburutxu bat egoala, eta izan be, onek arritu ninduan abede ori arasa batetik ekarria zalako. Nork baiña...? Orain ezkutua argitzen yatan... Plorentzi'k abede a irakurten ziarduan, eta orrialdea amaituta, urrengoaren irakurteari emoten eutsan, eta olan illunabarrerarte iraun eban. Orduan, lengo bidetik sakristegitik urten, eta leio-barrenera barriro azken agurra niri egiteko.

Bein baten, abedearen irakurketea amaitu yakonean, beste bat aurreratua-go bere aukeran ipintea otu yatan, eta astirik galtzeke onen aztertzeari emon eutsan buru-belarri. Bajoiazan egunak aurrera, eta bein baten, bere ikastaroa amaitutzat emonda, urrean, erpe baten bere egoko luma luzea ebala, parroko gora-beerak idazteko erabilten nebazan irarki zaar batzuen atzekaldean, idatzi ta idatzi ikusi neban. Argi egoan, beraz, abedeetan ikasiriko irudi ta adierazpenen bidez, idatziz zeozer esan nai ebala. Eta era onetan negua emon eban idaz-

teari itzi barik. Noizbait, bere eginkizuna amaituta, aurki, sakristegian erabilen lanari uko egin eutsan, eta lengora biurtu zan, au da, biagotik itxarten nintzanean, leio-barrenean egoan aspaldian lez.

Agiri zan, baiña, azken aldi areitan jasaniko osasun-beerakada itzela. Baratzetik leioraiño jarritako ol makurretik nekez igon aal izaten eban, eta leio-barrenean kokatuta egoala, askotan burua beerantz jausten jakon erdi-lo bai'litzan-edo. Badakizu gure esaera zaarrak diñoana: "Agure zaarra durdura, zopak jan eta lo-gura". Aren lengo kukurruku zangarrak orain erlats eta bizi-bakoak aditzen ziran. Gangar arro gorrimiña, margul eta makal makurtzen jakon. Egunsentiaren aurreko bere aldarrari ozena ez yakon aditzen, eta eguna ondo argituta zanean soillik jaurtiten eban, bere ongi-etorria aditu nengikion. Sarri askotan urreratzen nintzakion laztantzearren, eta aspaldian lez nire esku-arrean arto-garau batzuk jan egiazan, baiña gitxi batzuk iruntsita, jarraitzeari uko egiten eutsan. Orduko, negua amaitzeko zorian zan, egunak luzatzen eta eguraldia epeltzen zirala. Auxegaitik uste izaten neban onik urtengo zala. Nire itxaropena, baiña, ustel billakatu yatan.

Arratsalde baten idazten niarduala, zarata motela aditu zan, eta une berean leioa utsik ikusi neban. Plorentzi ostendua zan. Arin baten baratzera urten nintzan, eta leiopean, soñia kizkur eta ikara bizitan idoro neban. Besoetan artuta, berba maitekorren artean oi neban lez lumadia laztandu neutsan. Une batez begiak edegita begiztatu ninduan bere azken agurra bai'litzan, eta gero ikarak joanda isil eta geldi geratu zan betirako.

Ona elduta, On Markos isildu zan une batez, begietan naigabezko itxura marrazten yakola. Leioan zear urrutitari begira egon zan luzaro samar. Gero, jagi, eta nire besoari oratuz leioraiño eroan ninduan. Ikondo mardul bat erakusten eustala,

–Or, ikondo orren pean obiratu neban, eta gaiñean ezaugarritzat dakusazun arri ori ipiñi. Il yatanetik –mintzo itunaz jarraitu eban–, zerbait nire bizitzean il da betirako... Bai, adiskide maite ta zintzo baten laguntza, eta zelako laguntza, gaiñera...! Goi-arnasa edo iradokia ekarkidana. Askotan, or mai-aurrean idazten diardudala, baderitxat leiobarrenean aspaldian lez agerturik, aren irudi txairo, ederra, urrutiko zabaldian islatzen dala, eta au gauza bakana...! Ereti orreitan, berak ekarstan adimen-argitasuna, baderitxat nigan oraindiño egakatzuz somatzen dodala...

Ez nebazan On Markos'en oroitz kutun areik eten gura, eta isillean gelatik urten nintzan. Laster igaro yatazan opor-egunak, eta alde egiteko aurregunean, On Markos'ek auxe esan eustan:

–Ikusi nai al-do zu, Plorentzi'k idatzirikoak...? Sakristegiko arasa baten giltzapean gordeta dagoz.

– Bai benetan, atsegin andiz gaiñera.

Joan gintzazan ba, eta ara elduta, Goikolanda'ko erretoreak arasa zabalduta, orri-eskukada bat atara, eta mai-gaiñean ipiñi eban ikusi nengian. Eun bat izango ziran, eta idatziriko zirriborroen izki-eredua irarkolan erabilten diranen antzekoa zan. Argi ikusi zeitekean, baiña, Plorentzi gaiñoari neketsu billakatu izan yakola orri areik idaztea, bere atzaparren oiñatzakaz eta guztitariko orbanakaz zipriztinduta agertzen baiziran. Une batez gaingiroki aztertu nebazan, eta alako baten,

– Aizu, Iñaki –esan eustan On Markos'ek–, zergaitik ez...? Idazle zaran aldetik, zergaitik orriok aztertu ez, eta Plorentzi'ren oroitzak ezaguturik, argitaratzeko gai diran ala ez erabagi...? Izan be, asiera baten neketsu azalduko yatzu zirriborro orrean mataza argitu, baiña ziur naz, gero ta errazago azalduko yatzula. Eroan egizuz, eta bearrezko aldaki edo kopiak atarata, jatorrizko orriak bialdu egistazuz atzera. Saiatu zaitez; gerta dana gerta dala ez dozu gauza andirik galduko-ta.

On Markos'ek iñostana, zentzunezkoa zan, eta izan be arlo arek erakarten ninduan. Goikolanda'ko parrokoaren atsegiñerako, baietza emon neutsan.

Urrengo egunean, Plorentzi'ren idazkiak bide-zorroan sartuta, besarkada anaikorraz On Markos agurtu neban, eta etxera biurtu nintzan, erri aretan aspaldi zoragarri aztueziña igarorik, eta euskal-alorrean maisu baten irakas-kintza onuragarria artu ondoren.

Etxera biurtu baiño ez, jo ta ke lanari ekin neutsan. Asiera baten zailla billakatu yatan Plorentzi'ren zirriborroak ulertzea, baiña egonarriz eta astiaz banan-banan arek idaritziriko buruausteak atondu ta alkartu nebazan asieratik azkeneraiño. Plorentzi ez zan arranditsua, bai sotil ta egitia ordea; aren gogo mendiko latsen urak baizen garden eta zoragarria zan. Elertiaren ukitzea emoteko, aren gorabeerak jantzi bear izan dodaz, baiña meritu guztia arena da, ez nirea. Eta eratsi bear dot auxe: alde askotatik begiratuta, izaki arrigarria zala.

Eskuetan dozuz, irakurle maite orrek, Plorentzi oillarraren gorabeerak. Atsegin dakizuzala bene-benetan opa izaten dausut.



Iñarratza'n, Bizkai'ko erri politean, Urrilla'ko egun zoragarri baten, Aldekone deritxan basetxean jaio nintzan. Udagoian jaioten diran txitak indartsuen eta osasuntsuenak ei'dira, eta ain zuzen be, au egi biribilla dalakoan nago, gure txita-taldea Aldekone'n iñoiz ez jaioriko saldorik ederrena azaldu zan-eta.

Etxetik urrun ez dagoan sastraka baten babesean, ama Oillogorri'ren luma gozoen artean, gure amar txitako sendia jaio zan. Gure amak arrautzak etxeko abian jarri bearrean, etxetik baztertua aurkitzen zan sarats baten pean erruntzen asi, eta amabikoa batu zanean, barruko bultz batek eraginda, aren gainean kokatu zan, eta iru astebete igarorik bere ondorengoak jaioten asi gintzazan. Amabikotik arrauts bik uts egin, eta sei emek eta lau arrek argia ikusi genduan. Gure ama baiño emonkor eta maitetsuagorik nekez aurkituko litzake mundu onetan. Lumatxu bellegixkak legortu yakuzanean, amak saratsetik atara, eta latsin baten zear eroan ginduzan, eta guztitariko ar, ale, eta mamorroak jaten erakutsi euskun. Egun zoragarria azaldu zan gure bizitzaren lenengo, eta illuntzean otz izaten asi zaneke, amaren lumadipean babestu gintzazan gaba igarotearren.

Urrengo egunean amak etxerantz eroan ginduzan, eta etxeko ataditik ur gengoza, bide-ertzean arto-garau batzuk ikusi ebazan amak, eta "klo-klo" zaratatsuen bidez areik jateko eragin ginduzan. Gero, talo ta ogi-apurrak billatzen eta irusten irakatsi euskun. Egun aretan bertan, kortako ateko zulo batetik sartu-erazo ginduzan, eta ango txoko guztiak arakaturik, bazter baten bedarondutako meta bat ikusi, eta abi baten antzeko utsunea egiñik, axe izan genduan aspaldi luze batez lo egiteko lekua.

Eta era onetan bizitzaren ezkutak ikasiz batera, egun zoragarri batzuk igaro genduzan. Bein baten, baiña, jazoera izugarria gertatu zan: amak ez eban ezelan be gura urrundu genkiozan, eta beti zaintza ernaiaz jagoten ginduzan. Bein baten, baiña, pizti luzanga, arin, bizia, ez dakit nondik urten zan, eta amagandik urrenen egoan txitea agiñen artean oratuta, igesari emon eutsan. Au iku-

sirik, ama piztiagana oldartu zan baiña etsaia azkarragoa izan, eta sastraka bate-tik ostendu yakun. Era onetan ba, anai bat galdu neban, arren kopurua irutaraiño gitxituz. Au zala-ta, amak batu ginduzan, eta itzaldi luze bat bota euskun, guzti-tariko oar eta burubideak emoskuzala. Azaldu euskun baita be, anaia ostu eban piztia, erbiñude bat zala. Arrezkero, zuurrago jokatzen ikasi genduan.

Igaro ziran egunak eta astebeteak. Orduan, azi-ala, gure ama gurekiko zaintza lazoten asi zan. Noizbait, umetaroa atzean itzita, oillasko-oillandak biurtu gintzazan, eta eginkizuna amaituta, gure amak aztu ginduzan, eta andik illabete bitara-edo, arrautz-erruntzeari barriro emon eutsan.

Orduko, Aldekone'n amabitsu oillo, oillar arro baten agintaritzapean bizi ziran, eta gure bederatziko gazteen taldea arein artean egokiturik, alkarrekin bake betean bizi izaten gintzazan. Aita genduan oillarra, zangar, bizi ta burru-kalaria zan, eta erriko guztiek, lurraldeko eredurik ederrena zala abo batez autortzen eben, eta izan be, nire eritxiz beintzat zuzen egozan, aize-orratzetan itxuraturik agertzen diranak baiño askozaz txairoagoa zalako gure aita.

Negua igaro zan, eta udabariaren etorrereaz nire garapen osoa laster elduko litzakidala begitandu yatan, aitaren itxura, jasa ta zangartasuna artzen nebazala konturatu nintzanean batez be. Sasoi aretan, baiña, nire bizitzari zarrastada itzela ekarriko leuskion ezbearra jazo zan. Ara...

Len aipatu dodan lez, gure txitaldia iru oillaskokoa zan laugarrena erbiñu-deak ostu euskunetik, eta irurok zein baiño zein eder eta ernaiagoak. Aldeko-ne'n ez euskuen garau-banaketa andirik egiten, eta augaitik gure kabuz janaritzen ikasi bear izan genduan. Niketz, Aldekone'ko eskaratza lekurik egokiena zala janari-apurren bat idoroteko aldiaren bidean ikasi neban, eta sarri askotan jateko gogoak eraginda, angotxoak ikertu oi nebazan.

Bein baten, eta etxeok bazkaria amaituta, autu nasai bateri emotsoela, etxeokandreak, senarrari auxe esan eutsan:

– Aizu, Donato, zeozer pentsa bear dogu erriko osagillari buruz. Gure Txomiñ'ek jasandako elgorri luzea ain ondo jagoteagaitik, emokari bat merezi daua uste dot, eta zerbait otu yat.

–Ondo da, Pantxike. Ta... zer bururatu yatzu...?

–Ara ba... Gure osagillari oillokia atsegin ei'yakola oroz-gain, eta gure etxean iru oillasko "tomateru" edo orreitarikoak doguzan ezkerok, ba... areititik bi emotea otu yat. Zer deritxazu orreri...?

Au entzutean, latz-ikara batek astindu ninduan, eta izuzko txutxurrutxu bat nekez menperatu aal izan neban. Txoko baten kukurio jarrita nengoan, etxeokandreak berbetearen begira. Etxe aretan, (guztietan lez nik uste), etxeokandreak agintzen eban, eta onek esana beste barik egiten zan. Eta orduan...

–Ondo deritxat orreri –apal-apal bota eutsan etxeokojauak–, zuk olan ebatzi dozun ezkerok...

–Orduan etzi bertan Txomiñ'ekin berarekin, bialduko dautsadaz oillasko biok.

Andik laster joan ziran, eta ikara bizian urtenda, nire anaiak jakiñaren gaiñean ipiñi nabazan. Oneik, betiko arloteak, ez eusten jaramon andirik egin, eta arazo arek eurekin zer-ikusirik ez bai'leuan jokatu eben, oiko egitekoari emoten eutsoela, au da, lur-aztarkatzeari janariren billa. Ni, ostera, ordutik zain nengoan ezustean arrapatua ez izateko, eta izan be, ardura oneri bizitzea zor dausat. Eta benetan, egun gitxi batzuk igarorik, Aldekone'ko oillasko bakarra billakatu nintzakizuen...

Bajoian udabarria aurrera, eta uda aretan oillar sendo baten itxurea artzen asi nintzan. Olan eta guzti be ezin neintekean nire aitarekin kideku, bera lako oillarrik ez ei'zan jaioraindiño, Iñarratza'n iñoenez, beintzat. Uda aretan nire lenengo kukurrukua jaurti neban, eta orduan banintzala zeozer oartu nintzan. Nik ez dakit zelan jazo zan, baiña nire izate osoaz andi-nai bat jabetu zan, eta bein baten, estalpean egoan gurdi-igunaren muturreraiño igonik, idunea gorantza luzatu, lumak arrotu, eta nire nortasunaren ezaugarria lau aizeetara jaurti neban. Zoragarria izan zan, eta nire didarra aditu zanean, oilloek euren jardunari eten egiñik, geldi-geldi begiztatu ninduen, eta arein begietan ederes-penezko dizdir bat oartu aal izan neban. Andik urrun ebillen nire aita une batez zur eta lur geratu zan, eta gero beste jaramonik egin bage bere zeregiñe-tara biurtu zan.

Arrezkero, goizaldea urreratzen zanean, barruko eragintza bateri jarraituz, nire aitarekin batean, kukurruku ozen bat jaurtiten neban, egunsentia ur egoala jakiñerazoteko. Onezaz gaiñera didar ori botaten neban pozik nengoanean, edo-ta ondotik oillanda politen bat igaroten yatanean. Agiri zan, Aldekone'ko oillo ta oillandak ederrespenez begizatzen ninduela, baita maitasunezko itxuraz oillandak batez be. Arazo onetan, baiña, nire aita jaun eta jabe zan, eta augaitik gauzak ez ziran aurrerago joan.

Illabeteak igaroten ziran sentipen larria nitzaz jabetzen aste zala, eta auxe alegia: mutilzar billakatzeko jaiote nintzan, edo txarragoa zana, nire egunak burduntzian amaitzeko epaitua. Egoera larri onek goizetik gaberarte kezkatzen ninduan, eta nire oiko alaitasuna galduta, jangar eta nakar, batetik bestera nenbillen bizitzaren erakarpinari uko egiñik. Alako baten, baiña, nire biziereari aldakuntza siñisgatxa ekarri eutsan ezuste bat jazo zan...

Bein baten, eta betiko nire oitureari jarraituz, bazkalostean sukaldean zear nire izaera ezaiñari laguntzearen, janari-apur batzuk mokokatzen nebazala,

Pantxike eritxan etxeoandreak, oiñetakoak aldatzearren etxera sartu-barria zan senarrari, auxe esan eutsan:

–Begira, Donato, aspaldi onetan gure oillarra dala-ta, arrenkura bizipean nagotzu...

–Zer ba...?

–Ara... Badira illabete bi-edo, gure oilloak lengoak ez dirala. Arrautzetan lengo erdia erruntzen dabe, eta gaiñera, arein gangarrak lengo gorritasuna galduta, bizibako ta motel jausten yakez. Amaika ardura emon dautsadaz arazo orreri, eta badakizu zelako ondorea atara dodan...?

–Zein...?

–Erreduna gure oillarra dala. Gure oillotxuari ez dautse merezi daben ardurea emoten, eta onen ondorioz errunketeak beerakada itzela jasan dau.

–Urteko aroa erreduna izango da, urrean. Sasoi guztietan oilloak ez dira errunlari onak izaten.

–Baiña Jaungoikoarren, Donato, orain Kandelarian gagoz, eta zure atxaki orrek ez dau balio, orain erruntzeko aro on-ona dalako. Ez, Donato, ez, errudun bat izatekotan, ezin daiteke beste iñor izan gure oillarra baiño. Badira bost urte gurean dagoala, eta adiña orretara ezker, gauza onik ez. Datorren illean San Jose'ren jaia ospatzeko ereti aproposa izango dogu, egun orretan gurean egin oi dogun bazkari ederra atontzeko.

–Eta zelan konponduko oillarra barik...?

–Oillar gazteak aren utsunea artuko dau.

Andik laster, ikara bizitan urten nintzan eskaratzetik, eta arratsalde oso aretan ezin neban menperatzen ninduan sentipen larria uxatu. Orain dana argi-argi nekusan: Aldekone'ko egaztiak ez leukie iñoiz zaarsaririk ezagutuko... Gurean "eutanasia" dalakoa edo zaarren erailketea erabilten zan, eta nire aita lako bat urteetan zear etxearen alde ainbeste egin ostean, zartzaro nasaia izateko garaia etorkionean, ordain edo saritzat "garbitua" izaten zan. Olako eskergetasuna...!

Illuntze aretan aita zuzendutako, etxeo egaztiak oiko agatan lo egitearren kortara sartzen ziranean, aitari urreratu nintzakion, eta sukaldean entzundakoaren barriak emon neutsazan, baiña bein eta barriro arrenkatu baneutsan be, aita ez eustan jaramonik egin, eta betiko ardurabakoa izaten jarraitu eban.

Urrengo egunetan, bere egoeraren larritasuna azaltzen saiatu banintzan be, berak jaramonik ez. Aren adimen zintzoan olako zitalkeririk ezin zeitekean sartu, eta azkenean bere arazoetan ez sartzeko agindu eustan. Olan egin neban ezinbestez, eta udabarria asten zan garaian, Aldekone'ko oillar bakarra billakatu nintzan...

Au jazo ta urrengo egunean, oilloek abo batez ugazaba edo nagusitzat

aukeratu ninduen, eta aginte-ezaugarritzat oillo bakotxak artoale bana eskiñi eustan. Olan eta guzti be, ezin nengikean aita zanaren oroitzu burutik kendu, eta egun batzuk nire eginkizunai emon barik iraun neban, baiña azkenean, zegokidan erantzunkizunaz bizitzaren legeari makurtu bear, eta oilloek nigan-dik itxaroten ebena beteten asi nintzan.

Aldiaren bidean egoera barriari egokitu nintzan, eta aspaldi zorionsua ezagutu neban. Izan be, oilloak zoragarriak ziran, eta nirekiko beti begirunez beterik, banatzen neutsezan txerak eskerronez gaiñezka onartzen eustezan. Ez uste, baiña, bere burua ederresten dauan oillar baten betekizuna emen amaitzen dala; bai zera...! Oillar on baten egitekoa oso zabala da. Oilloen arteko bakea jarri bear dau, askotan euren arteko eztabaidak mokoka bizitan amaitzen diranez, errunketeari kalte andia dakartsoe. Ondorengo onak lortzeko, oillarra egoera osasuntsuan aurkitu bear da, eta orretarako ondo janaritu bear... ez larregi, baiña, oillar lodiai txairotasunean galduz gaiñera, ernalmena gitxiten yakielako.

Onezaz gaiñera, oillarrak bere taldea jagon bear dau, aita on bat bere sendiaz arduratzen dan lez, eta elburu onetan bearrezkoa ba'litz, bere bizitza emoteko beti gerturik egongo da. Bere menpekoentzat bearrezko janaria lortzeko saiaturik be, eta zeozer idorotean, inguruko oilloai dei egingo dautse idorokundearen tartekoak izan daitezen. Begi bat taldearen gaiñean izanez gaiñera, beste urreratu daitekezan galtzoriak garaiz oartzeko erabiliko dau. Dagokiozan ereti guztietan bere "kukurruku" zangarra jaurtiko dau etsaiak uxatzearren eta beretarrak adoretzeko. Goizaldearen urreratzea iragarriko dau, danak oartu daitezat, etxeoak batez be, egun barri bat asi-agiñean dala.

Oillar on batek bete bear dauzan eginkizunok, aalik ondoen beteten saiatu nintzan, eta geigizko arrokeririk bage autortu dagiket, Aldekone'ko oillotegia erriko onena azaldu zala. Au egiztatzeko ez dot besterik esan bear, inguruko errietatik gurean errunduriko arrautz eta jaioriko txiten billa etorkiguzala baiño. Eta au niretariko eritxikeririk ez dala laster jakingo dozue, bein baten Aldekone'ko eskaratzean entzun nebana ezagutu dagizuenean.

Etxean ez euskuen emoten oillotarroi ezetariko janaririk, baiña gure etxe-koen ontasuna bere lekuan jarteko, autortu bear dot, eta idatziz gaiñera, zabal-dian aurkitzen genduan zeingura janarirako eskubide osoa genduala. Aldekonetarren esku-zabaltasuna...! Au zala-ta, jasaten genduan gosea zelabait arintzeko, etxe-inguruan eta etxean bertan idoro zeitekenaren billa jarduten genduan, eta izan be, lekurik onuragarriena sukalde zan, bazkalostean batez be. Laster oartu nintzan, jasaten neban gose gorria emen baretu leitekidalda neurri baten, eta egunoro ereti onen begira nengoan.

Asiera baten, oilloek zeregin onuratsu onetan laguntzen eusten, baiña euren

nortasunaren agiria dan korotza, leku guztietan agertzen zan ezkerok, Pantxike etxeokandreak debeku zorrotza ipiñi eban, eta nerau izan ezik, iñork ez eban eskubiderik sukaldean jarduteko. Onen zergaitia laster ulertu neban; gose gorriak eraginda, apurrik txikiena ikusteko gai nintzan, eta ez zan iñongo kizirik nire begimenak ikusi ez egian, eta Pantxike etxeokandre argia laster oartu zan, munduko iñarrrik eginkorrena nire mokoa zala, eta bazkalondoko nire garbi-ekintzari esker, Aldekone'ko sukaldean ez zan iñarra edo erratzik erabilli bear. Olan ba, leku onetan jarduteko eskubide osoa jaritsi neban guztien onerako. Ain zuzen be, ez neban gauza andirik lortzen sukalde aretan, gure Pantxike maratzak bananduriko janaria etxeokoen gosea doi-doi kentzeko lain zan-eta, baiña nire ikusmen zorrotzari esker, maitik jausiriko apurrak lurrera barik nire kolkorako ziran.

Edu onetan, etxetik-at idoroten nebanaz, batzaz beste bizirik irauten neban, eta ain zuzen be, erriko oillarrik txairoena nintzala danek abo batez autortzen eben, eta nire osasuna txairotasunarekin aren baten joian. Ez neban gorputz osoan koipe-izpirik txikiena be erakusten, eta gure lurraldeko dantzariak lerdanena billakatu nintzakizuen. Laster konturatu nintzan, oilloen ederrespena irabazteko ezer ez dantza apaiña lakorik, eta au zala-ta, nire oillotxuen aurrean aureskua dantzan egiten neban, eta eurok inguruan jarrita abo-zabalik begizatzen ninduen.

Laster inguru areitan bala-bala ebillen dantzan egiteko neban gaitasuna, eta nire ondorengoek jaritsi eben aipu andiari geituta, onura itzela ekarri eutsan Aldekone etxeari, ia egunoro erosleak yatorkuzan'eta txiten eta arrautzen billa. Pantxike zuurak gai oneik urrezkoak bai'ituzan saltzen ebazan, eta betiko oitura ganorabakoari jarraituz, karuago ta geiago erosten eben gure bezeroek. Nire oillotxuek be, neu lez ez eben koiperik azaltzen, eta augaitik oso errunlariak billakatu ziran. Onezaz gaiñera, janaria gure kabuz billatzen genduan, egun osoan aztarrika jardun bear, eta au gure endarentzat kirolik osasungarriena dan ezkerok, etxean ez zan geisotasunik ezagutzen. Baiña gure benetako arrakastea, Aldekone inguruko lurretan ugari sortzen diran zizari gozo-gozo ta bitamindunai zor yake.

Sukaldean nerabillen jarduna beste onuren artean, jazoten zanaren jakitun izatea zan, leku aretan autu zudugarri asko entzuten nebalako. Bein baten, eskaratzean zear mokoka jarduten nebala, begitadea nigan jarrita, Pantxike etxeokandreak bere senarrari auxe esan eutsan:

–Aizu, Donato, gure oillarra dan drogoso...!

Argitu bear dot emen, itz ori Aldekone'n bakarrik entzun dodala, eta irakurlearen argibiderako azaldu bear dot "drogoso" berbea, erderazko "pinturo" lakoa dala, eta jakiña, Pantxike'k esanikoa arrotasunez bete ninduan.

–Bai, Pantxike –erantzun eutsan senarrak–, gure barrutiko oillarrik drogosoena da.

–Ez neuke munduko urre guztiagaitik salduko. Nire ustez, gurea lako oillar drogoso batek izen bat erabilli bear izango leuke, eta ain zuzen be, ez edozelakoa...

Alako baten, bazkaria amaituta kalera joateko zorian zan Txomin seme nagusiak, autu-tartean sartuta, auxe esan eban:

–Entzun, ama, zergaitik ez "Plorentzi" izena emon...?

–Plorentzi, erriko urizaiñaren izena diñozu...?

–Bai, ama. Gure urizaiña munduko gizonik drogosoena ei'da. Bera lako gizon txairo ta elegantea nekez aurkitu daiteke.

Txomiñ'eganako eskerronezko sentipen andia oartu neban, erriko urizaiñarekin bardintzen ninduala jakitean. Bene-benetan mundu guztian ez egoan jas eta azkaian gure Plorentzi'rekin kidetu zeitekeanik. Gizon argala, garaia zan, eta bere aginte-makillaz batetik bestera ebillenean, bazirudian egurastu bat egiteko bere jauregitik urtendako erregea zala. Olan joianean, kaleko jende guztiak ez eban beste iñor ikusten bera baiño. Edozein errirentzat, doai andiandia da, Plorentzi lako gizon bat kaleetan zear ikustea, eta illabeteko saria pozik emon leitekio beste barik, bera egurasten ikusteko. Ain zuzen be, Plorentzi urizaiña oroigarri edo monumentua zan, eta gure erriari ospe itzela ekarkiona. Ez litzake arrigarria, beraz, egunen baten alkatea billakatu zeitekeanik. Bera igaroten zan noinaitik, neskatillek maitasunez begiratzen eutsan, asperen egiteari laga eziñik.

Pozik egoteko zan, beraz, etxeokoen eritxiz beintzat, urizaiñaren izena jarri egiden, eta jasaten neban gose ta guzti, aldekonetarrai dana barkatzeko gerturik nengoan, jas eta apaintasunean gure erriko urizaiñarekin kidetu izateagaitik.

Txomin urten zanean, Pantxike'k senarrari auxe itaundu eutsan:

–Ta, Donato, zer deritxazu orreri...?

–Ba... ez dauala txarto emoten. Izan be, Plorentzi deitura berarentzat ezin egokiagorik derist. Ni neu oillarra ba'nintz pozik artuko neuke izen ori.

Orduan etxeokandreak nigana zuzendurik.

–Ai, Plorentzi, oillar drogoso ori...! –irribarrez esan eustan–. Pozik egon bearko zenduke, denganiño orrek, gure erriko urizain drogosoaren izena erabilteagaitik. Etxe onetan beti emon dausugun janari ona ta ugaria, eta zugan jarri dogun uste ona, ia noiz ordaintzen dauskuzun...

Bereizten nauan apaltasunaz, baiña irmotasunik andienaz era berean, auxe autortzera beartuta dakust nire burua: benetan pozik izateko zana, Iñarratza'ko urizaiña zan, neu lako oillar elegante baten izena erabilteagaitik. Bigarrenari

buruzkoa, au da, ordainduko ete neuskie Aldekonetarrai nigan jarritako uste ona ta emondako janari ugaria, baietz eta gaiñezka be ordaindu neutsela ziñez autortu bear dot emen, etxeko oillotarren bidez irabazten eben dirutzagaitik. Onezaz gaiñera, Florentzi izena, munduko ospetsuenetako bat biurtu zan zuen zerbitzari apal oneri esker, eta ez iñongo urizaiñagaitik, eta auxe nire oiko apaltasun eta xalotasunez autortu bear dot, zail egiten bayat be.

Arrezkero, nire izenak arrakasta itzela lortu eban, eta aldiaren bidean gure barrutian zear iñoiz ez jaiotako oillarrik bikaiñentzat danek ederresten ninduen, eta izan be, Iñarratza erriak mundu guztian zear merezitako aipu ona irabazi eban. Leku urruntsuetatik be, jendea Aldekone'ra arrautzen billa etorren, eta nik ernalduriko arrautzak lei bizian erosten ziran, amalokapetan ipinteko. Aspaldi a Aldekone etxearentzat urrezko aroa billakatu zan, Florentzi oillararen ospea lau aizeetara zabaltzen zala, eta Pantxike'ren dirutxuek gorakada itzela artzen ebela.

Niretzat pozgarriena, baiña, oillotxuek erakusten eustezan eraspen eta ederrespena zan; ugazaba maitetzat ninduen, eta gure arteko giro atsegiñari esker, arazoak iñoizkorik ondoen joiazan. Olan eta guzti be, etxeko diru-egoe-reari ainbeste onura ekarri arren Pantxike'k ez euskuen arto-alerik bat bera be emoten, ainbeste bigunkeriz osasuna ondatu ez ekigun, aurki... Zorionez, etxe-inguruan zizara mardo ta bizigarriak non aurkitzen ziran banekian, eta nire oillotxuek ez eben iñongo goserik jasaten. Au zala-ta, gure txitak lurralde aretan ez eben kidekorik ezagutzen. Ozta-ozta illabete bat egiñik, Pantxike'ri eskuetatik kentzen eutsoezan.

Eskaratzean bete neban garbiketa-lanari esker, sendi-arteko gora-beera guztiak ezagutzen nebazan. Lau seme-alaba ebezan senar-emazteak, eta erriko ikastolan ia egun osoan ziarduen ezker, arei buruz ez dot gauza andirik esateko. Gurasoai egokienetan, ostera, dana zeatz-zeatz ezagutzen neban, eta etxe askotan lez, Aldekone'n prakak erabillezana etxekoandrea zan, eta Donato gaixoak arek iñoan guztiari, baietz esan bear. Izan be, Pantxike jagole ona zan, eta etxeko erabiltea esku onetan egoala esan dagikegu, bai orixe...! Donato gizon ona ta langille porrokatua zan, goizetik gaberarte lanean ziarduana, eta etxean zanean, emazteak iñotsanari beti "baietz" erantzun eroiana. Etxeko giroa, beraz, baketsu ta zorionsua zan, noizean bein Pantxike'ren didarren batek astinduta, seme-alabai agiraka egiten eutsenean batez be.

Jaiegunetan, Donato meza nagusitara, edo arratsaldean lagun-arteko bazzarretara joatearren etxetik urten-agiñean zala, Pantxike'k gudari bateri kapitana lez, senarrari azterketa zeatza egin oi eutsan, eta oiñetakoetan lokatz-izpirik txikiena be ikusita, Donato gaixoak urteera geroratu bear eban ondape-

na atondu arte. Beste batzutan, prakak edo txartesa errudunak izanik, kendu-erazoten eutsazan bear dan lez burdintzeko. Geienetan, baiña, gatxa arkondararik etorren, eta ain zuzen be, ardurarik andiena erabilli bear eban Pantxike'k senarrari egokion itxura "drogoso" izan egian. Donato gaixoak, baiña, arri ber-beran sostor egiten eban beti, eta onetan alegia: arkondararen botoiak egokiezan begiteetan sartzen ez ekian, eta ez leuke iñoiz ikasiko be.

–Baiña ez ete dozu sekulan be ikasiko arkondarearen botoiak bear diran lez lotu, arlote orrek...! Zer esango dabe errian ikusi ba'zengiez itxura orretan...? Nik naikoa ondo dakit esango leukiena: ara... emazte txatxala ta ganorabakoa dozula, eta izan be, zuzen legokez. Ai, arlote ori, neugaitik ez ba'litz...!

Donato "baietz" etxetik urtenda, badatoz Aldekone'ra inguruko andrazko batzuk "briska" jokoan arratsaldea emoteko, eta maitzat otzara bat buruz-beera jarrita, onen inguruan egokitzen dira. Jokatu bitartean, Iñarratza'n gertatzen eta gertatzen ez danaren gora-beera zeatzak alkarrari jakiñ-erazoten dauzkiez. Baiña laga dagiguzan orain gauzatxu orreik, eta ekin dagiodan nire bizitzaz zer-ikusi dauanari.

Bajoiazan illabete ta urteak aurrera, eta nire biziera zorionsua illunduko leukien iñoiz ez asmaturiko odei baltzak agertzen asi ziran. Aspaldiz suzmo txar batek artuta nenbiltzuen, eta auxe alegia: Aldekone'n "eutanasia" edo zaarren garbiketea erabilten zanaren arrenkurea. Noizean bein, Pantxike'k azterketa zeatzak nire oillotxuen artean egin oi ebazan. Sorgin arek baekian zeintzuk oillo errunketean uts egiten asten ziran, eta dalako oilloa artuta, arrautzodia kanpotik aztertu, eta bereala igarrita eperdian azken arrautza ebala, urrengo merkatu-egunean, etxeko ortuariakaz batera oillo gaixoa "saldo egiteko" saltzen zan.

Nire oillotxu gaixoak...! Urteetan zear iñongo janaririk bage ainbeste arrautz eder oskol-gorridun errunduta gero, ondo irabaziriko zaarsaria edo jubilaziñoa egokienean, merezi eben goratarrea egin bearrean, saldo ta sukalki biurtzeko epaituak ziran. Ekintza zital onek bitara mintzen ninduan: batetik maite nebazalako, eta bestetik, ainbeste onura ekarritakoai ordaintza ain eskerbakoa emoteak, nire onetatik ataraten ninduan. Baetorkidan oilloen ondo-izateari begiratzea, bizitza emoteraiño bearrezkoa izatekotan, baiña ezin nengikean besterik egin, nire oillotxuen azken baltzari begiratu baiño, eta maitetxu arek bata bestearen atzetik nire bizitzatik ostentzen ikusi ezer egin eziñik. Bide bardiñetik azkena etorriko leitekidala be, ez yatordan burura, baiña bein baten...

Oi neban lez, bazkaloste aretan jausitako mai-apur urriak jasoten niardua-

la, sukaldeko arlastak garbi ta dizdiratsuak egiñez, ezustean Pantxike'k arrapatu ninduan, eta bere altzoan ni jarrita etxeko-jaunari auxe esan eutsan:

—Entzun, Donato, aspaldi onetan arrenkura bizitan nozu gure Plorentzi'ri buruz, eta izan be, zaarra biurtzen asi yakula.

Isildu zan une batez, eta gero.

—Bai, Donato, gogo illunakaz jota nozu, gure Plorentzi zaarra egiten asi ez ete yakun. Begira... iru urte igaro dira jaio zanetik, eta gure oillotxuak erruntzeari uts egiten asi yakuz...

—Sasoi txarrean gagoz, Pantxike, udagoian ain zuzen be, eta aro onetan errunketeak beerantz egiten dau.

—Bai, baiña... Begira, Donato, lengo udabarrian be errunketea lazotu zan, eta Plorentzi'k iru urtebete egin dauzan ezkerero, ba... zer ikusi andia dago oillarraren adiaña ta errunketearen artean. Gudaroste bateko gudalburua egokia ez danean ez dago guda-irabazterik, eta era berean be, zartzaroan sartuta, Plorentzi'k ezin dagike oilloekiko betekizuna ondo egin. Onena litzakigu, beraz, tamala badautsat be, gure Plorentzi'ri duintasunezko amaia emon burduntzian erreki biurturik... Eta datorren igandean ezkondu gintzazaneke amaboskarren urteurruna beteten dan ezkerero, ezin ori baiña ereti egokiagorik.

Asarre gorriak artuta, nire izate guztia irakiten egoan. Ia lau urte baziran jaio nintzanetik, eta arrezkero egunik-egun, nire eginkizuna bete izan neban, etxeari ekarritako onuraren ordaiñez ezer eskatu barik. Eta Aldekone'ko atso eskerbako arek, saritzat nire egunak etxeko burduntzian amaitzea eskintzen eustan. Orduan nire buruari zin egin neutsan ez nintzakela ezelan be erreki biurtuko. Oldozkun onetan niarduala, siñisgatxa badirudi be, Donato "baietz"ek auxe esan eutsan:

—Ez al-deritxazu, Pantxike, gure Plorentzi zeozer argal dagoanik...? Artogarauakaz lodituko ba'genduke...

—Ez orixe...! Etxeko beste egaztientzat ikasbide kaltegarria izango litzake. Kontuan artuta, beraz, Plorentzi iñoiz ez dala gaur baiña lodiagorik izango, ba...

Alako baten Txomin autuan tartetu zan, etxekoandreaki auxe iñotsala:

—Baiña, ama, gure oillar ori azur-eskukada baiña besterik ez dan ezkerero, zergaitik ez dogu urteurren ori untxi edo koneju bat az ospatzen...? Badoguz batzuk eder-ederrak, eta niri beintzat, untxikia oillokia baiña atsegiñagoa yat.

—Bai, seme —aitak erantzun eutsan—, zuzen zagoz. Iñon ez, gaiñera, Aldekone'ko untxiak baizen ederrak.

Txomiñ'eganako eskerronezko sentipen batek menperatu ninduan, eta nire barrutik bedeinkatu neban. Bazan, baiña, mintzen ninduan gauza bat, eta auxe

alegia: azur-eskukada bat nintzala esatea. Neu lako oillar txairo, malgu, zangarra, ez zan iñongo azur-eskukada, oillotegiko nagusi eder, drogozosa baiña. Oldozkun onetan nintzala, Pantxike'k askatu ninduan auxe iñoala:

—Amor emoten badakidala ikusi dagizuen, gure ezkontzaren amaboskarren urteurrena, etxeko untxirik lodienaz ospatuko dogu, baiña entzun egistazue ondo: datorren San Jose eguna bear dan lez jai egiteko, Plorentzi burduntzirako izango da. Bera lako oillar elegante ta drogozosa munduko jakirik gozoena izan bear dau-ta.

Orduko, sukaldetik urtetan nintzan, baiña Pantxike'ren aurka sentitzen neban bidezko asarrea baretu yatan, nire okel-ontasanari buruz agertzen eban oneritxia entzutean. Gau aretan, baiña, gurdi-iguneko erpiñean lo egitearren egokitzen nintzanean, zin egin neutsan nire buruari, ez nindukela bizirik arrapatuko. Ez, Plorentzi lako oillar ospetsu, bikaiña, apartekoa, ezin zeitekean burduntzi zital baten erreki biurtu. Il, danok il bear, baiña norberari dagokion duintasunez, eta aal izatekotan, zaar-sari edo jubilaziño pozgarri baten ostean.

Eta arrezkero, aspaldi estu ta larri asi zan niretzat. Yoseba Deunaren egunerako illabete bat peitzen zan oraindiño, baiña ez nengoan gerturik etxeko burduntzian nire bizitza eredugarria amaitzeko, eta Pantxike'k nire okela benebenetan ederretsi egian, ez eustan laguntzen pozik iltera. Arrezkero, sukaldeko egunoroko garbiketea egiten nebanean, badaezpadakoan Pantxike'gandik aalik urrunen nenbillen, baiña izan be, ez zeregin aretan, ez beste edozeiñetan, ezin nengikean adore andirik jarri, eta buru-makur nenbillen batetik bestera, oldozkun illunetan murgilduta. Niretzat argi egoan, beraz, igesari emotea zala urtenbide bakarra, eta bein ebazpen onetara elduta, nire oillotxuak maitasunik andienaz inguratzea aalegindu nintzan, areikandik urruntzen ez nintzala, eskaratzeko garbiketea egiteko baiña. Bazirudian, oilloak bildur bakanak jota ebiltzala be, eta iñoizkorik maitetsuen erabilli ninduen aspaldi aretan.

Ez nebazan ezelan be bakarrik itzi gura, eta zortzi illabete egiteko zorian zan nire seme kutuna Plorentziño, nagusitzat aukeratu neban. Oillasko au nire jasekoa izanik, ni baizen drogozosa etorren, eta kukurruku jaurtitean idunearren jarrereak oillar bikaiña billakatuko litzakela adierazoten eban. Batzutan, "kukurruku"ren orde "kikirriki" txotxoloa urtetan yakon, baiña ori oraindiño gaztea zalako jazoten zan, au da, artaratu barik. Askozaz geroago jakin neban, aukera ori egitean zuzen egon nintzala, eta Aldekone'ko oillotarren endak ez eutsala iñongoari zor, eta beti lez leku guztietatik, arrautz, oillasko ta oillanden billa multzoka etozala.

Nire barrukoa bakean jadanik, eta aal neban giñoan nire oillotxuak maitetsuen erabilliz, aldiaren bide uxa-eziña bajoian aurrera, eta noizbait, Yoseba

Deunaren aurreguna eldu zan. Egun aretan ez neban Aldekone'ko eskaratza garbitu gura, eta egun osoa nire oillotxuekin emon neban, guztitariko maitasunezko ezaugarriak egiten neutsezala. Ez ekien gaixo areik, Florentzi maitearekin azken eguna igaroten ebela, eta biaramonean, Iñarratza'ko barruti osoan aintza ta ospea zan oillarra Florentzi, euren artetik betirako ostenduko litzake-la...

Illuntzean, kortan ebezan agatan kokatu ziran nire oillotxuak. Ni, ostera, oi neban talan, au da, estalpeko gurdi-iguneko muturrean egokitu nintzan. Gautu zan, baiña loak ez ninduan artu gura, orduak astun eta astiro igaroten zirala izarren dizdir motelpean. Egunsentia barik, izarren keiñu ta itxurak didarra jaurtikeko garaia zala adierazo eusten, eta orduan argi ta ozen, goizalde-aurreko itxar-deia zabalduan zear barreiatu neban. Gero, izarren dizdira moteldurik eta sortaldea urrez jantziten zala, zabaldua margo ta irudiz apaindu zan.

Alako baten, kortako ate-azpiko zulotik, Florentziño nire seme kutuna urten zan, atzetik oillotxuek erraikioela. Ozta-ozta urtenda, nire seme gazteak garbi ta sendo, bere nagusitasunaren didarra lau aizeetara jaurtiki eban. Maitasunezko sentipen batek meperatu ninduan... Florentziño zan drogoa...! Ezustez, nire burua gaizkatu gura ba'neban iges egiteko garaia etorri izan yatala oarturik, egaldi luzetxua eginda, bidean kokatu nintzan. Begietan malkoak eta biotza naigabez zapalduta, atzera begiratu eziñik, Iñarratza'ko Aldekone maitetik nora ez nekiala sortalderantz abiatu nintzan.

## OLAGOITI'KO ERREMENTARIA

Izan be, ez neutsan bildurrik etorkiari, nire burua zaintzeko banintzan nor'eta. Janaria nire kabuz billatzera oitua nintzan, eta banekian gizakiak eta piztiak etsaiak nebazala, baiña arduraz jokatzekotan, ez litzakit iñongo kalterik etorriko.

Udabarriko arnas pizgarria nonai etorkidan, eta eguzkipean bizitza barria somatzen zan. Gose nintzan ezkerro, larra baten zear xixarien billa asi, eta luzaro barik ase, ibiltari jarraitu neutsan barriro. Bidezabaleko berebillen joan-etorriaz gogait-eraginda, saiestu nintzan, eta gurdibide baketsu baten zear ibiltari jarraitu neutsan iradu barik. Aldekone'n geratu ba'nintz, orduko lumatuta, burduntzian untzatuta, eta sutondoan jarrita erreko nindukielaren oldozkunak, azaldu ezin nengikean poztasun bakanak eragiten eustan, eta adorez beterik bideari ekin neutsan. Pantxike'k artuko leuken asarrea...!

Etorkiari buruz ez neban ezetariko asmorik egin. Banekian, arlote baten biziera norabakoari ezin nengikiola emon, eta auxe argi egoan niretzat: Lekuren baten ereti egokia aurkeztuko ba'litzakit, an bertan geratuko nintzake, nire bizitzaldiaren azken zatirako. Ez nekain, baiña, ames agiten neban auke-rea izango eta neuken...

Egun batzuk igaro ziran sortalderantz iradu barik niñoala. Zabaldia base-rriz zipristinduta ikusten zan, eta zearkatzen nebazan alorretan zenbat-gura janaria jaristen neban. Gaba urreratzen zanean, zugaitz tantai bat aukeratu oi neban, goiko adar goienetan lo egiteko. Au biderik ziurrena zan piztien eraso-ak alderatzeko, azerienak batez be, lurralde aretan ugari ziran-eta. Goizaldean ibiltari emoten neutsan barriro, or-emen aztarrika niarduela janariaren billa. Edu onetan astebete baita illabeteak be igaro ziran, astiro-astiro zabalduan zear niñoala.

Bein baten, arratsaldean, bide-gurutze baten etxe andi samar bat aurkeztu yatan. Ango ingude batetik mailluaren jote-otsak entzumenaraiño yatordazan, eta augaitik etxea errementegia zala begitandu yatan.

Eguraldia euritsu ta otza izanik, antxe bertan babesa artzea erabagi neban. Ur samar nengoala, abots trumoitsu bat onetaraxe abesten asi zan:

Dringilin drangalon  
eutsi zure perra  
idi geldo ta alperra  
ta joan or-konpon.

Olako auspoak  
aizerik emon ez,  
augaitik negarrez  
nire andra gaixoak.

Zapata barriak  
idi ta astoari,  
baiña arotz onari  
oiñetako autsiak.

Ai, beti lanean  
nabil ni zoroa,  
baiña solomoa  
ikusi ez gurean.

Nork apalduko gaur  
amabi galeper,  
zortzi saieski eder,  
eta berreun intxaaur...!

Gitxi ni baizen on  
erri-errementari,  
beti ekin lanari  
Olagoiti'ko Antxon.

Bide-gurutzera urreratzen nintzala, iragarki baten, auxe idatzita agertzen zan: "Olagoiti". Bide-gurutzetik ur samar erri baten etxeak arrats-beerako erdi-illuntzean ikusi zeitekezan. Eguraldia euritsua zan ezkerro, errementegiarren alboko estalpean gaba emotea otu yatan, eta emen atontzeko egoan, antza, gurdi bateko igunean kokatu nintzan. Errementegiko sutondoak argi gorritzat barreiatzen eban, eta onetan islaturik, gizon indartsu lodi baten irudia somatzen neban, ingude-gaiñeko burni gori bateri maillukada zaratatsuak emotsazala. Au egin bitartean, abots durundatsuz abesten eban. Errementegi-gaiñean

bizitetxea egoan. Alako baten leio bat edegi zan, eta emakume batek didar bizitan auxe aldarrikatu eutsan:

–Antxon, Antxon, nire gaixo ori, beti lanean apalordua danik be aztu egin yatzu. Gure Antxontxu aspaldiz biurtu da ikastolatik, eta ezin dot aren jateko gogoa berbaz baretu. Zatoz beingoan...!

–Bai, Antxone. Zer atondu dauskuzu gaur apaitarako...?

–Lapiko bete porrusalda saieski ta guzti, eta gero mai-azkentzat sagar erreak. Gaioi bear dan lez laguntzeko, Naparra'ko pinta ardao.

–Banoatzue beingoan ba...!

Au esanik, erabillen burnia uretara sartu irakite baten suzmur motela aditzen zala, eta jarraian errementaria zurubian gora igon zan.

Orduko gautu izan zan, eta dana isil-isillik egoan ezkerro, eguraldia otza izan arren, lo geratu nintzan bereala. Noizean bein, alboko bide-gurutzetik berebillen baten burrunba motela aditzen zan, euriak estalpeko teillatuan dandolinkatu bitartean. Euriaren tarrapata logarriak etenbarik lagundu eustan, eta gaba arin baten igaro yatan. Goizaldeko aldarria jaurti ta laster, egunsentia asi zan. Orduko, euria eten egiña zan, baiña eguraldia illun eta otz izanik, ez yatan gogokoa. Goseak eraginda, gurdiko igunetik beera zapart egiñik, alboko arroil baten zizarien billa jardun neban. Olan nenbillela, errementegiko atea edegi, eta emakume loditzar batekin amabi bat urteko mutiko potoloa agertu zan. Itxurearen arauz argi egoan ama-semeak zirala, aurpegi gorri biribil dizdiratsu ta osasuntsuek erakusten ebenez. Orduan mutikoari mosu bat emonez,

–Agur, Antxontxu –esan eutsan amak–, kontuz ibilli jausi ez zaitez an ikastolarako bidean.

–Bai, ama. Geroarte.

Orduan bertan, bizitetxeko leio bat edegita, gizon lodikote gorraile bat agertu zan, eta.

–Aizu, Antxontxu –oiu egin eutsan aita–, ikastolara igorten zaitugu zeozer ikasi dagizun, baiña entzun egistazu auxe ondo bai ondo: benetan ikasi bear dozuna baloiari ondo emotea da, ostikolari on-ona billakatu zaitez an, orixe da benetako ogibidea-ta. Laga egizu besteek ikasi dagiela, mundu onetan guztitariko jendea bear da-ta, baiña zuk zeureari jo ta ke...!

–Bai, aita, agur.

Joan zan ba, mutikoa, eta andik laster, Antxon errementaria sutegian agertu zan. Sua piztuta gero, auspo-eragiteari emon eutsan abots trumoitsuaz auxe abesten ebala:



Dringilin drangalon  
aita errementari,  
seme futbolari,  
auxe bai zorion...!

Ordu asko lanean  
joten burniari,  
baiña jateari  
urri ta gitxitan.

Janari ezagaitik  
jausi yataz agiñak,  
baiña sabel-miñak  
uxatu ez nigandik.

Urdailla oiuka  
gabaz eta egunez,  
bedar eta asunez  
beterik baidauka.

Ai, Antxon gaixoa,  
dirutan urria,  
gosez urduria,  
ta egarriz zoroa...!

Niretzat zerua  
erralde-urdazpia,  
ta nire eguzkia  
bonbil bete ardua.

Sutegian jarritako zatia berotu zanean, burni goriari jo egiñez txinpartak egaz joiazan. Burnikia oztuten zanean, barriro sutera, eta auspo-eragintzeari barriro goritu arte. Noizbait, gorrika andi bat artuta, amaitzat uretan murgildu aroa artu egian, eta onen ostean sutegitik urten egin zan.

Orduan goizeko argi betean begiztatu aal izan neban nire aukeran, eta izan be, aren itxurak zur eta lur itzi ninduan. Ia metro biko garai izango litzake Olagoiti'ko errementaria. Trinko ta zabala era berean izanik, erraldoi baten itxura eban. Aurpegi biribil, gorritzan, begi txiki urdiñak, suur zuzena, eta amen baten erraldeko urdazpia jateko gai izango litzaken agin zuri osasun-

tsuakaz apaindutako abotzarra eban. Ule baltzak txapel anditzar bat az nekez estalduta, onen azpitik parrastaka urteten ziran. Soin-aurrekoa narruzko amantalez babestua, azpikaldea untzakaz jositako oski lodi sendoak erabillezan.

Gurdi-igunean kokatuta nengoan barriro, eta alako baten begiak nigan josirik, dizdir gaizto biziaz argitu yakozan, ezpan lodiak miazkatzen ebazala. Argi egoan niretzat, erraldoi arek bere urdaillerako nai ninduana, eta au egiztatzean ikara larri bat nitzaz jabetu zan. Orduantxe, nire buruari zin egin neutsan ardurarik andienaz ibilliko nintzakela, aren atzaparretan ez jaustearren. Oldozkun oneik buruan nerabillezala, idi bat ekarren baserritar bat agertu zan, eta.

–Eup, Antxon...! –didar egin eban–.

–Kaixo, Markel, idia perratzer...?

–Bai, eta ain zuzen be, perra guztiak barritzeko, barrabas onek danak laskitu dauz-eta.

–Ordua da, Markel. Aspalditik ez zaitut ikusi emen, eta izan be, perrak betirako izango ba'litzakez, ez dakit zerez bizi izango gintzakezan errementariok.

Barre egin eban besteak, eta idia gorokitik artuta, perra-lekura eroan eban. Ona elduta, ede luze bat az errementariak adarretatik lotu eban, burua ziurtatzeko, eta jarraian sabelpetik ede sendo zabal bikaz idiaren gorputza lotu eban, zubil bat bira-erazorik makilla baten bidez. Bildurrak arturiko idi gaixoak murrusa egiten eban, ulertu eziñik gertu-lan arein zergaitia.

Jarraian, banan-banan idiaren lau anak jaso, eta zutoin baten gaiñean jarrita, orrika bat az perra zaarren untzeak atara ebazan. Onen ostean, bartzu zorrotzatz apatxak leundu, garbitu, eta perra barriak ipinteko gertatu zan, eta ain zuzen be, ekintza onetan zur eta lur itzi ninduan. Perra bakotxa belarri antzeko luzaki bat az orniduta dago, eta oneik, ingudeko mutur luzean mailluka biurtzen dira, apatxaren goikaldeari egokitu zeitezan. Eta, Antxon'ek zer egin eban uste dozue...? Ara ba... ingudeari jaramonik egiteke, perra bakotxaren belarria agiñen artean sartu, eta esku-eragiñez biurrikatu...! Gero, au munduko gauzarik inuzenteena bai'litzan, perrak apatxaren beekaldeari untze bereziak josi. Era onetan, Olagoiti'ko Antxon'ek zortzi perrak barriztu ebazan.

Amaitu ebanean, ordainduta gero, Markel'ek auxe esan eutsan askaturiko idia etxera eroateko gertatzen zanean:

–Baiña, Antxon, ez et dozu ingude ederra perrak okertzeko agiñak erabilli barik...?

–Bai, baiña inguderañio zortzi joan-etorri egitea aspergarri yat benetan. Onez gaiñera, agiñak sendotzeko, inarkuna bearrezkoa da, eta janari-

mamurketea gurean oso laburra dan ezker, ereti gitxi Jaungoikoak emon dausku aboko tresnadia bear dan lez gogortzeko.

Barre egin eban Markel'ek, eta.

–Baietz egingo neuke –esan eutsan–, idi au arnas baten garbituko zendukela.

–Ez litzake txarto saioari ekitea...

Markel joan zanean, Antxon'ek estalpeko gurdiari gupil bat atara eutsan, eta lurrean etzanda jarrita, zintzel bataz burnizko ugala kendu eutsan. Jarraian, gerturik egoan ugal barria sutegian ipiñi eban goritu zeiten, auspoari oinpeko bataz eragiñez. Olan ziarduala, erriko ikastolatik biurtu zan Antontxu, eta orduan aitak.

–Aizu, seme –esan eutsan–, bion artean gupil orreri ugal barria sartu bear dautsagu.

Antontxu'k, antza, zeregiña ezagutzen eban, eta aita-semeak orrika bana erabillirik, sutegitik ugala atara, eta gupillari egokitu eutsoen. Bero-bero izanik, ugal barria luzatua egoan, eta bakotzak zurezko gabiko bataz, maillukada bizitan gupillari egokitu eutsoen. Au sutan asi zan ezker, errementariak suil bete uraz otzitu, eta burdiñezko ugala gupillaren inguruan estu-estu egokitu zan.

Arratsalde aretan, tresna batzuk zorrotzu egiozan emakume bat azaldu zan. Sutegiaren ondoan egoan zorrotzari andia eragiten asi zan Antxon. Ardurarik andienaz zorrotze-lanari emotsala, etorri barriak neugan begiak josi ebazan. Une aretan bertan, arroil bateko azpikaldea aztarrikatzen niarduan zizaren billa. Alako baten.

–Antxone, Antxone –oiu egin eban emakumeak–, zatoz apur baten...!

Antxone leioan azaldu zan, eta.

–Kaixo, Elene, aspaldiko ori, ordua da etorri zakiguzala...!

–Aizu, Antxone –esan eutsan urduri besteak–, Siñisgatxa da benetan, nire begiak ikusten dabena...

–Zer ba...?

–Nor eta Plorentzi, Aldekone'ko oillar ospetsua zurean...! Neronek ikusi ez ba'neu, ez neuke siñistuko.

–Ez niri esan, gero, Iñarratza'ko oillar bardinbagea etorri yakula...

–Bai, Antxone, Plorentzi berbera, munduko oillarrik drogozoena begien aurrean dozu. Ondo bai ondo ezagutzen dot bera; sarri askotan Aldekone'ra nerau joana nozu oillanda ta oillaskoen billa. Au dala-ta, Iñarratza erriko bitxia dan oillar ori ondo ezagutzen dot.

–Olakorik be...!

–Bai, Antxone. Egunokaz bala-bala dabil inguru oneitan, Oillarra Plo-

rentzi ostendu dala, eta oillo-arazoetan zer-ikusí dabenak oso kezkatuak ei'dabiz, oillar ori ordezteziña dalako.

Emakume biok edu onetan eragoioela, nik zizara-billatzeari jarraitu neutsan, arazoari beste garrantzirik emoteke.

Zorrozturiko tresnak ekarrezala, andik laster agertu zan Antxon, eta ordainduta gero Elene etxera biurtu zan. Antxon errementariak dirua sakelera sartuta, asperen bat jaurtiki eban, auxe iñoala:

–San Antolin, San Antolin, nekez etorri ta joan arin...!

Egun aretan, gurdi-iguneko nire barranda-tokira biurtu nintzanean, etxeko leio baten senar-emazteak txutxumuka ikusi nebazan. Etxekoandreak atzamar bataz erakusten ninduala, senarrari, Plorentzi oillarraren nortasun-gorabeerak emotsazan, urrean...

Illuntzea barik, errementaria astiro-astiro urreratu yatan eskuak sakelean sartuta. Aren begietan dizdir gaiztoa nenkusanez, barruko dei ezkutu batek aregan uste ona ez jartea adierazoten eustan. Au dala'ta, aren urreratzea ardurarik andienaz begizatzen neban. Alako baten, tximistaren arintasunaz, eskuak sakeletik atara eban ni arrapatzeko asmoz. Baiña ori baiño len, ego-eragintza indartsuaz aidean niñoan, eta estalpeko teillatuan kokatu nintzan. Errementariaren atzaparrek ni atzitu bearrean, utsa idoro eben, birao garratz eta zikiñak jaurtiten ebazala. Begi sutsuak nigan jarrita, ukabillaz zemaitu ninduan, auxe iñostala:

–Arrapatuko aut, oillar madarikatu ori...!

Eta bere biziko birao ta aienak jaurtiten ebazala, Olagoiti'ko errementaria etxera sartu zan. Arrezkero, argi egoan niretzat, ezin nengikela Olagoiti'ko errementegian jarraitu, eta biaramoneko egunsentian, beste toki ziurrago baten billa abiatuko nintzakela. Gautu zanean, eta etxeko argiak itzungita, gurdi-iguneko lengo lekuan kokatu nintzan.

Urrengo eguna argitu zanean, latz-ikara batek menperatu ninduan. Gaba igaro bitartean, edurte andia gertatu, eta zabaldi guztia arrabeteko edurrezko estalkiaz agertzen zan. Larria zan bentan nire egoerea, jatekorik jaritsi ezin nengikealako, eta onezaz gaiñera, errementariari bildur itzela neutsan. Oldozkun illun onetan nengoala, zabalditik osteretxu bat egitea otu yatan, eta lurrera zapart egiñik, janariaren billa asi nintzan.

Dana alperrik, baiña; edurrezko izara amaibako aretan, eziñezkoa zan janaririk idorotea. Onezaz gaiñera, ipar-baltzaren putz gorriean, otza azurreta-raiño sartzan yatan, eta lur-jota, estalpera biurtu nintzan nire buruari zin egiñez, errementariagandik aalik urrunen gordeko nintzakela. Izan be, une aretan Antxon'ek ingudeari emotsazan makillakadak aditzen ziran.

Arratsaldean, beste alperriko osteratxua janariren billa egin neban, eta goseak zorotuta noizbait biurtzen nintzala, ara non otzara baten azpian arto-garau batzuk ikusi nebazan. Otxarea buruz-beera jarrita egoan, eta alde batetik zotz bataz jagita ikusi zeitekean. Gose gorriak eraginda, ez neban oartu zotzari listari bat lotuta egoala... Bai, barka-eziña da, nire jaseko oillarra alako atzipe iñuzentearen bidez eizatua izatea, baiña egiari zor yakon aldetik autortu bear dot, munduko oillaskorik ergelena jausiko ez litzaken segadan, ni, Aldekone'ko oillar ederretsia, atxillo billakatu nintzala...

Alako baten, eta ozta-ozta garau batzuk iruntsirik, norbaitek zotzari teink egin, eta otzarea jausi zan, barruan itxita geratzen nintzala. Orduantxe, sutegitik errementariaren garaipen-oiua etorri yatan auxe iñoala:

–Arrapatu aut, oillar kokolo ori...! Oillotegian baizen ona lapikoan ba'az, benetako sukalkia biurtuko augu, barrabas ori...!

Arin baten urreratu yatan, eta otzarapetik esku indartsuaz atzitu ninduan, itxura gosetiaz begiratzen eustala. Gero didar bizitan onetaraxe asi zan:

–Antxone, nire Antxonetxu, zatoz beingoan, Aldekone'ko Plorentzi oillarrra arrapatu dautsut-eta...!

Emaztea aida baten jatsi, eta eskuan aztatzen ninduala, errementariak itaundu eutsan:

–Zer deritxazu oillarrari, Antxone, emaztetxu maite orrek...? Sukalkirako ala burduntzirako izango al-da...?

–Ez baterako ez besterako, Antxon, oillar au azur-eskukada baiño ez da'ta. Itxura ta lumetan ederra, baiña mamiñetan ezer ez. Oillar onek ez dau balio katillu salda bat egiteko be. Ai, giarretan narrutan baizen ederra ba'litz...!

Errementariak lur-jota begiztatu ninduan, eta.

–Zer egin geinke ba...? Orren ospetsua dan oillarrak gozo-gozoa izan bearko leuke, urrean.

Une batez errementaria oldozkor geratu zan, eta gero.

–Eta aspalditxu batez lotuta –jarraitu eban–, jateko ugari emongo ba'geunskio...?

–Ez dot beste biderik ikusten orixe baiño. Antxon. Geldi-geldi iraungo ba'leu, eta arto-garau ugariz loditu ezker, onekin egiñiko errekoa, munduko jakirik gozoena biurtuko litzake.

Era onetan ba, nire etorkia erabagi zan. Lotuta gordeko nindukie zenbat gura arto emonez, eta bein loditu ezker, blindiblaust...! Lapiko edo burduntzirako.

Jarraian, errementariak sutegira eroan ninduan, eta lotuki bat ingudetik ur samar egoan ormako txinga batera estekatu ninduan, eta gero pozez gaiñezka

zurubian gora etxera igon zan, Antxone'k gerturik eban oiko lapikokoari adorez beterik ekiteko. Argitu bear dot emen, iruko sendia baiño izan ez arren, erabilten eben lapikotzarra, sagardotegiko upel baizen andia zala.

Arrezkero, aspaldi izugarria jasan neban. Goiz guztietan, errementariñeak erratillua arto-garau ederrakaz beteten eustan, eta jarraian bere esku lodikoteen artean artuta, eskukatzen ninduan. Au egiñik, abopear auxe esaten eban:

–Ja noiz loditzen azan, barrabas ori, narru ta azurrak baiño ez yaukazak-eta.

Estu ta larri bizi izan nintzan aspaldi aretan, ormako txingara jopu baten antzera lotuta. Egia da zenbat-gura janaria nire aukeran nebala giar era koipetan biurtzeko, baiña egoera ikaragarri arek urdaillean korapillo bat sortzen eustan, eta irustea zailla egiten yatan. Ortz-agiñakaz perrak okertzeko gai zan Olagoiti'ko errementariaren burdiñezko usikadek birrinduko nindukielaren usteak, jateko gogoak uxatzen eustazan. Bardin da, izan be, ilda gero eta onetan edo aretan erabilli izatea, baiña perra-okertzaille aren matrailpetan birrinduta amaituko nintzakela, latz-ikaratzen ninduan, eta au zala-ta, jangartasun gorripear bizi izaten nintzan.

Lotuta egon arren, egunak gabak baiño jasanoragoak yatazan, sutegi-ondoko errementariaren erabilketak, neurri baten oldozkun illunak uxatzen eustezalako. Idiren edo astoren bat perratza ekarten ebanean, eta bezeroekin izan oi ebazan alkarrizketak, gogoeta itunak baztertzeko laguntzen eusten. Lana eginda gero, dirua sakelera sartzen eban baktotxean, Antxon'ek auxe esan eroian asperenka:

–San Antolin, San Antolin, nekez etorri ta joan arin.

Esaera onen bidez adierazo gura eban errementariak, nekez irabaziriko diruak, laster urtuko litzakezala jatekoaren ordaiñez. Ain zuzen be, etxeko lapikotzarra beteteko "San Antolin" ugari bear zan Olagoiti'ko errementegian. Egiari zor yakon begirunez, esan bearrean nozue, Antxon bere zeregiña ondo ekiana zala, eta goizetik gaberarte lanari buru-belarri emonda irauten ebana.

Gabak, baiña, askozaz larriagoak igaroten nebazan. Illunpe utsetan, nire kinka larria ikaragarriago aurkezten yatan, orduak astiro ta aspergarriak alkarri eraikioela. Nire begira egoan eriotzak lo-gura uxatzen eustan, eta erdi-loaren antzekoa zan beila izugarripear, ordu illun areik amaibakoak egiten yatazan.

Jopu egiten ninduan lotukiari sarritan erasoten neutsan eten egiteko asmo-tan, baiña agun barrabasa plastikozkoa izanik, ez neban askatzerik. Nire burua jareitzeko bideren bat idoroko ba'neu...! Onezaz gaiñera, otzarapeko segadean jausi ez litzaken iñongo oillasko iñuzente, kokoloa, neu lako oillar bikain, emai, zuurra, atzipetu izatearen oldozkun soillak lotsaz beteten ninduan, eta

nire buruaren aurka, gorriak botaten nebazan. Non egoan Aldekone'ko oillar drogoosoaren arrotasuna, duintasuna eta bere buruarekiko ederrespena...? Soñez eta gogoz izaki ezain, utsala biurtu izan nintzan, eta orain eskatzen neban gauza bakarra, duintasunezko eriotza zan, nire jaseko oillar bateri egokionez. Edu onetako oldozkun larritan gabak emoten nebazan.

Ez uste, baiña, errementegiko gau luze, amaibakoak, utsik eta bizitza barik igaroten zirala, ez orixe...! Goiko etxe-bizitzako irukotearen joan-etorriak itzungiten ziranean eta gabeaz zear iruren zurrunga burrunbatsuak inguruak urrumatzen ebezala, illunpetako biztanleak iratzarrita, bizitzaren alde ekiteko gertatzen ziran.

Sutegiko berotasunak eraginda, txokoa eratzen eben orma biak zuloz beterik egozan. Ormako buztinarien begiek, saguentzako abi bikaiñak eratzen ebezan, eta zulo bakoitzean areitariko sendi bat kokatzen zan. Nik ez dakit zenbat sagu litzakezan Olagoiti'ko sutegian, baiña bat az beste, baietz bosteun maister-edo egingo neuke. Sutegiko etxaurrea leio zabal bat az ornitua zan, eta onen zear kaleko argiontzaren dizdira etxepeko sutegira sartzen zan, barrukaldera argi motela edatuz. Illunpearri oituta izanik, nengoan espetxea niretzat argitsua zan, eta barruan jazoten ziranen gora-beerak naikoa ondo ikusten nebazan.

Gaberdi-inguruan, eta errementariaren sendiak jaurtitako zurrungak etxape aretan suzmurren antzera aditzen ziranean, banan-banan urtetzen ziran saguak, eta oraindiño lo-guraren menpe, igikun alperrakaz eta arrausika nagiak ataraten ebezala, saguz gaiñezka beteten zan sutegia.

Dalako sutegia soru-gaiñetik metro batera egoan, eta saguak bata bestearen atzetik itxartu-ala, aren ertzera urreratuta, beerantz begira zain egoten ziran, eta ain zuzen be, zuur jokutzen eben. Beekaldeko soruan, sutegiko jaun eta jabe zan katu andi batek saguen agerpenari itxaroten eutsan. Dalako katua baltza ta andia zan, eta sutegian jatekorik ezean, sagu-arrapaketa janaritzen zan. Erraza izango litzakion katuari, metro bateko gorako bitartea ikoti bat az garaitzea, baiña dirudianez, bein baten gora igonda sagu barrabas baten atzetik joiala, sutegiko ikatz gorietan oiñarrak erre yakozan, eta ordutik, ez litzakean munduko urre guztiagaitik igongo.

Sutegiko ertza saguz beteten zan bitartean, soruan jesarrita katu baltza geldi-geldi egoan. Noizbait, sutegiko mugak saguz irakiten zirudianean, aurreneko sagua, izan be iñuzenteena, atzeko lagunek bultzaturik lurrera jausten zan. Sagu gaixoak beekaldea ukutu baiño ez, katua onen atzetik oldartzen zan, eta ariñeketan biok illunpetan ostentzen ziran. Geienetan, sagutxua katuak iruntsia izaten zan, baiña egunean sagu bat gora-beera ardurarik ez. Katua

beste sagu baten billa sutegira biurtzen zanean, arrezkero ez zan sagurik ikusten. Sagu iñuzentearen jazarpena ustiatuz, bere lagun guztiak sorura ikoti egin, eta atepeko zirritutik kanpora urten izan ziran. Barruan eizakirik ezean, gogait-eragindako katua be ateko zulotik urtetzen zan, sutegian bakarrik gertatzen nintzala.

Egunsentia baiño len, katua biurtzen zan, eta saguen etorrerari itxaroten eutsan. Saguek baiña, eurerariko bat aurretik igorri oi eben, eta katua onen jarraian txoko ta ezkutune guztietatik joiala, saguen multzoa arin baten sutegian gora igon, eta ordu batzuk lenago itzitako abietan babesten ziran. Ez dakit zelako aparta jaritsiko eban katuak kanpoan, baiña sutegian jandakoaz, au da, bat az beste egunean sagu ta erdi, ez dot uste koipe andirik sortuko litzakiola.

Ekintza au gabero barritzen zan, eta sutegian bakarrik gertatzen nintzanean, erdi-lo bat nitzaz jabetzen zan, amestxarrek etenbarik erasoten eustela. Goizean, eta errementariak lanean ziarduala, onen emazteak nire erratilluan arto-garau barriak ipiñita gero, mamin urriak aztertzen eustazan. Bein baten,

–Ta, Antxone, zelan dabil gure oillara...? –itaundu eutsan errementariak–. Onezkero, jateko moduan egongo da, ezta...?

–Barrabas onek jan eta jan bai, baiña mamiñik ez.

–Begira, Antxone, gaur zortzi San Jose eguna izango da, eta orduan argal naiz lodi garbituko dogu.

–Bai, Antxon, alperrik da luzaroago itxarotea.

Astebete baten barruan, beraz, Plorentzi oillarrak azken arnasa emongo leuke, eta geien kezkatzen ninduana, era zital aretan iltea zan. Neu lako oillar ospetsu bateri duintasunezko eriotza egokion, eta ez Olagoiti'ko perra-okertzaillaren matrailen artean birrinduta. Eta sentipen onek lur-jota, jangar irauten neban, gero ta argalago biurtzen nintzala.

Gau baten, saguak eta katua sutegitik kanpora joan izan zirala, oi neban lez erdi-lo geratu nintzan oiko amestxarrek jazarten nindueta. Ames egin neban izar orlegi bizi bi urreratzen yatazala, eta sastakai ilgarriak bai'litzazan, alderik– alde zearkatu gura ninduen. Alako baten nire senetara etorrita, katu baltza ureratzen yatala oartu nintzan. Oi eban lez, urrats labur astirotsuakaz urreratzen zan isiltasunik andiencan, eta kaletik sartzen zan argi motelpean aren soin baltza ta ezabatsua ebagiten zan. Kanpoan eizaketan alperrik jardun ondoren, oi eban lez, saguak biurtu baiño len sutegira sartua zan. Goseak eraginda, konturatu zan, urrean, saguki baiño askozaz gozoagoa zan oillar iñuzente bat bere aukeran ebala, eta ni garbitzeko arazoa guztiz erraza zalakoan, astiro ta garaillearen itxuraz urreratzen yatan.

Ez neutsan iñongo bildurrik sagu-jale areri, aitzitik, burrukan egiten ilte-

ak, poztasun bakanaz beteten ninduan. Plorentzi oillarra lako burrukalari yaio bateri, aintza ta duintasunezko azkena egokion benetan. Sentipen onek nire egoera larritik goratu ninduan, eta adorea bultzatuta, eupadatzat nire guda-irrintzia edo kukurrukua jaurti neban. Au entzutean, katu baltza gelditu zan, eta une batez arrituta-edo begiztatu ninduan. Ezin egikean ulertu pizti arek, oillar gaixo bat jarki ekion, eta ezpanak miazkatu ebazan, janari bikaiña aurretiaz gozatuz.

Gero, lepo-bizkarrak uztaituz urreratu yatan astiro. Orduan, nire lepoko lumak arrotuz, egoak erdi-zabalik, eta kirio guztiak atezuan, jarki nintzakion. Tinko-tinko alkarri begiratu, katua areago urreratu yatan, eta tximista lakoa atzaparkada itzela jaurti eustan. Zorionez, aren jotea lumen artean galdu zan, eta orduan orkatzak zauritzeko gerturik oldartu nintzakion, baiña aidean zear niñoiala, lotzen ninduan plastikoak eraso eten egin eustan, katu baltza zauritzeko zorian nintzala. Pizti maltzur arek ondo bai ondo ekian zelako bitartea nigandik gorde, eta atzaparra jaurtiki baiño ez, atzera egiten eban nire orkatzan elmenetik-at egoteko. Egiketa au zenbait bidar birjazo zan, eta alako baten, etsaiaren atzapar-ukaldi batek iztarrean zauritu ninduan, erremin itzela neugan sortuz. Orduan ulertu neban nire jokabidea aldatu bear nebala, eta lotzen ninduan txingaraiño atzera egiñik, katuaren erasoai zain geratu nintzan.

Egoera onetan, lotzen ninduan aguna ez zan iñongo oztoporik, eta arerioaren urrengo erasoari itxaron neutsan. Katuak il gura ba'ninduan, urreratu bear zintzakidan erantzun nengikeon bitartera, eta izan be, jokaera barria onuratsua azaldu yatan. Bidar bi eraso eustan sutegiko katu baltzak, eta nire erantzun biak uts egin eben. Irugarrenean, baiña, aren eraso uxatuz geroz, oldartu nintzakion, eta aitzo baizen zorrotza zan nire orkatz batek aboan urradura odoltsua egin eutsan, eta katu denganiñoak marrao bizitan igesari emon eutsan, ikusmenetik galdu arte.

Arrezkero, sutegiko katu baltza ez yatan urreratu, eta berarentzat nire mamiñak eldu-eziñak ziran ezker, errazagoa zan sagu-eizaketari emon eutsan oster be. Pozik eta arro oartu nintzan katua garaitu nebalako, baiña gurendaren adorea otzitu yatanean, barriri larritu nintzan, nire begira egoan eriotz zitala gero ta uxa-eziñago ikustean.

Il baiño len nire aukerean nebazan egun urriak, astiro ta aspergarriak igaro ziran, eta noizbait, Yoseba Deunaren aurreguna etorri zan. Orduko, eguratsean udabarriaren arnas pizgarria oartzen zan, eta urrengo egunean ilgo nintzakelaren oldozkun jasangatxak, azken orduak larritasun bizia biurtu yatazan. Aurreko gabean, lotzen ninduan lokarriari mokoka eraso neutsan ebagiteko asmoz, baiña plastikozko agun madarikatua eten-eziña zan.

Gabean, apalostean, semea oera igorrita gero errementaria ta beronen

emaztea etxetik sutegira jatsi, eta argia piztu ondoren urreratu yatazan. Zigarrotxu bat erreten ziarduala Olagoiti'ko errementariak emazteari auxe itaundu eutsan:

–Ta, zer deritxazu oillarrari...?

–Betikoa emoten dau –erantzun eutsan emazteak mamiñak eskukatzen eustazala–, eta nire ustez ez da gauza burduntzirako, Antxon.

–Orduan zelan atonduko dozu...?

Oldoztune laburraren ostean, emazteak,

–Begira, Antxon –esan eutsan–, oillar au mundutik asko ibillia dan ezker, kirioetsua da, eta okel barrabasa samurtu dakion, babatxu ta lursagar barriakaz sukalki bat egiteari deritxat biderik egokiena.

–Ederto, Antxone neuria –erantzun eutsan errementariak ezpanak miazkatuz–. Zu bai sukaldariñe bikaiña...!

Eta jarraian, aldarerik onenean senar-emazteak zurubian gora etxera sartu ziran bakarrik izten ninduela. Eta gogoeta baltzak larrituta, nire bizitzaren azken gaba igaroteko gertatu nintzan. Alako baten, usain garratz sundatsua usainmeneraiño etorri yatan, eta inguruari begiratu, nigandik ez urrun, errementariak lurrera jaurtitako zigarrotxuaren mutxikiña keetan ikusi neban. A lako usaiña gogokoa ez neban ezker, egoerea aldatu neban uxatzeko asmoan. Ezustean, baiña, iñusturi baten antzera burutapen bitxia etorri yatan. Zergaitik ez...?

Baiña arin ibilli bear neban, mutxikiña laster amaituko zan-eta. Urreratu nintzakion, baiña nire elmenetik-at egoan. Plastikozko aguna atezuan jarrita, anka askea aalik eta urrunen luzatu... eta erdiko atzaparrak mutxikiñari ozta-ozta eldu aal izan neutsan, eta gero, ardurarik andienaz nireganatu neban. Mutxikiña itzungiteko zorian zan, eta astirik galtzeke aren txingarra agunaren ondoan ipiñi neban. Andik laster aguna pizten asi, eta atezuan jarrita, eten egin zan. Ezin nengikean siñistu ainbeste egun larriak igaro ondoren, jarei nengoala, nire burua galdutzat jotzen nebanean batez be. Baiña egia zan: nire buruaren jabe nintzan...!

Nekez menperatu aal izan neban askatasun-irrintzi zaratatsu bat, baiña zuur jokatu neban, goiko etxe-bizitzan, senar-emazteen zurrumurrua aditzen zan-eta. Astirik galtzeke, sutegi madarikatu aretako atezuan egoan katazulotik urten, eta estalpean egoan gurdi-igunera igonda, onen muturrean kokatu nintzan gaba igaroteko. Iretargiaren dizdir zurailak errementegia ta inguruko zabaldua zurixkatzen ebazan, eta nire zoriona jabetu eziñik, lo egiteko gertatu nintzan, baiña badaezpadakoan, lo arin bateri emon neutsan, edozein galtzortik garaiz iges egin aal izateko.

Erdi-lo nengoala, etxeko leio edegitik aditzen zan eresi batek iratzarri nin-

duan. Pozez eragindako Antxon'ek didar bizitan abesten eban, bere emaztearen txaloak eta "ori, ori...!" oiua aditzen zirala. Onetaraxe aldarrikatzen eban bere poza errementariak:

Dringilin drangalon  
biar oillarkia  
babaz egosia  
gure etxean egon.

Oillar drogoa  
Plorentzi benetan,  
biar urdailletan  
arrera gozoa.

Egazti arro-arroa  
Plorentzi Aldekone,  
baiña gure Antxone  
sukaltzain yaioa.

Banabil lanean  
buru ta belarri,  
baiña bizigarri  
gitxi da gurean.

Merezi nebana  
beean dot atxillo,  
Plorentzi astokillo  
zoro ta txaldana.

Gure San Antolin  
etorri da nekez,  
baiña zorionez  
biar biok txolin.

Errementariak abestia amaitu ebanean, emazteak barre-santzoka ta txaloegetari emon eutsan auxe iñotsala:

—Ori, ori, Antxon, biar Naparra'ko ardao gorriaz oillar iñuzente ori bustiko dogu, biok txolindu arte.

—Bai, emaztetxu niria. Plorentzi lako oillar iñuzenteak mundu onetan izan daitezen artean, San Antolin ugari ezagutuko da errementegian.

Eta au esanik, senar-emazteak barre-santzoka asi ziran barriro. Olan jarraitu eben une luze batez, eta noizbait, etxeko argiak itzungita, lotara joan ziran. Andik laster etxea oiko zurrungakaz bete zan.

Olagoiti'ko errementariak, astokillo, txaldan eta iñuzentetzat ninduan, antza, baiña biaramonean benetan barre egingo leukena, neu izango nintzake. Aldekone'ko Plorentzi, oillar drogoa, txairo ta azkarrari buruz olakorik esan be...!

Erdi-lo aretan gaba zorionez gaiñezka emon neban, eta argitu baiño len, izarrek eta iretargiak egunsentia laster etorriko litzakela adierazo eustenean, nire betiko oldeari jarraituz, gurdi-igunetik ozen eta argi, goiztiri-aurreko oardeia aldarrikatu neban zabalduan zear. Andik laster, egunsentiko atzamar larroskarak eguzkiaren lenengo irribarra iragarri ebanean, nire zoriona jabetu eziñik, aidean zear egada luzea egin, eta Olagoiti'ko errementegia bein betiko itzi neban.

Bidean gora niñoiala, burura etorri yatan errementariak itxartean artuko leuken arritasuna, sutegian ez nengoala ikustean. Orduan, nire buruari esan neutsan, ni ordezteko baebala errementegiko katu baltza. Gomutara etorri yatan orduan, Iñarratza'ko otzaragilleak iñoana, eta auxe alegia: narrututako ta berakatzaz ondo igurtziriko katuak gabeko ozkirrian igarota gero, munduan kidekorik ez ebalababairako. Izan be, Iñarratza'ko otzaragilleak ondo irabaziriko entzutea eban gure barrutian jaki-ezagularitzat. Au gogoratzean, nire barre-gurea jabetu eziñik, gelditu, atzerantz begiratu, eta barre-santzo itzela jaurti neban Kukurruku indartsu baten bidez, eta jarraian, adorez gaiñezka, eguzki-aldeko norabiderantz jo neban.

Yoseba Deunaren eguna zoragarria billakatu zan, eta batzutan ibilliz, bes-tetan zizaren billa niarduala, eguna igaro neban. Udabarriaren zantzuak nonai agiri ziran, eta zorionez gaiñezka nire askatasunaren lenengo eguna zoragarria billakatu yatan. Gautu zanean, sarats baten adar gorenarikoa aukeratu, eta lo atsedengarriak artu ninduan.

Iru egun iraun neban gurdi-bideetan zear norabarik. Irugarreneko arrats-beeran erri txiki polita agertu yatan aurrean, eta andik laster bide-gurutz batera elduta, iragarki auxe irakurri neban: Goikolanda 0,5 kilometro. Iragarkiaren muturrak ezkerretara erakusten eban, eta erri polit arek erakarrita, ara joatea erabagi neban. Luzaro barik, arrizko etxe ederrek inguraturiko enparantza garbi ta zabalera eldu nintzan. Nire aurrean oiko joaletegiaz burututa, eleiza txairoa ikusten zan. Erri aren edertasun eta bakeak jarki-eziñeko eragintzaz erakarten ninduan. Onezaz gaiñera, agiri zan nonai mendietako egaletaraiño edatzen ziran etxeak ikusita, erri baserritarra zala, eta beste barik, bazter areri erion lillurak irabazita, erri aretan aspalditxu bat emotea erabagi neban.

Eleizatik ez urrun, baratz txiki batek mugaturiko etxe txikia ikusi neban, eta barruko zerbaitek eraginda, aren arresiko goikaldean kokatu nintzan. Baratza atsegiña zan benetan, zati bat ortua zala, eta enparaua, bedar, lorategi, eta igalियोdo batzuk osotua. Baratz onetara begiratzan eban etxeko atzekaldea egorantz zuzenduta egoan. Illunabarra zan orduko, eta zauskada ezkutu bateri jarraituz, arresiz bestekaldera zapart egin neban, eta baratzaren erdian jagiten zan ikondo bateraiño egan egiñik, adar baten kokatu nintzan. Udabarriaren begira, ikondoa billutsik egoan oraindiño, baiña kimu barriak laster urtengo litzakiozala igarten yakon. Gau otza izanik, lumadiak ondo babestua gau izar-tsupéan lo-aldi atsedengarria izan neban.

Goizaldea barik, oiko barruko deiari jarraituz, egunsenti-aurreko aldarria kukurruku sendoaren bidez lau aizeetara jaurti neban. Gero, eguna argitu zanean, bigarren aldarria zan nire irrintzia sakabanaturik, lurrera jatsi, eta bedar-artean gosariaren billa asi nintzan, eta izan be, lur azkor aretan zenbat-gura zizara jaritsi neban. Olan niarduala, eleiza-dorreko joaleak mezatarako deia barreiatu eban.

Goizeko amarretan inguru, errian zear osteratxu bat egiteko zorian nintzala, etxeko leio bat edegi zan, eta ikus-naiak eraginda, ikoti batz leio-barrenean kokatu nintzan barrurantz begiratzan nebala.

Areto andi bat ikusi neban, eta leiotik ur samar idaz-mai baten aurrean idazten ziarduan berrogei ta amar bat urteko gizona.

Alako baten, idazle arek burua jaso, eta ikusi ninduan. Idazteari bertanbera itzita, jagi ta urreratu yatan arrituta begiratzen eustala, eta orduan idazlea nire aukeran aztertu aal izan neban. Aurpegi argaletik betaurre atzetiko begi argi bik ikus-naiaz begiztatzen ninduen, ezpanetan irribarre gozoa loretzen yakola. Bekoki leunaren gaiñean, ule naro zuriek aren irudi onberatsua are agiriago jarten eben. Etxeko oskietaraiño jausten yakon txabutx baltzaz jantzita egoan. Ondoratu yatan, eta.

–Kaixo, lagun –irribarez esan eustan lepoko lumak laztantzen eustazala–, zer zabiz Goikolanda'ko abadearen etxean...? Gaur goizean mezatara joateko atontzen nintzala, zure kukurruku adoretsua entzun dot, eta benetan aldarri orrek poztu nau, zuok, oillarrok, inguruak alaitzeko doaiatz jantzita zagozelako. Oillar ederra zara, benetan, eta leio onetan kanpoko argitan islaturiko zure irudi txairoa ikusteak, bear dodan etorria yakart. Bai lagun, euskal eliztia edo gramatika bat bizkaieraz atontzen diardut, baiña sarri askotan orretarako bear dodan goi-arnasa edo ispiraziñoa ez yatordan ezker, ezin dagikiot lanari ekin. Noizean bein ona bazentorkidaz kukurruku egiteko, bene-benetan nire zeregiña arinduko zeunskit... Orren ordaiñez zeozer jateko emongo neuskizu, asko ez baiña, txiroa naz-eta. Egia esateko ez dakit txiroa ala aberatsa nazan... Begira, aberatsa dan norbaitek beti aal dauan baiño geiago irrikatzen ba'dau, orduan ezeukia da, beti zeozeren falta dagoalako, eta neu lako txiro batek iñongo gauzarik irrikatzen ez dauanean, orduan aberatsa da, eta are geiago ames kutun bat bete dagianean, eta neuk bete dagikedan ametsa badot, ara... nire euskal eliztia atontzea.

Goikolanda'ko abadea une batez isildu zan, leioan zear urrutira begiratzen ebalá amesetan bai'litzan. Gero bere zerera biurtuta,

–Bai, lagun –esan eustan–, zeregin orrek eta nire erritarren arteko bakeak eta arima-zaintzak bizitza bete egiten dauste. Etxe onen ardurea dauan bigarren lengusiña dodan Eupeme onak, badiñost sarritan, noiz batuko dodan bearrezko dirua beste sotana barri bat erosteko, baiña egitan, lagun, antxiña bateko zaarrarekin zorionsua naz. Barri ta dotore bat ba'neuko amaika buruauste jasan bear izango neukez zikindu edo zimurtu ez ekidan, eta zalan-tza barik, orrek nazan baiño txiroago biurtuko ninduke...

Edu onetan luzaro samar irauñ eban abade arek. Alako baten, norbaitek gelako atea jo eban, eta baimena emonda, irurogei bat urteko andrazkoa ateko zubipean agertu zan, auxe iñoala:

–On Markos, bazkaria gerturik dago. Berorrek nai dauanean jatokira etorri daiteke.

–Bai, Eupeme, banoatzu.

Au esanik, On Markos'ek lepoa laztandu eustan azkenengoz, eta jatokira abiatu zan. Bitartean, errian zear osteratxu bat egitea erabagi neban, eta enparantza ta onen inguruak aztertu nebazan. Izan be, erri polit eta garbia izanez gaiñera, mendietako egaletan sakabanatuak ikusten ziran basetxeak, inguruko orlegi bizian bitxi zuriak zirudien. Goikolanda erria atsegin yatan, benetan, eta saiotzat aspaldi bat errixa aretan emotea ebatzi neban. Arrats-beeran Abadenera biurtu nintzan, eta arresia igarota, lengo leioan kokatu nintzan. Une aretantxe On Markos'ek idatzi egiten eban, eta.

–Kaixo adiskide –idazteari eten egiñez esan eustan–, bedeinkatua bedi Jaungoikoa, nigana zu ekarteagaitik. Bildur nintzan betiko joan ete zeinkidazan, baiña emen zaitudan ezker, zure jokabide txalogarria saritu gura dautsut.

Au esanik, Goikolanda'ko erretoreak apal batetik latontzi bat artu, eta onetan eskua sartuta, arto-garau batzuk eskiñi eustazan, auxe iñostala:

–Gordeta egoan zorrotxutik garau batzuk latontzi onetan sartu dodaz berariz, zuri emoteko. Gaiñera, auxe jakin bear dozu: nirekin irauñ dagizun artean, goizean eta illuntzean eskukada arto-ale zuretzat gerturik egongo da.

Illunabarra gau biurtzeko zorian zala, ikondoko adar baten aurreko gabean lez lo egin neban, eta goizalde-irian nire oiko aldarriak eguratsean zear jaurti nebazan. Gosaria billatzen niarduala, goiz-erdia egin zan, eta alako baten On Markos gogoraturik, ikoti bataz leio-barrean kokatu nintzan. Abadeak ikusi ninduanean, bertanbera dana lagata, urreratu yatan eta arto-garau batzuk leioan jarrita, auxe esan eustan:

–Egunon, lagun maite ori. Ona emen ondo irabaziriko goizeko saria. Egunsentia baiño len zure lenengo aldarria aditu dodanean, jagi, otoi egin, eta jantzi naz. Gero, eleizara egunoroko mezatara niñoala, zure bigarren deia aditu dot. Izan be, zu baiño ordulari bikaiñagorik iñon ez. Aurrerantzean, ordulariari jaramon egiteke, zure aldarriak aintzakotzat artuko dodaz. Orain, lagun orrek, nire lanari ekin bitartean, errian zear egurastu egin, gure erria eta onen txokoak baita oilloak be ezagutu dagizuzan.

Olan egin neban, eta Goikolanda'ko txoko zoragarriak eta bizidun zudugarriak ezagutzen asi nintzan. Gauza batek arritu ninduan, eta auxe zan: erri aretan nire ondorengo asko ikusi zeitekean. Oillotar geienen jas, txairotasun eta adorea ikusirik, agiri zan ezpaibarik (eta barkatu au arrokeri iruditzen ba'yatzue), Aldekone'ko Plorentzi azkarrak zer-ikusia andia ebalá. Gaztedi aren edertasuna...! Erria nire ondorengoakaz beterik egoala ikusirik, erabagi sendo auxe artu neban: ango oillo ederrak bakean izteko, eta ez burrukarik egin beste oillarrekin, au egitean "drogoso"ren ospea galduko baneu be. Eta izan be



ebazpen oneri zintzo-zintzo jarraitu neutsan. Olan ba, nire askaziek edo senideek, aitalen edo arbaso nagusizat begirunez gaiñezka artu ninduen.

Bajoiazan egunak aurrera, eta egoera barriari laster artaratu nintzan. Goiz eta arratsalde guztietan ikerraldi bana egiten neutsan On Markos'eri. Leio-barrenean kokatzen nintzan, eta arto-aleak iruntsita, an bertan jarraitzen neban isillik, abade aren jardunari nerraikiola. Noizean bein begiztatzen ninduan, eta barriren bat zanean, onen gora-beerak edesten eustazan, gero lanari jarraitzeko.

Arratsalde baten oiko arto-garauak iruntsita gero, eta pikondoan kokatzeko zorian nintzala, gelako atea zabaldu, eta baimenik eskatu bage, Eupeme'ren irudia ate-zubipean arnas baten agertu zan, auxe iñoala:

–On Markos, On Markos, ez al-daki berorrek or bertan dagoan oillar ori nor dan...?

–Zelan jakingo dot ba, uste al-do zu oillo-tratulari biurtu nazala-edo...?

–Begira, Jauna, or dagoan oillarra, Plorentzi, Iñarratza'ko Aldekone etxeko oillar ospetsua da. Ara... ontxe bertan Austiñe'ren dendan nengoala, Iturralde'ko etxekoandreak esan daust ori. Sarri askotan Aldekone'n oillasko'oillandak erosten dauz, eta gurean artu dogun arrotza, Plorentzi oillar drogoso berbera dala...!

–Eta niri zer, oillar drogoso ta guzti ori...? Zoratu al-zarie Austiñe, Iturralde'ko atsoa ta zeu...?

–Entzun beit berorrek, baiña...! Dalako Plorentzi, munduko oillar onenatarikoa ei'da, eta ain zuzen be, diru-mordo bat balio dau. Erri onetan badira, oillar orren ordaiñez diruketa andia emongo leuskiguenak...

–Baiña zertarako bear dogu diruketa ori...?

–Ara ba, Jauna... eta berorrek barkatu dagistala, baiña amabost urte izango dira-edo, oraingo sotanea erosi zanetik, eta zarraren-zaarrez lengo margo baltza orlegi biurtu da, eta berori lako abade bateri ez dagokio ortik orlegiz jantzita joatea... Onezaz gaiñera, botoiek begiteetik iges egiten dabe, mauka-barrenak ainbeste birjosteaz besoaren erdia soillik estaltzen dabe, idunekoa altziz beterik, eta...

–Begira, Eupeme –barre-gurea nekez jabeturik eten egin eutsan On Markos'ek–, sotanearena niri bost ardura. Barri bat erosiko ba'neu asikerean ez nintzake aren barruan gogoz aurkituko, eta artaratu orduko, zaarra biurtuko litzakean. Onezaz gaiñera, a ez loitzeko ta zimurtzeko jasan bear izango neukezan buruaustean, niretzat larriena izango litzake. Eupeme, itzizu bakean nire sotanearen arazo ori. Egaztiak luma ederrakaz jazten, eta zabaldiko lorak margo zoragarriakaz apaintzen dauzan Zeruko Erregeak, Berak egokirik uste

izan dagianean, dalako sotana ori emongo daust. Eta orain joan zaitez eskarartzera, aparria atontzeko ordua da-ta.

–Gauza andirik ez dago ba, bear dan moduko aparria egiteko.

–Bazkariko ondakiñai –irribarrez On Markos'ek–, bota egiezu ur pixka bat eta aurrera.

Asperen bat jaurtita, Eupeme gelako aterantz joan zan. Urten-agiñean zala,

–Entzun egistazu ondo –On Markos'ek–barriro atzamarras ni erakutsirik–, oillar ori ez da salgai, ezta munduko urre guztiagaitik be, nire etorriaren edo iradokiaren iturria da-ta, entzun...?

–Bai, On Markos.

Au esanik, Eupeme abo bete agiñakaz urten egin zan.

Laster oartu nintzan aldiaren bidean, On Markos Goikolanda'ko bake-egillea zala. Bein baten oi eban lez idazteari emotsala, Manu Iturribekoa ta Bizente Arizeta'koa etxeko atadian egozala, iragarri eutsan Eupeme'k.

–Sartu-erazo egizuz. Bai, Plorentzi maite ori –esan eustan bere gauzak batzen ebazala–, mundua mundu daiten artean, auziak ez dira amaituko. Begira... Manu dalako orrek Irazabaleta'ko bideak zatituriko lur-sail bi erosi dauz, eta sail bakar ba egiteko asmotan, burdin-sare bat az esitu dauz bidea zearkatuz. Onen ondorioz, orain ezin daiteke arein arteko bidea erabilli, eta dalako Bixente'k Manu'ren aurka auzi bat jarteko asmotan dabil. Arazo orren barriak ezaguerara eldu yatazanean, ona etorteko agindu neutsen, munduko konpoketarik txarrena, auzirik onena baiño naiagoa da-ta. Auzi madarikatuok errotarren arteko bakea ta alkarrekiko oneritxia ondatu daroiez...

Orduantxe atea jo eben, eta aipaturiko baserritarak sartu, txapela kendu, eta On Markos'ek eskiñitako aulki banatan jesarri ziran.

–Eguraldi ederra, gaur, ezta...? –On Markos'ek.

–Bai, Jauna, obarik ezin –besteek.

Une batez isillik iraun eben, eta ariari ekiñez, On Markos'ek auxe esan eban:

–Aizu, Manu, azaldu egistazu, bide-itxite ori.

–Ara ba, Jauna –asi zan Manu–, bigarren semea ezkontzeko asmotan yabilt, eta berrogei gizalan inguruko bide-ondoko zati biok erosi nebazan, arentzat etxe bat egiteko. Badira urteak Irazabaleta'ko bidea ez dala erabilten. Berorrek badaki, dalako bidea len egurketarako erabilten zala, baiña orain sukalde guztietan "butano" dalakoa erabilten dan ezkerero, egurrik bear ez. Au dala-ta, bidea sasiz eta asunez bete egin da. Uste dot, beraz, bide-ixte ori, ez dala iñoren kalterako, eta nire asmotarako on andia da.

Manu isildu zanean, Goikolanda'ko abadeak Bixente'ri berba egiteko agindu eutsan, eta onek

–Bide ori –esan eban–, beti erabili izan da egurketea ta iraketea egiteko, eta augaitik erri-bidea da, eta iñork ez dau iñongo eskubiderik itxiteko. Egia da, azken urteotan ez dala erabili, orain egurraren orde, "butano" a erabilten dalako, baiña egunen baten birrerabiltearen eskubideari ez dausat uko egin gura. Onezaz gaiñera, aspaldi onetan egurra barrero erabiltearen aldekoa da gure etxeoandrea, eta bide ori laster biurtuko da bearrezkoa, urrean.

Berba oneikaz bere errazoa azaldu eban Arizeta'ko Bixente'k. Adi-adi baserriar bion argibideak entzun izan ebazan On Markos'ek, gogoeta labur baten ostean,

–Argi dago –asi zan–, iñork ez dauala eskubiderik iñongo erribidea itxiteko, eta orain erabilten ez dalaren errazoa norberaren onerako danean, ez da benetakoa edo legezkoa. Erriari dagokiona, erriarentzat beti. Baiña norberaren eskubideari uko egin barik, lagun-urkoari mezedo bat egin daitekionean, olan egitea giristiñoen arteko benetako jokabidea da. Auxe da, beraz, esondatzen edo proposatzen dautsuedana: Manu'k jarritako arantzadun esia, iru metroz atzeratuko dau, ertz onetatik bidea joan daiten. Izan be, Manu'k gizalan erdi bat galduko dau gitxi gorabera, baiña bestetik bide zaarreko zatiaz jabetuko da, eta bataz-beste ez dau gauza andirik galduko, eta beiñena dana, zuen bion arteko auzirik ez da sortuko, eta alkar ikusi dagizuenean, zuen aurpegiotan adiskidetasunaren irribarre zabala agertuko da. Orduan, nire esondapena edo proposiziñoa, ontzat artzen dozue...?

–Bai, Jauna –biok batera erantzun eutsoen.

Jagi zan On Markos, eta eleiztar biai ateraiño lagunduta, agurtzean auxe esan eutsen:

–Borondate onaren ezaugarritzat, orain Erriko Taberna'n zuen adiskidetasunerako edontzi ardo bana edan egizue.

–Bai, On Markos –Manu'k esan eutsan–, eta beste bat berorren osasunerako.

–Baita urte askotan be –eratsi eban Bixente'k.

Baserriar biok urten ziranean, nire egurastu-ordua zala oarturik, kaleratu nintzan, eta inguruetatik oiko osteratxua eginda Abadenera biurtzen nintzala, zorro bete bi ikusi nebazan ate-ondoan.

Arratsalde aretan illunabar-aurretik oi neban lez, leio-barrenean kokatu nintzanean, On Markos urreratu yatan, eta eskubete arto eskintzen eustala,

–Plorentzi maite ori –irribarrez esan eustan–, gaur pozik nago benetan. Erritarrak baketzen dagikedazanean, arimea zorionez beteten yat, eta orduan, Jaunaren deiari jarritu neutsan eguna bedeinkatzen dot. Gaur bazkalostean,

Manu'k eta Bixente'k indiaba ta artotan, lakari bana laga dauste etxeo atadian. On-onak dira nire eleiztarrak, eta euren emokariak diruz izan ez arren, lurrari ataratako gaiakaz ordaintzen dauste geienetan, eta ori biotzez eskertzen dauset. Dirua, gauza otza, biotzbakoa da, baiña egunoroko izerdiaz irabaziriko gaiok badabe beste zentzun bat. Alan eta guzti be, noizean bein dirua be emoten dauste, eta au dana gotzaindegira igorri ondoren, andik biurtzen daustenaz, badaukat eleizaren eralguntzai edo gastuai aurre egiteko beste, eta enparaua nire bearrianak beteteko... sotana barri bat erosteko lain ez bada be.

Illunabarra zan orduko, eta begiak urrutira zuzenduta, irribarrez,

–Begira, Plorentzi –jarritu eban–, ni sotana zaarraz jantzita ikusteak, Eupeme gaixoari buruaste itzela dakartso, eta izan be ori ez da arritzekoa, abadeen zerbitzari guztiek, euren nagusia dotore ta apain agertu daitela gura dabelako, eta onetan gure Eupeme zintzoa zuzen dago. Niri, baiña, bost ardura emoten daust orrek, eta nire eleiztarren arteko bakea, Jaungoikoaganako ta alkarreganako maitasuna dirauan artean, ez dot besterik bear... Baiña, bai, bada beste gauza bat bizi-bizi nai dodana, eta auxe alegia: egunen baten eskuen artean darabildan euskal eliztia, argitaratuta ikustea. Nondik, ordea, orretarako bearrezkoa dan diruketea jaritsi...? Ames zoroa da, Plorentzi maitia, ezkurrik bage nozu-ta... Baiña laga dagigun arazo ori Jaungoikoaren eskuetan, eta donetsi bedi Aren guraria.

On Markos ezagutzen neban giñoan, aren maitasunak gero ta geiago erakarten ninduan, eta luzaro barik maite nebala oartu nintzan. Nire ustez, Goikolanda guztian, ez egoan On Markos maite izango ez leuken iñor, eta neuk be, oillotarren era bereiziaz biotzaren barruraino sartzen yatala oartzen neban. Izan be, gero ta pozago sentitzen nintzan, a lako abade zintzo ta tolesbakoa ezagutu izateagaitik.

Arratsalde baten On Markos lanari lotuta egoala, atea jo eben, eta Eupeme sartu zan auxe iñotsala:

–On Markos, Bidegain'go Patirke, berorrekin berba egin gura dau, eta ia berorreri noz yatorikon ondoen.

–Etorri bedi biar illuntzean.

Urten egin zan Eupeme, eta andik laster atsedan-alditxu bat artzeko asmoz, On Markos leiora ondoratu yatan, auxe ziraustala:

–Patirke dan zoribakoa, Plorentzi...! Bidegain etxe aberatseko alaba bakarra izanik, oiñordea da. Ogei ta amar bat urteko izango da, eta oraindiño ez yako iñongo ezkongairik urreratu, eta ez aberatsa ez dalako, baiña... Ez da neska polita, ezta orreitariko barritsu ta begikoa be, badakizu, mutillak erakarten dakienetarikoa. Neska apala, zintzoa ta burutsua da, eta ezin dagiket

ulertu, doai orreikaz jantzita izanik, eta egunen baten etxaguntza ederraren jabe billakatuko dana, zelan demoniño ondiñokarren ez dan ezkondu. Patirke gogo-biotzez eder-ederra da, eta edozein gizon zoriotsu egingo leuke, baiña gaur, gazte askok kanpoko itxurakeriari begiratzen dautsoe soillik, eta kanpo-eder ez dan urrea lagata, sasi-urreen atzetik lilluraturik doaz. Ergelak, besteren ergelak...!

Unetxu batez isildu zan On Markos, eta,

–Tamal andia da, Plorentzi –esan eustan-; Patirke'ren gurasoak irrikan bizi dira, alaba bakarra noiz ezkonduko dan begira, bestelan, kimu barriak sortzen ez ba'dira, urte batzuen buruan, etxeko ta Bidegainarren azkena izango da. Bai, etorkiaren itzalak neska on orren bizitzea naigabetzen dau.

Onaiño ezkeru, On Markos isildu zan, eta illunabarko egoak danaz jabetzen zirala, pikondoko nire lo-adarrean ikoti batz kokatu nintzan eta urrengo egunean jazoko litzakenaren begira gaba igaro neban.

Biaramonean, itunduriko orduan, eta oi lez On Markos'ek lanean ziarduala, atean kox-kox erabetia aditu zan, eta sartzeko baietza emonda, Patirke idaz-gelara sartu, eta gure abadeak aginduriko aulkian jesarri zan, onetaraxe agurtuz:

–Arrastion, On Markos.

–Baita zeuri be, Patirke.

Ogei ta amar urte inguruko neska zan sartu barria. Ganora gitxiz orrazturiko adats naro, ederpean, begi arruntz gaztainkarak suur luzanga baten gaiñean ikusten ziran. Oi baiño andiago aboa atsegiña zan, eta aurpegia okotz mee zorrotzaz amaituta. Patirke'ren begi ameskorak kadenezko itxura erakusten eben, izate barrukoi ta erabetia adierazoz. Egituraz oso egokia, aren soin txairo ta ariñak malgutasuna iragarten eban. Ain zuzen be, Patirke ez zan edertasunaren eredia aurpegiari ba'gagozkio, baiña soiñaren egokitasuna kontuan artuta, batz beste ez zan baztertzekoa. Bere itxura aztertzen niarduala, On Markos'ek.

–Aizu, Patirke –esan eutsan–, zertarako eskatu daustazu ikerraldi au...?

Agiri zan neskea ez zala sentitzen bere aukeran, eta begiak soruan josita, eskuak altzoan alkartuta, mintzo lotsatiz, auxe esaten azartu zan:

–Ba... berorrek jakingo dau, etxean gurasoekin bakarrik bizi izaten nazala... eta ogei ta amar urteko nazala... eta olan jarraitzekotan ba... neskazarra biurtu. Aita-amak irrikan dagoz noz ezkonduko nazan begira, baiña iñor ez yat urreratzen. Badakit neska polita ez nazala, baiña, eta aitarantzat batez be, jasan-eziña da... Ai ene bada...!

Patirke gaixoak ezin egikean aurrera jarraitu, eta negar baten eskuakaz

aurpegia estaldu eban. Olan ikustean, On Markos urreratu yakon, eta esku bat aren buru txanbeliñean jarrita, auxe esan eutsan:

–Ez negarrik egin Patirke. Txukatu egizuz malkook. Erri onetan iñork senar on bat merezi ba'dau, nork zuk baiño...? Esaidazu, bai al-da erri onetan begiko izan dakizun mutillen bat...?

Neskeari negar-zotiñak noizbait baretu yakozan, eta,

–Bai, On Markos, beti-beti nire gogoan bat izan dot.

–Nor da bera...?

–Alexander kamiñerua.

Izen au entzutean, On Markos'ek une batez isillik iraun eban, eta gero.

–Ez da mutil txarra erriko bidezaiña edo kamiñerua, eta izan be, zeu lako neska batek maite izan dagiala, berarentzat dedu andia da. Zure gurasoek onartuko leukie...?

–Bai, Jauna.

–Orduan lagaizu ori nire eskuetan. Berarekin autu bat izango dot, eta aaleginduko naz gauzak zure naiaren erara urten daitez.

Au entzutean, Patirke'ren aurpegia irribarre zoragarriaz edertu zan. Bazirudian, ekaitzaren ostean bitargi baten zear agertzen dan eguzki pizgarria. Izan be, irribarre arek neskearen aurpegia lilluragarria biurtzen eban.

On Markos'ek ateraiño lagundu eutsan, eta agurtzean, onetaraxe esan eutsan:

–Aizu, Patirke, Alexander ikusi dagizunean, agertu egiozu zure irribarre ori, eta luzaro barik lapikora sartuko dozu. Agur, laztana.

Illunabarra zan orduko, eta On Markos leioraiño urreratuta, oi eban lez nire lepoko lumak laztanduz, auxe esan eustan:

–Aalegindu gaitez, Plorentzi, arazo au erarik egokienean erabilten. Dalako Alexander ori berrogei bat urteko mutilzarra da, eta adin orretara ezkeru, gizonak eskontza-sarean arrapatzeko oso igeskorak dira. Biarko mezatan gai au ondo urten daiten Jaunari eskatuko dautsat. Izan be, Patirke lako neska on eta eredugarriak guztion aalegiñak merezi dauz.

Andik egun batzutara, apalordua baiño len, Eupeme'k oi eban lez atea jota gero, idazgelara sartu, eta On Markos'eri auxe iragarri eutsan:

–Alexander kamiñerua atadian dago.

–Esaiozu sartzeko.

Andik laster, ate-zubipean berrogei bat urteko gizon indartsu baten irudia agertu zan, eta,

–Sartu, Alexander –esan eutsan On Markos'ek–, eta jesarri zaitez orko aulkian.

Jesarri zan gure gizona, eta orduan nire aukeran aztertu aal izan neban. Mutil edo obeto esateko mutilzar garaia zan. Billo baltzak arre biurtzen asten yakozan, eta aurpegi atsegiñean begien itxura artezak eta ezpanen irribarre atsegiñak, erakarpen andia emotsoen aren irudiari. Isillune laburraren ostean, auxe esaten azartu zan:

–Berorren agindupean nago.

Maiko gauzak batu ta atondu ondoren, On Markos'ek,

–Zurekin autu bat izatea –esan eutsan–, gogoan dot aspaldiz, Alexander, eta ain zuzen be, nire eginbearra eleiztarrak bide zuzenetik eroaten dan ezker, dei egin dautsut. Onak ez dau esan gura bide txarretik zabiltzanik, ez orixe...! Ordua da, baiña, gauzak diran lez ikusi dagizuzan.

On Markos'ek itzaldia eten egin eban, zapiñoaz betaurreak garbitzeko, eta urruma egin ostean,

–Badira gure erri onetan mutilzarren bidetik doazan gazte batzuk, eta galtzori orretatik zure burua jareiz ikusi dagizun, gauzak garaiz azaltzea nire betekizuna da. Begira, Alexander, eta au ez txartzat artu, gizonak Jaunaren legeari jarraituz ezkondu bear dira sendi bat sortzeko, edo-ta neu lez Aren goideia artu, Eleizearen onerako ezkongea izateko...

On Markos'ek itz egin bitartean, Alexander'ek adi-adi begiratzen eutsan, ulertu eziñik nora joan nai eban Goikolanda'ko erretoreak.

–Baiña –jarraitu eban On Markos'ek– badira zeu lakoak benetakoa ez dan irugarren bide bat artu dozuenak. Ez uste orraitio, mutilzarrok artu dozuen aukerea goiburu goraiagarria jaristeko danik. Bai zera...! Zuk artu dozun biziera ori, norberekeri utsaz izan da aalik ondoen bizi izateko, izadiaren legeak eten egiñez, ezta Alexander...?

Ezustean artutako gure bidezaiñak ez ekian zer erantzun, eta orduan tartailloka,

–Ez dakit ba, Jauna –esan eutsan–, nik e... ez dakit...

–Zure barrukoari bene-benetan itauntzen ba'dautsazu, argi-argi esango dautsu bide ori norberekeri utsaz artu dozula, Alexander, eta izan be, sendi edo familiak dakazkian buruauste, lan, eta ardurak ez izatearren. Ez, ori ez da benetako giristiño baten jokabidea... Esaidazu, Alexander, zein adiñekoa zara...?

–Laster berrogei urteko izango naz, Jauna.

–Sendi bat egiña bear zenduan garaian, or zakust bizitzan zear norabarik, zure on-izatea bakarrik gogoan dozula. Ez uste, baiña, gauzak orain lez betirako izango diranik, ez...

Isildu zan une batez, eta gero

–Begira, mutil, oraingo bakartasuna gero ta aspergarriago billakatuko yatzu, eta urteen bidean zartzaroan ikusiko dozu zure burua, bakar eta sendi barik; orduan zure bizitzaren ezereztasuna gordintasun betean agertuko yatzu. Noizbait, zaar eta geisorik agure-etxe baten artuko zaitue, sendi baten maitasun eta berotasuna irrikatzen dan garaian... Esan, Alexander, ez ete da negargarria...?

–Bai, Jauna, baiña egia esateko, mutilzarra ba'naz, erru guztia ez da nirea. Begira, On Markos, emakumeakanako lotsati izan naz beti, eta onezaz gaiñera, neska txatxala, ganorabako batekin ezkondu izateari bildur itzela dautsat.

–Baiña Alexander, iñuzente orrek, uste al-dozu emakume baten bat olakoa izateagaitik, enparauak be bardin izan bear dirala...?

–Ez dakit, Jauna, baiña neska on bat ezagutuko ba'neu...

–Zelan ezagutuko ba, emakumeekin artu-emonik izaten ez ba'dozuz...? Or dozu, esate baterako, Bidegain'go Patirke eta beste batzuk, edozein mutilla zoriontsu biurtuko leukienak. Ez ete da oba, erriko bideak atondu bearrean, zeurea izango litzaken etxe on baten abelgorria ta lurak zaintzea, eta sendi baten maitasunak inguraturik bizi izatea...?

–Olako aukera izan ba'neu...! Begira, On Markos, etxean anai-arreba asko izan gintzazan, eta gazterik nintzala, etxea itxi eta eskiñi eusten lanari, bidezaintzari, alegia, eutsi bear izan neutsan; noren abelgorri ta lurak zainduko neukezan, beraz...? Orain emoten dausten alogeraz ezin iñongo sendirik sortu.

–Zergaitik ez, alaba bakar baten etxera ezkondu...?

–Uste al-dozu, olako etxe baten, erriko kamiñerua etxejoauntzat onartuko leukienik...?

–Ba'leiteke, Alexander, eta gaiñera gogo-doaiaz beteriko neska on batekin ezkondu.

–Nor da bera...?

–Bidegain'go Patirke.

–Ez da itsusia ezta polita be. Ez dakit baiña, berarentzat egokia izango ete nazan.

–Zuzentzat zaitut, Alexander, eta gaiñera baserriko lanak betetera oituta. Esan, Alexander, Bidegaiñ'era ezkonduko ba'zintzaz, bene-benetan eta adore guztiaz lan egingo zenduke, baita duintasun eta begirunerik andienaz zure emaztea erabilliko be...?

Une batez isillik iraun eban Alexander'ek, eta gero

–Bai, Jauna, zin dagitsut. Uste dozu, baiña, etxe aberats orretan onartuko nindukienik...?

–Arazo ori nire eskuetan izten ba'dozu, ikusi geinke.

–On Markos, berorrek egin bei ondoen deritxana, baiña arren, arazoak pot egiten ba'dau, ez iñori esan, barregarritzat ez dot geratu gura-ta.

–Nasaitu zaitetz. Orreri buruz ez dau iñork ezertxu be jakingo.

Alkarriketea amaituta, aterantz abiatu ziran biok, eta alkarri agur egiñez, On Markos leiora urreratu yatan, eta oi eban lez, nire lepoko lumak laztanduz,

–Badirudi, Plorentzi –esan eustan–, gaurko mezatan Gure Jaunari egin dautsadazan erreguak entzun izan dirala. Biar bertan, Bidegaiñ'era joango naz ia arazoa onik ataraten dogun.

On Markos'en gurariak, eta Patirke'renak batez be, bete egin ziran, eta luzaro barik etxeko alaba ona ta maratza, Alexander'ekin ezkondu zan, itxaropen barria Bidegain etxeari ekarkiola. Etxekojaun langille ta arteza azaldu zan, emaztea ta etorri ziran seme-alabak maite-maite izanik.

Goikolanda'ko abadearentzat, alkarren arteko maitasuna lenengo betekizuna zan, eta erritarrak maite izaten ebazalako, oneik baekien edozein estualditan nora jo. On Markos'en beste bereiztasun bat, aldiaren bidean ezagutu neban, eta auxe alegia: umorearena.

Bein baten, Larrabe etxeko Emeteri zaarra On Markos'egana burubidearen eske etorri zan. Irurogetak urte izango ziran Klemen baserritar zintzo ta langillearekin ezkondua zala, eta orain etxeko buruauste ta lanak, seme nagusiarentzat ziran, larogei urte laster beteko leukezan bikote zaarra bere aukeran bizi izaten zala. Aldiaren bidean, baiña, Emeteri gaixoa kokolotua zan, eta gauzarik txikiak berarentzat benetako buruauste andiak ziran.

Eupeme'k iragarri eutsanean Emeteri'k ikusi gura ebala, begiak sabairantz jatorik eta asperen bat jaurtirik, On Markos'ek auxen esan eban:

–Ai, ni gaixoa...! Zelako lelokeriaz etorriko yat orain Larrabe'ko atsoa...?

Eta gero, Eupeme'ri.

–Sartu daitela.

Andik laster, makilla baten laguntzaz Emeteri zaarra idaz-gelara sartu zan. Bere urte askokaitik, zeozer lepotxa zan, eta oin-tatarrez ebillen.

–Arrastion, On Markos –esan eutsan.

–Baita zeuri be, Emeteri. Jesarri zaitetz aulki onetan. Etxean danak ondo...?

–Ondo esan bearko dogu-edo...

–Zer ba, etxeko baten bat geisorik al-da...?

–Ez, Jaungoikoari esker, baiña... nire Klemen gaixoa...!

–Zer jazo yako zure senarrari, jausi ete da teillatutik-edo...?

–Ez, Jauna, baiña are txarrago pasatzen yako nire gizonari. Begira, On Markos, berorrek ez daki, baiña aspaldi onetan kalamidade itzela etorri yaku.

–Zelan jakingo dot ba, zeuk esaten ez ba'daustazu, Emeteri...? Igarle izatera ez naz eldu oindiño, baiña zure gizonaren gatxa azaltzen ba'daustazu orduan zeozer ulertuko dot.

–Ara ba, On Markos, aspaldi onetan nire Klemen gaixoak zurrunga egiten dau...!

–Baiña Emeteri laztan ori, diñostazuna ez da abade baten arazoa, osagillearena baiño...

–Olan izango da, berorrek diñoan ezkerro, baiña Klemen'ek berorreri begirune andia dautso, eta au dala-ta, ba... Berorrek aginduko ba'leutso zurrungarik ez egitea... ba... orduan...

On Markos'ek nekez menperatzen aal izaten eban barre-gurea, baiña Emeteri'k noraiño joan nai eban jakitearren,

–Baiña Emeteri –itaundu eutsan–, uste al-do zu ori abade baten arazoa danik...?

–Zurrungarik ez egiteko Berorrek Klemen'eri aginduko ba'leutso...

–Baiña Emeteri maitia, ori ez da apropos egiten dan gauza. Ori berez dator, eta Klemen'eri esan ala ez, dana bardin, lo-aldian egiten daualako, eta norberaren borondateaz kanpo, beraz.

–Ai, Berorrek ba'leki zelako zurrunga zaratatsuak botaten dauzan...! Sarri askotan lo egin eziñik, baderitxat sabaia gaiñean jausiko yatala.

–Orren trumoitsuak ete dira...?

–Gero ta jasan-eziñagoak, On Markos. Asikerean tira...! Baiña orain... Batzutan ikara bizi az itxartuten naz, nire ondoan leoi bat orruka yabildalakoan, eta nekearen-nekez loak artzen nauanean, barriro be itxartu, trumoi itzelak gure etxea astintzen daualakoan.

–Arazo larri-larria benetan, Emeteri. Zergaitik ez dozuz ipinten zipotzak edo estalkiak belarrietan...?

–Pentsa dot ori, baiña zelan entzun gero, goizaldeko kanpaien deia mezatarako...?

–Begira, Emeteri, irurogetak urte dira ezkondu zariela, eta ordua da alkarrekiko eroapena lortu dagizuen. Zuk senarraren gauzak jasan bear dozuz, eta areago ezinbestekoak diranean, Klemen'ek zure gauzatxuak jasaten ikasi bear dauan lez...

–Klemen neurriak –eten egin eutsan Emeteri'k– ez dau nigandik ezer jasan bear, berari begirune andi-adia dautsat-eta. Errian iñor ez nik beste ondo bere gizona gobernau ta zaindu dagianik.

–Baiña bein edo bein gogait-eragin dagion pekatutxuren bat egingo dozu, Emeteri.

Ezkutuzko itxuraz, makurtu zan Larrabe'ko atsoa On Markos'eganantz, eta belarri-ondoan abopeka

–Bai, Jauna –esan eutsan–, noizean bein, indiaba ta gaztaiñen aroan batez be, uzkerren bat bota egiten dot.

–Ez olakorik esan, gero...!

–Bai, On Markos, baiña isillean botaten dodaz.

–Ori bai begirune itzela...! Eta usaiña be isillean, suurreraiño joan ez dakion, ezta...?

–Ez dakit ba...

On Markos'ek barre egin eban, eta gero Larrabe'ko atsoari tinko begiratuz,

–Begira, Emeteri –esan eutsan irribarre maitetsuz–, zure senarra gero ta maiteago izan bear dozu, alkarrekin bizi izateko urte asko ez dozue-ta. Eta orain ekiogun Klemen'en zurrunga egiteari. Gomutaten ete zara, ume zintzazanean eta trumoi zakarrek durunda egiten ebenean, zure amatxuk zelán esaten eutsun aingerutxuek zeruan bolaka jolasten ziarduela...? Orain bardin Emeteri; zure senarrak trumoiaren antzeko zurrungak jaurti dagiazanean, zeruko aingerutxuek bolaka diarduela burura ekarri, eta orduan lo gozo batek artuko zaitu.

–Bai, On Markos, berorrek diñoan lez, orixe bera gomutara ekarriko dot. Nire Klemen dan ona...! Berorrek ez daki zein pozik eta nasai noan etxera. Bai, gaur bertan aingerutxuekin ames egingo dot... Agur On Markos.

Abadea jagi zan, eta ateraiño lagundu eutsan. Urten baiño len, Emeteri'k,

–Atadian –esan eutsan– zorrotxu bete intxaur eta amabiko bi arrautz Berorrentzat itzi dodaz.

–Agur, Emeteri, ez zenduan gauza orreik ekarteko bearrik. Klemen'eri nire goraintziak.

–Bai, Jauna, agur.

Illuntze guztietan oi eban lez, On Markos urreratu yatan egunoroko eskubete arto-garauak eskintzeko, eta leio-barrean irusten nebazala,

–Plorentzi –esan eustan–, gizakiak zaar biurtzen diranean, adimena moteltzen yake, eta orduan gauza txiki, ezaiñak, arazo larriztat artzen dabez, eta ostera, korapillo larriak ezgauzatzat. Bigarren umetaroa ei'da, eta adimen-laiñotze orretan beste mundu baten murgilduta bizi dira. Niri be, orixe bera jazoko yat egunen baten, baiña, orduko nire euskal eliztia argitaratua ba'litz, poz-pozik sartuko nintzake eriotz-atadia dan bigarren umetaro orretan.

Eta gero asperen bat urten yakon, auxe iñoala:

–Ez dakit, baiña, egunen baten zorion'ori ezagutuko ete dodan...

Gau aretan, izarren dizdirpean ikondoko adarrean kokatuta nengoala, auxe etorri yatan gogora: aberatsa izango ba'nintz, bai pozik lagunduko neuskiola Goikolanda'ko abadeari euskal eliztia argitaratzeko.

Euskal eliztia atonduz gaiñera, Goikolanda'ko erretoreak amaika irarki euskeraz jarten ebazan gotzaindegirako, onek parroketara banandu egiazan, eleizearen abotsa euskaldunakana eldu zeiten. Iñor ez bera aiña egokia euskera-arazoetan. Baserriko semea izanik, euskera gozo, errikoi, aberatsaren jabe zalako, eta gaiñera, abadetzak emoten eutsan ezagueraz, ondo bai ondo idazten ekian.

On Markos'ek, beraz, eleiza ta eleiztarren alde erabilen aldiaz gaiñera, asti-unetan euskereari emotsan buru-belarri, eta apurka-apurka baiña etenbarik, euskal eliztia bajoian aurrera. Olako liburu bat idaztean, baiña, gaiak astiro ta zeatz ausnartu bear dira, ikasi nai dabenentzat argigarri izan dakien, eta onek ezaguera ta ardura andia eskatzen dauz.

Arratsalde baten, euskeraz noiz "edo" ta noiz "ala" erabili, jarduten eban Goikolanda'ko erretoreak. Euskaldun jatorra zan aldetik, baekian berez, noiz bata noiz bestea erabili, baiña berak lege edo arau erraz eta labur baten bidez euskal-ikasleai adierazo gura eutsen. Egun aretan eguraldi berotsua izanik, mai-aurrean makutsik egoan, eta bekokia izerdiz bustita eban. Alako baten, atea jo eben, eta baietza emonda, Eupeme sartu zan auxe iñotsala:

–Errotape'ko sein jaio barria eleizara ekarri dabe, Berorrek bataiatu dagian.

–Bai, Eupeme, banoakie arin baten. Ekarstazu sotanea.

Aginduta lez, Eupeme'k dizdira orlegitako sotanea ekarri eutsan, eta autsa kendu barik sartuta (au aspaldiko Eupeme'ren agindu zorrotza zan, altzitu ez zeiten), ibillera ariñez eleizara joan zan. Bitartean, eta astia emoteko, ortuan aztarrikari emon neutsan, Abadeneko zizariak bardinbakoak ziran-eta. Jarraian, enparantzatik nire oiko osteratxua egiñik, Abadeneko leiora biurtu nintzan On Markos'en begira. Olan nengoala, gure parrokoa tximista lakoa idazgelara sartu zan. Izerdi anditan etorren, eta aren aurpegi gorriak ezbear baten aztarnak agiri ebazan. Sotanea kenduta, idaz-maiaren aurrean jesarri zan, eta begitarte illunaz une luze samar gogoetan egonda gero, niri begiratu, mintzo itoaz auxe esan eustan:

–Ederra egin dogu, Florentzi...! Errotape'ko gurasoek seiñarentzat izen bat nai eben, eta nire erruz beste izen bat az etxera biurtu da...

Une batez isildu zan aulkian igitzen zala artega, eta gero

–Abade baten benetako jokaerari uts egin dautsat, eta ezin dot utsegite ori beste iñori egotzi, neure buruari baiño. Ekin dagiogan, baiña, jazotakoari...

Isillune bat bere oldozkunak taiutu bitartean, eta,

–Begira, Florentzi maite ori –esan eustan–, aspaldi onetan amaika buruauste jasan dodaz "edo" ta "ala" ondo erabilteko arau baten bailla, askotan biok era ezegokian esaten dira-ta. Orretarako, arau erraza ta laburraren atzetik jarduna nozu aspaldi onetan, baiña ezin izan dot idoro aal. Augaitik, nire burutik ezin kenduz arazo orrek jazartu nau etenbarik, eta eleizan nire begira

egozala umetxua bataiatzeko, Eupeme onak iragarri daustanean, eginkizun santu orreri benetasunik andienaz emoteko saiatu naz. Deabrua beti deabru, baiña, eta sakristegian Errotape'koak agurtu baiño ez, barriro be zirikada den-ganiñoa burura etorri yat...

Ona elduta, On Markos aulkitik jagi, eta leiora urreratu yatan, ortuko ozkirria ustiatzeko, antza, eta gero onetaraxe jarraitu eban:

–Amabitxi, Eukene, seiñaren lengusiñe bat zan, eta aitabitxi, ostera, Artatxori esaten yakona. Dalako Artatxori bost urte mintegian edo seminario-an emonda gero, urten egin zan, eta orain udaletxean idazkaritzat diardu. Gure Artatxori'k mintegian iraundako bost urteotan, ango lapikoko gozoakaz eta fubolari edo ostikolaritzari jo ta ke jardenez gaiñera, badirudi zeozer geratu yakola buruan. Erriko batzuk badiño gure Artatxori "Asto joan eta mando etorri" dala, baiña guzti ori esamesak dira, zeozer ikasi ebal ezin dagikegu zalantzan ipiñi-ta. Etxera biurtu zanean, erriko udalak idazkariaren jarduna eskiñi eutsan, baita Artatxori'k pozik onartu be, mintegian ikasirikoa agirian jarteko alagala etorkion-eta.

Amabitxi ta aitabitxiz gaiñera, baegozan etxeko ta auzoko neskamutiko batzuk, gure errian oi dan lez bataioa amaituta gero, eleizpean botaten diran konfiteak arrapatzeko. Sakristegitik bataio-konketara giñoazala, seiña itxartu, eta orruka negar baten asi da. Izan be, seiñak, txistulari izandako aitita Braulio'ren auspoa dakar, antza, eta Eukene'k amabitxi gaixoak, ez ekian zer egin aurra baretzeko, eta besoetan seaskatzen eban, berba gozo, polit, samur-rak zirautsazala.

Aurra isildu ez arren, bataioa asi neban, oiko eleiza-arauai jarraituz. Olan niarduala, "edo" ta "ala"ren arazoak jazarten ninduan, burutik kentzeko saiatzen banintzan be. Bitartean, Eukenek seiña onetaraxe urrumatzen eban:

–Isildu zaitez, nire aingerutxu polita, etxeko moñoño, gure iñuzente ori...!

Errotape'ko seiñaren orruak, baiña, baretzen ez ziran ezkerero, Eukene gai-xoak "moñoño" ta "iñuzente" gero ta sendoago iñotsan, eta olan ziarduala, izena emoteko unea etorri zan. Orduan, nik buruan beera ura isurtzen neutsala,

–Eta nik, Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean, Iñuzente izenaz bataiatzen zaitut... –esan neutsan–.

Orduantxe, Eukene amabitxiak, arrituta auxe esan eustan:

–Baiña, On Markos, ori ez da seiñarentzat erabagitako izena. Benetakoa, aititaren begirunez Braulio zan, neuk Berorreri emoniko txataltxuan idatzia etorrenez.

Izugarría izan da, Plorentzi maite ori. Nik ez nekian zer egin, ezta zer esan be. Olako eretieratarako urtenbideak izango dira, baiña ez yatan bat bera be burura etorri. Egiña egiña zan, eta atzera egiterik ez. Larriena, baiña, auxe

zan: Nik Iñuzente izenaz bataiatu izan neban, eta ori ez zan iñongo izenik. Orduan zer...? Aitita Braulio'ren izenaz barriro bataiatu...? Ala jazotakoari jaramonik ez, eta agiri-liburuan Braulio ipiñi ta kitto...?

Orduko, Errotape'ko seiña isillik egoan, ipiñiriko izenak poztasunez bete izanik-edo. Uguztarri-ondoan gengoazan isillik alkarrí begiratzen geutsan, eta nik "edo" ta "ala"ren korapilloa aztu egiñik, mirari baten begira ez nekian zer egin. Alako baten, Artatxori'ren abots errime ta jakintsua aditu zan auxe iñoala:

–Ez zaitez larrí ta begiratu daiogun arazoaren mamiñari. Izan be, jazotakoaren ostan, Braulio, seintxuaren aitita ospetsuaren izena aztu egin bear dogu, beste bataz bataiatu izan dalako, eta Jaungoikoaren gauzakaz ez dago jokatzerik. Badirudi, orraitíño, Jaungoikoaren ederra irabazi daula. Gogoratu baiño ez dozue besterik bear, bataio santuaren ur bedeinkatuak artu baiño ez, seiñaren oiuk baretu, eta aurpegia irribarre gozoaz argitu yakola, eta ain zuzen be, orrek zeozer esan gura dau. Itzi nagizue, arazoak merezi dauan ardurari emon dagiodala.

Au esanik, besoak atzekaldean jarrita, sakristegiko alde batetik bestera, oldozkun sakonetan murgilduta ibiltzen asi zan. Eukene gaixoak gure erriko jakintza-oxin areri ederrespenez begiratzen eutsan, eta ni neu pentsaten asi nintzan, Artatxori'ren mintegiko urteera Eleizarentzat galtze negargarria izango ez ete zan... Alako baten gure gazteak joan-etorriak eten egiñik, auxe esan euskun:

–Badaukat, badaukat...! Iñuzente, Iñuzentzi, Iñuzentzio, enbor bereko adarrak dira, eta nork ziurtatu dagike On Markos'ek seiña bataiatzean, Iñuzente ala Iñuzentzio esan ete dauan...? Onartu dagiguzan gauzak, beraz, baikor eta zentzunez. Seiñaren izena, Aitita Braulio ospetsuarenaz sartu ez dagikegun ezkerero (ori iruzurra izango litzake-ta), jarri dagigun, beraz, seiñaren izentzat, Iñuzentzio, eta olan, zeruetako asarre andi barik arazoa bein betiko atonduko da.

Artatxori'ren burutapen bakain-bikaiñari, abo batez danok baietza emon, eta Errotape'ko umeari Iñuzentzio deitura jarri dautsagu, eta izan be, entzunago ta ederrago deritxat izenari. Sakristegitik urtenda gero, enparantzan zear alkarrekin gentozala, Artatxori gelditu da, eta auxe esan dausku udaletxean erabilli oi dauzan berba arranditsuakaz:

–Seiñari jarri dautsagun izenaz, poztu daitezala Errotape'koai esango dautset. Izan be, eleiza-arazoetan zeozer dakigunok esan dagikegu Iñuzentzio izenaz amazapí Aita Santu izan dirala... eta nork esan egunen baten ume au amazortzigarrena billakatuko ez danik...?



Ona elduta, On Markos'ek barre egin eban, eta lepoko lumak laztantzen eustazala, onetaraxe jarraitu eban:

–Ain zuzen be, Plorentzi maitia, Iñuzentzio izenaz amairu Aita Santu eza-gutu dira, eta ez, Artaxori'k esan dauskunez, amazapi. Baiña lau gitxi-gora-beera zer...?

Ezpanetan, sarri erabilten eban irribarre gozo ta umoretsua agertu yakon, eta,

–Dana-dala –jarraitu eban–, mintegian bost urtez ostikolaritzari buru-belarri, eta lapikoko gozo-gozoai adore bardinbakoaz emonda gero, gure Artaxori'ri buruan zeozer kokatu yakola esan bearrean nozu, Plorentzi; izen orretako Aita Santuak amairutik amazapira kontua igotea, Eleizaren nagusie-kiko begirune andiari egotzi bear yako. Izan be, nengoan egoera larritik, bere asmamenak atara egin nau, eta doai ori daukana mundu onetan zeozer izatera eldu daiteke.

Illuntzea zan orduko, eta zero aratzean gauleneko izarrak agertzen asten ziran ozkarbiko gau ederra iragarritz. Garaia zan, nire oiko adarrean kokatze-ko, eta leioa lagateko zorian nintzala, begiak urrutira zuzenduz, On Markos'ek auxe esan eustan.

–Egun gogoangarria izan da niretzat, Plorentzi, eta ona emen zergaitik: Iñuzentzio izena jaiotze-liburuan sartu baiño ez, goi-arnasa jota bai'litzan nire adimena argitu da, eta alperrik billaturiko "edo" ta "ala" erabilteko arau erraz eta zeatza, bapatean burura etorri yat. Au nire poza...! Egiñiko oben edo peka-tuaren ordaintzat artu bear izango neukean zigorraren orde, sari bat artu dot. Jaungoikoa dan ona...!

Egunak gora-beera andi barik alkarri erraikioen, eta Goikolanda'ko abade-ak eskuen artean eban lanari ekin bitartean, errian eta aldameneko baserrietan zear egurasten nintzan. Leku guztietan begirunerik andienaz abegiten ninduen, eta au ez artu arrokeritzat, baiña askok, erriari emotsan dizdir eta apaingarri-tzat ninduen, alkarri iñotsoela: orra or Plorentzi, oillar drogoso ta ikusgarria... Bera barik Goikolanda ez litzake orain dan baizen ospetsua izango. Geiegikeritzat artuko dozue, urrean, baiña ori da igarotean entzuten nebana.

Bein baten, eleiza-dorreko joaleak illotsa zabaldu eban. Arratsalde aretan eleizkizunak ospatu ziran, eta eguraldia ederra izanik, Goikolanda'ko latzin eta alorretan zear egurasten ibilli nintzan. Illundu baiño len, Abadeneko leiora biurtu nintzan On Markos'en arto-garauak eta bere agur maitekorra artzearren. Ereti aretan, baiña, ez eustan jaramon andirik egin. Mai-aurreko aulkian jesarrita egoan idatzi barik, aurpegi goibela eskuen artean ebal. Ezpaibarik atse-kabe andipean aurkitzen zan, eta isiltasun aren artean noizean bein asperen bat iges egiten yakon. Luzaro samar egoera onetan iraun eban, eta noizbait, lo-

aldi sakon batetik iratzarrita lez, begiak jasorik ikusi ninduan. Igikera neke-tsuz jagi, eta aulki bat artuta nire ondoan jesarri zan. Egun aretan On Markos'ek iñoizkorik atsekabetuen emoten eban, begikada utsaz urrutitari so egiñez, eta oiko abo irribarretsua keiñu itunaz itxita. Alako baten, astiro ta mintzo urratuaz, onetaraxe asi yatan:

–Berrogei urte izango dira erri onetara etorri nintzala, eta esa dagikizut, gaur niretzat egunik itunenetariko bat izan dala. Oraintxe bertan, Latsaga'ko Imanol etxejoaunaren illetak ospatu dodaz, eta izan be, erri guztia gure Imanol'eri azken agurra emoteko etorri da, naigabe bizi-biziaren artean... Benetan, Plorentzi, badira iñoiz il bearko ez leukien gizasemeak, eta oneitari-ko bat, Latsaga basetxeko Imanol izango litzake...

Ona elduta, gomutak taituzeko, antza, isildu zan une batez, eta gero onetaraxe jarraitu eban:

–Gure aberrira anai-arteko guda zitala etorri zanean, abertzaletasunak eraginda, Imanol'ek bertanbera dana itzi, eta eusko gudatalde baten izena emonda gero, iskilluak eldu ziranean, guda-lekura joan zan. Berba urriko ta ekintza ugarikoa, gudan beragandik onena emon eban, eta leiaketa ezberdin aretan, atzeraka, baiña jarkitze gogorra egiñez, noizbait italiarrek Santoña'n atxillo egin eben. Orduko, kapitan-maillara eldua zan. Espetxeratu izan zan Dueso'n eta Puerto de Santa Maria'n. Iru urte iraun eban atxillo gosez eta etxe-miñez jota, beretarrak zelan konponduko litzakezan atzerrian, bere buruausterik andiena izanik. Franco'ren gudarostea Goikolanda'n sartu-agiñean zala, Latsaga baserrikoek bildurak artuta, Bidaso'z araindiko erri batera iges egin eben, errian abertzaletzat oso ezagunak ziran-eta.

Isildu zan une batez On Markos, aspaldiko jazokunak arautzeko, urrean, eta gero

–Espetxetik urten zanean –jarraitu eban–, Imanol artez-arte errira etorri zan etxeko arazoetan jarduteko asmoz, baiña eldutakoan, etxaguntza guda-irabazleek baituta egoala Latsaga'koen jokaera zitala zigortzeko, udalean jakiñe-razo eutsoen. Baiturea ogei ta amar milla laurlekokoan zan. Imanol'ek ez ekian zer egin, eta naigabe bizipean, bere buruari iñotsan zelan konponduko litzake, etxeako atzeritik ekarteko. Espetxean igarotako epean, beretarrak etxera ekartea bere amesik biziena izan zan, eta orain lur-jota egoan bere asmoak ondatuta ikustean.

Imanol'ek, baiña, ez eban asti luzerik galdu aienekeritan, eta urrengo egu-nean, errialde onetako uriburura jatsi, eta lantegi andi baten idoro aal izan eban jardun nekagarria artu eban. Arrezkero, biziera gogorra jasanez, gelatxu zikin baten kokatuta, eta janarietan aalik gitxien txautuz, txanponik-txanpon

dirua aurrezten asi zan. Lantegitik urtetean, eskintzen eutsoen zeingura jardun onartzen eban. Aspaldi luze batez, lanari zortzi ordubete emonda gero, beste lau edo bost areago illerrian jarduten eban obigilletzat. Eta olan, ogerlekorik-ogrerleko, astegun eta jaiegunetan lan egiñez, baiturea garbitzeko lain aurreztu eban. Lau urte igaro bear orretarako, baiña egun baten, noizbait, Latsaga'ra jabetzat biurtu zan.

Orduko, baiña, etxea naikoa laskituta egoan, eta onezaz gaiñera, ez ganadurik ez lanabesik. Etxea atontzeko, abelgorria ta lanabesak erosteko, ogei ta bost milla laurleko inguru bear ebazan, eta orretarako dirurik ez. Garai aretan, mezakotu barria Goikolanda'ra abadetzat etorria nintzan, eta egun baten laguntzaren eske Imanol etorri yatan bere egoera larria azalduz. Aren guraririk andiena gurasoak eta iru arrebak atzerritik etxera ekarte zan, baiña egoera aretan zelan...? Bera adoretzen aalegindu nintzan, eta arazoa nire eskuetan laga egian eskatu neutsan.

Urrengo egunean gure errialdeburura jatsi gintzazan. Emengo Aurrezki Kutxan nire anaietariko batek jarduten eban, eta onekin autu bat izanda gero, auxe erabagi zan: bearrezko bost milla ogerlekook maillegutzat emongo leuskioez etxeko baiturearen truk. Imanol'ek eskintzea onartu eban, eta andik iru egunetara bearrezko agiriak izenpetuta gero, Latsaga'ko Imanol'ek, beiak, idiak, eta lanabesak erosita, lanari buru-belarri emon eutsan. Aldi berean, nire bitartez, bearrezko agiriak jaritsi genduzan, eta Baiona inguruko erri batera joanda, Imanol'en gurasoak eta iru arrebak ekarri nebazan. Egund gogoangarria, benetan, Latsaga'ra biurtu ziranean. Olan, etxera ilten etortea zan Imanol'en aitaren irrika bizia bete zan. Maite-maite eban jaiotetxean il zan gaixoa, ainbeste urte neketsuak atzerrian emonda gero.

Imanol gizon gain-gaiñekoa izan da, eta lan utsaz urteen bidean etxaguntza aberastu ta anditu eban erosiako beste lur-zatiakaz. Orain, erriko etxaguntzarik aberatsena dala esan geinke, eta bera lakoa dan seme nagusiak etxeko ugalak erabilliko dauz. Azken aspaldi onetan, naikoa makal egoanez, sarri askotan etxera niñoiakion, eta ordubete biko autuari emoten geutsan, bere etxeko arazoak azaltzen eustazala. Erri-gizon tolesbakoa zan, baiña era berean nik ezaguturiko gizonik andienetakoa. Baekian berak eriotza ur ebilkiola, eta Jaunaren besarkadea artzeko gertatzen zan, eta ikustera niñoiakion guztietan, Jauna artzen eban. Atzo goizean beretarrek inguratuta itzali da...

Ona elduta On Markos isildu zan malkoz laiñoturiko begiakaz urrutiko izarrak begizatzen ebazala. Gero, mintzo urratuaz auxe esan eustan:

–Benetan, Plorentzi maite ori, badira iñoiz il bearko ez leukien gizasemeak, eta oneitariko bat Latsaga basetxeko Imanol, nire lagun andia ta eleiztar zintzoa.

Imanol, bere lagun miñaren eriotzak, On Markos'eri zarrastada andia eragin eutsan, eta arrezkero ezin egikean lanari bear dan arduraz eutsi. Askotan ondoratzen yatan, eta ezpanen igidurak otoitzari emotsala iragarten eustan, leioan zear urrutira begiraten eban bakotxean batez be.

Andik egun batzutara, Eupeme idazgelan sartu, eta On Markos'eri estalki lodiduneko idazkia eskuratu eutsan, auxe iñotsala:

–Enparantzatik etxera nentorrela, Latsaga'ko alargunak estalki lodi au berorrentzat emon daust.

Neskamea urten zanean, On Markos'ek estalkia urratu, eta txataltxu batekin diru-mordo bat agertu zan. Dirua alde batera baztertu, betaurrekoak jarri, eta txartela irakurten asi zan. Auxe iñoan:

"Goikolanda'ko abade onari:

Imanol'ek, nire senarrak aginduta, estalki onetan 25.000 laurleko berorreri bialtzen dautsadaz. Orreitariko 10.000, mezatarako dira. Enparauko 15.000 pezetak, berorrentzat, gura dagianetan gastatzeko. il baiño len agindu au emon eustan, berorrek berari ondo ilten lagundu eutsalako, eta bere alde egindakoa diruz ordaindu ez badaiteke be, zelanbait beroriganako esker ona adierazo gura izan dau. Agur eta eskerrik asko. Latsaga'ko alargunak".

Une batez On Markos'ek isillik iraun eban, eta gero zirrarak astindutako abotsaz, auxe esan eustan:

–Ain zuzen be, Plorentzi, mezatarakoa kenduta, 15.000 laurlekook niretzat dira, eta bene-benetan ez dot egundo be era batean orrenbeste dirurik ikusi. Ez dakit eroskien prezioak, baiña diruketa onen bidez baietz sotana barria ta oiñetako dotoreak erosi nengikezala egingo neuke... Bai, Eupeme onari zoriona lekarkioken zirikoaren antzekoa... eta orrezaz gaiñera, kapel on bat erosteko lain izango neuke...

Leioan zear, itxura alaiatz On Markos'ek ortuko igaliondoen gaiñetik urrutira begiratu eban, baiña alako baten, bere pozak benetasunari bide egin eutsan, eta gogoeta laburraren ostean, bere buruari auxe esan eutsan:

–Baiña Markos, zentzunbako orrek, zer egingo enduke sotana, kapela ta oiñetako barriakaz...? Zikindu ez ekizuzan bildurrez bizi. Uste al-yok orain yarabiltzakan baiño erosoagoa izango dokala sotana barria...? Eta oiñetakoak...? Asiera baten min egiten yoek beti, eta min egiten ez yoekanean, zaararren-zaarrez bota bear... Eta kapela...? Goikolanda'ko abadea azan ezkerero, ez al-yak egokiago betiko txapela erabiltea...?

Isildu zan une batez, eta gero onetaraxe jarraitu eban:

–Bada zertan gastau diru ori era egokian. Eleizako teillatua aztertu bear da itogiñak kentzeko, aulki batzuk atondu, sorua ondo ziratu edo ezkotu.

Baiña oroz gain bada arindu daiteken bearrian aundi bat, eta ain zuzen be, Zubiondo'ko aizpai laguntza emotea. Neskazar bi oneik, aspaldian etxe onekoa ziran, baiña gaixoak txarto joan zan arazo baten dirua ipiñi, eta pot egiñik ezkurrik bage geratu ziran. Udalak zeozer laguntzen dautse, baiña estu ta larri bizi dira gaixook, eta gaiñera makal izanik, ezin lan andirik egin, erriko etxe batzuentzat josten badiardue be. Bai, 15.000tik erdia emongo dautset, eta izan be, aspaldi zorionsua ezagutuko dabe gizajook.

Isildu zan On Markos barriro be, eta irribarre argitsua ezpanetan agertzen yakola, auxe esan eban:

–Ziur naz Imanol poztuko dala nire erabagiaz, berak be aal eban giñoan neskazar bioi laguntzen eutsen-eta.

illunabarra laster izango litzake, eta oi eban lez, arto-garau batzuk eskiñi eustazan, auxe ziraustala:

–Zeuk be, Plorentzi orrek, onartzen dozu nire jokabidea, ezta...?

Ezin nengikion itzez erantzun, baiña klo-klo batzuen bidez nire baietza jakiñerazo neutsan.

## EUPEME'REN PEKATUA

Egunak eta illabeteak alkarrri erraikioen irribarretsu, eta Abadenen egoitza bat betirako izango neukela uste izaten asten nintzanean, adurraren ego baltezke ames kutun ori ezereztu eusten. Ona emen zelan jazo zan:

On Markos'ek eguberdian artu oi eban bidalgora edo korreoa. Ez zan esku-titz asko etorten Abadenera, baiña geienak gotzaindegitik etorkiozan. Astero, oiko parroki-orria gotzain-barruti osorako euskeraz jarri egian, batez be. Bein baten, baiña, irarki orrekin iñongo zerikusirik ez eban idazkia artu eban.

Eguberdi aretan oiezko estalkia urratuta gero, On Markos'ek auxe irakurri eban:

"Gozaindegitik Goikolanda'ko parrokoari.

Kristo'gan anai maite ori:

Onen bidez jakiñerazoten dautsugu, illabete baten barruan, Gotzain Jauna errialde orretako Abade Arduraduna edo Artxiprestearekin, zure parrokira joango dala neska-mutikoai sendotzea edo siñiste-indartzea emoteko. Beste barik agurtzen zaitu.

Gotzaindegiko Idazkariak"

Baziran lau edo bost urte, azkenengo sendotzea egiña zala Goikolanda'n, eta oraingo erretirako, On Markos'ek neska-mutikoen taldea ondo irakatsia eban. Ez egoan, beraz, iñongo sostorrik alde onetatik, baiña gotzaindegiko idazkiak gure abadeagan arrenkura andi bat sortzen asi zan, eta gero ta andi-go biurtzen yakon kezka ori nasaitzearren, On Markos'ek Eupeme'ri dei egin eta auxe esan eutsan:

–Aizu, Eupeme, illabete baten buruan, Gotzaiña ta Artxiprestea emen izango doguz. Augaitik, eleizea txukundu bear izango dogu, eta...

–Barkatu beist berorrek, baiña eleizea garbi ta txukun dago; lengo egunean amaraunak kendu nebazan, eta sorua ta aulkiak ezkotu. Dana garbirik agertzen da, baiña barkatu beist Berorrek barriro, txukundu-eziña dana Berorren sotanea da...

–Ez larritu orregaitik, Eupeme, igurki edo zepillo bat azutsa kendu, eta kitto.

–Baiña On Markos, kipula baten azala baiño meeagoa izanik, galtzori andia da...! Gaiñera, koipearen dizdira ugari erakusten dau ukalondoetan eta atzekaldean batez be, eta au gitxi izanik, iru botoi aspaldi onetan galdu yakoz...

–Erosi egizuz ba, iru botoiok...

–Onezaz gaiñera, mauka ta azpiko barrenak guztiz altzituak agertzen dira, idunekoa aipatu barik...

–Orregaitik ez larritu, Eupeme, artaziakaz altziok ebagi ta kitto.

–Ez da orren erraza daukazan kalteak ezkutatzea. Baiña konpontzerik ez dauana, urteen bidean sotana orrek artu dauan oroldio-antzeko lits orlegixka ori da.

–Diñozuna egia izanik be, ez dautso neskato-mutikoen jaiari ezer kenduko.

–Eta au dana gitxi izanik, atondu bear dogu bazkari bikaiñak benetako buruauste emongo daust.

–Ez kezkarik izan, Eupeme –esan eutsan irribarrez On Markos'ek–, eguneroko lapikokoari ur geiago sartu ta kitto.

–Bai zera...! Uste al dau Berorrek, datozenak Goikolanda'ko abade lakoa diranik...? Etxe onetan ez da lapikokoak baiño besterik jaten, eta indiabak naiz garbantzuak legarrak baiño gogorrangoak izanik be, Berorrentzat beti bigun eta gozoak... Gotzaiñak-eta, ostera, mustur eta abo-sabai fin-fiñekoak izanik, ez dabe edozelako bazkaririk onartuko...

–Eupeme...! –On Markos'ek aginkor– Begirune geiago izan zakiez gozaindegiko Jaunai, bestelan ori dana pekatutzat autortu bear izango dozu.

–Barkatu beist Berorrek, baiña oindiño gogoan dot azkenengo sendotzean jazo zana. Eleizkizuna, tira...! Baiña gero etxe onetan izan genduan bazkaria, ez yat egundo be aztu egingo. Jai aretako indiaba gorriak ezuste baten erre egin ziran, eta izan be, lapikoko areri aurre egin aal izan eutsan bakarra, Berori izan zan. Gero, okeldegian erosiriko saieskiak atsoaren anka baiño gogorrangoak gertatu ziran, eta iñork ez areiri agiñak sartu aal. Maiazkentangat, neuk atondutako gozopil bikaiña, maira barik, gotzaindegian lan andia ebela atxakiaz, Gotzain Jauna ta artxipestea jagi, eta beste iñora joan ziran. Bai, eleizearen agintari duin batek merezi dauan bazkari bikain bateri beste iñon ekiteko, aurki...

–Eupeme...! Barriro be badiñotsut, gure Gotzaiñak merezi dauan begirunea gorde dagiozula, entzun...?

–Bai, Jauna.

–Orain joan zaitekez, eta egun andi ori etorri aurretik, begira gure Gotzaiñak-eta bazkari on-ona izan dagiela.

Eupeme urten zanean, asperen bat jaurtirik, On Markos'ek auxe esan eban:

–Ia oraingo onetan, lengo zoritxarreko bazkaria aztu egiten yaken...

Jarraian, asperen bat urteten yakola, auxe eratsi eban:

–Zoritxarrez, autortu bear dot benetan, Eupeme gaixoa ez dala jaiio sukaldariñe izateko.

Egunak aurrera joiazan, eta bein baten Eupeme'k On Markos'en jantzi-arasa urritik sotana ospetsua atara, eta zapi bat az txukuntzeari emon eutsan. Bildur zan, antza, igurki edo zepilloak Goikoland'ko abadearen janzkia ondatu egiala, eta ardurarik andienaz erabilten eban zapia. Izan be, koipe-dizdira ugarriak alde batera lagata, sotanearen orlegiak ez eban ain txarto emoten. Danok sotanearen baltzari oituak gara, baiña nire uste apalez, orlegi margoa ez da siñismenaren aurkako iñongo pekatuak.

Sendotzearen eguna urreratzen zan, eta egunik-egun, Eupeme'gan nirekiko jokaera ezoitua somatzen neban. Ez ninduan len baizen txeratsu erabilten, eta so egiten eustanean, aren betseñetan dizdira gogor, ankerra agertzen yakola antz emoten neutsan. Bai, gero ta agiriago zan aspaldi baten Olagoiti'ko errementariaren begietan oartu izan neban itxura gogor, errukibakoa. Eta auxe argi be argi nenkusan: Eupeme'k lapikorako nai ninduala, eta izan be, neurri baten zuzen egoan. Ez eban ezelan be gura, aurreko sendotzean bazkariari jazotako ezbearra barriro be etorri ekion, eta berarentzat agiri zan, nirekin egiñiko sukalkiak edo errekiak arrakasta itzela jaritsiko leukiela. Ain zuzen be, autortu bear dot emen (eta barkatu egistazue arrokeria baderitxazue), nire adin eta osasunaren unerik egokienean aurkitzen nintzala, edozein txatamen edo abo-sabaiari nire bikaintasunaren neurria emoteko.

Argi zan baita be Eupeme'ren asmo zitala, azken aspaldi aretan niri buruz erabilten jokaerean. Ordurarte, edozein izakik merezi dauan begirunea gorde izan eustan, beti berba gozoak esaten eustazala, eta onezaz gaiñera, etxeko janari-ondakiñik gozoenak gorde egiten eustazan. Baiña azken aspaldi aretako ereguak eta guzti be, ez eustan ziria sartzen, eta beti atzarri ta ernai nenbillen eustean arrapatua ez izateko.

On Markos'ek Eupeme'ren asmo ezkutuak ezagutu ba'leuz...! Baiña Gokolanda'ko abade ona ta maitetsuak, sendotze ta euskal eliztiaren gertulanetan egunak emoten ebazala, ezin uste izan ezelan be ez, Eupeme'k orren zital jokatuko leukenik.

Jai-aurregunean or-emenka janari billa niarduala, atadiko txoko baten talo-apur batzuk ikusi nebazan, eta oneik bene-benetan atsegin yatazan ezkerro, mokoka asi nintzakien. Alako baten, nire ezustea ustiatuz, norbaitek eraso

ta anka batetik atzitu ninduan. Nire azkena ur ebilkidala oartzean, latz-ikara batek astinduta, eta Eupeme'k nire ankeari oratzen eutsala, etsiak artuta egakatzeari ta jarei neban anka-erabilteari emon neutsan. Eupeme'k beste eskua luzatzen ebanean, orkatzaz arramaska itzela egin neutsan eskuturrean. Ezustez artuta, miñezko didar bat jaurti, eta askatu ninduan. Tximistaren antzera igesari emon neutsan, eta arrapalada baten zabaldira jo neban, Goikolanda erria begimenetik galdu arte.

Noizbait, gelditu nintzan, eta nire gogoetak baretu ta taiutu ezketiño, gertaturikoaren ostean Abadenera biurtzerik ez nebala erabagi neban. Eta olan, ain zoriontsu bizi izandako etxetik urundu nintzan. Izan be, gotzain baten urdaillaren txera maitetsua artzea, edozein oillar batentzat dedu andi-andia izan daiteke, eta ziur naz oillarkide askok orretarako pozez gaiñezka euren burua eskiñiko ebela, baiña ni ez nintzan oraindiño santutasun-mailla orretara eldu, eta askozaz naiago neban Plorentzi oillar drogozosa izaten jarraitu.

Goikolanda'tik urundu, baiña, ez yatan errazik billakatu. On Markos maite-maite neban, eta aren gomuteak biotza zapaltzen eta mintzen eustala, udagoiko arratsalde eder aretan, ezaugerantz abiatu nintzan, olan nire bizitzaren beste atal bateri asierea emoten neutsala. Baiña egunen baten etorkiak esango leuskit, Goikolanda'ko abadea aztu-eziña izango litzakidala...

## ITSU-MUTILLA

Udazken aretako eguraldia ederra izanik, aspalditxu batez nire esku bizi izatea erabagi neban, eta olan, egunez lurra janari-billa aztarrika, eta gabaz edozein adarretan kokatuta, nire buruaren jabe bizi izan nintzan. Ego-aizearen laztanek zabaldua edertzen eben urrezko litsaz, eta gau amesgarri areitan izarrrek urrumatzen ninduen iñoizkorik maiteen. Zabaldiak nonai eskintzen eustan janaria, eta olan gizonaren egoitzak saiestuz, astiro baiña etenbarik Goikolanda'tik urruntzen nintzan.

Negua, baiña, urreratzen zan uxa-eziña, eta bizitasuna galduta, inguruak moteltzen eta ituntzen asten ziran, kadentasunezko ukitze bat oroz gaiñetik edatzen zala. Egun baten, otzak eta euriak eraginda, ondar-arrobi baten estalgunean babestu nintzan. Leku onetan egun batzuk igaro nebazan, eta eguraldia atertu zanean, nire ibilte alderraiari jarraitu neutsan. Baiña ozta-ozta estalgunean itzita, etxol bat aurkeztu yatan. Bazirudian arrobi baztertu aretan, len zaindariren bat bizi izan zala, urrean, eta ikus-gurak bultzaturik, etxol aren barrua aztertzea ebatzi neban.

Atezubia doi-doi zearkatuta barrukoa aztertzeke, gelditu nintzan. Gela bakarrekoa zan, eta erdian mai bat ikusten zanez, ikoti bataz onen gaiñean kokatu nintzan. Une aretan aulki baten jesarrita gizon batek oiñetakoak sartzen ebazan. Nik mai-gaiñera egindako egaketea entzun izan eban, antza, eta burua niganantz zuzenduta, auxe itaundu eban:

—Nor dabil or...?

Berrogei ta amabost urtekoa izango zan gizon aren begien itxura uts, galduak, eta betseiñen moteltasunak baita egindako itaunak batez be, itsua zala adierazo eusten. Gizakiekin izaniko gora-beerakaitik, andik iges egiteko arian-arian nintzala, aren ezpanen irribarre gozo ta maitetsua ikustean, leku aretan jarraitzea erabagi neban. Nire bizitzaldian ikasitakoa zala-ta, banintzan nor gizon baten aurpegian bere barruko izakerea irakurteko, eta itsu aretan ikusten nebanak arrenkurak uxatu eustazan.

Aurpegia niganantz zuzendurik, barriro itaundu eban:

—Nor dabil or...?

Orduan klo-klo biguna jaurti neban, eta,

–Oillarra zaitut, adiskide ori...? –irribarrez esan eustan– Ni Basi itsua nozu, bakartasun utsean bizi dan jauregi eder onen erregea... edo obeto esateko, txabola baten babesten dan eskaleen erregea.

Au esanik, jagi ta nigana urreratuta, lumak laztandu eustazan auxe ziraustala:

–Ba al-dakizu gauza bat, adiskide...? Nirekin bizi izatera geratu zaitezala gura izango neuke. Ara... bakartasun uts-utsean bizi naz aspalditik, eta nire ondoan adiskide bat izatea on litzakit benetan, oillarra izan arren be... Orain gosaria atonduko dot, eta gero errira jatsiko naz, eleizako atean diru-eskean jarduteko.

Au esanik, ibillera ezpaitsuz sutondora urreratu, eta sugaiñeko apaletik su-zotz bat arturik, ixiotu ta kaxpel bateko esnea berotu ondoren, ogi-zerrenda batekin lagunduta gosalduta eban. Gero, urteteko gertutu zan, baiña ori baiño len,

–Ez al-dozu nirekin errira jatsi gura...? –esan eustan– Nik ez dot egundo oillar batek lagunduriko eskalerik ikusi, baiña zuk nai izatekotan gaur errian orixe ikusiko dabe.

Berari laguntzearren maitik jatsi, eta urten gitzazan. Ibilten asi baiño len, atea kisket batz itxi eban, irribarrez auxe iñostala:

–Basi itsuaren jauregiak ez dau giltzaren bearrik, adiskide. Niri ostutea ez yako iñori bururatuko. Orain jarri zaitez nire lepo-gaiñean, eta goazen errira.

Lepo-gaiñean kokatu nintzakion arin, eta ibilten asi gintzazan. Bideko oztopoak uxatzeko, Basi itsuak makilla batz bidea aztertzen eban. Bazirudian gora-beera guztiak ondo ezagutzen ebala, baiña arrobotik arri asko jausten zanez, azpikoa etenbarik azertu bear eban. Olan giñoazala, aizeak erauzitako, urrean, lerrondo gazte batek itsuaren aurpegiko ein berean bidea zearkatzen eban, eta olan jarraitzekotan, itsu gaixoak jote itzela artuko leuke. Bidea makillaz aztertzen eban ezkerro, Basi itsua ez zan galtzori aretaz oartzen, eta artez-arteaz oztopoaren aurka joain. Aurpegia enborraren aurka jo-agiñean zala, ezinbestez, kukurruku idartsua oar antzera bota neban, eta ezustez arturiko Basi gelditu egin zan. Itsu saiatuek "erradar" antzeko bat irratitzen dabe, eta gelditzean, Basi'k lerrondoaren enborra aurpegi-aurrean igarri eban. Ezkuaz ukutu, eta,

–Eskerrik asko, adiskide –esan eustan–, garaiz oartu-erazo daustazu oztopoa, bestelan...

Isildu zan une batez, eta aurrera jarraitzen ebala, berekiko auxe esan eban:

–Ain zuzen be, ez neban iñoiz uste izango, oillar batek itsumutiltzat jardun leikela.

Aurrera giñoazala, burutapen bitxi bat otu yatan, eta auxe izan be: Basi'ren itsumutilla billakatzea; eta jardun orreri emon neutsan. Arri andiren bat nenkusanean "klo" bat jaurtiten neban Basi'k inguratu egian, eta oztopoak bide guztia eragozten ba'eban, ordua "klo" bi. Laster oartu zan itsua nire jokabideaz, eta luzaro barik gauza izan zan ariñago joateko. Noizbait, erri naikoa andira elduta, kaleetan zear eleiza eder bat ikusi neban, eta onen arrizko zuru-bi bateko maillan jesarri zan itsua.

Bazirudian eleiztarren artean oso ezaguna ta ederretsia zala Basi itsua, onen kapelera dirua sartuz gaiñera, maitetsu iz egiten eutsoelako. Eguberdiandian inguru, eta eleiztarren kopurua bakandu zanean, Basi jagi zan, eta txanponak sakelean sartuta, bide-ertzetik makillea aztamuka erabillirik, jangaien denda batera sartu, eta gai batzuk erosita etxerakoa egiteko gertatu gintzazan. Erriko urteeran egurastegi ederra egoan, eta onen zear giñoazala, gurpildun aulki baten egoan mutiko elbarri batek, auxe oiukatu eutsan:

–Basi, Basi...!

Itsua urreratu yakon, eta areri txanpon batzuk emonda, burua laztandu ondoren.

–Zelan abil, Dunixi...? –itaunda eutsan.

–Ondo, Osaba Basi, eta eskerrik asko.

–Agur laztana, biar arte.

Etxolarako bidean gora giñoazala, eta ni goizean lez aren lepoan kokatuta bideko oztopoak iragarten neutsazala, auxe esan eustan:

–Dunixi gaixoa umeen elbarritasunak jota dago, eta oso nekez dabilke. Bere baitan, baiña, naimen-indar itzela datza. Emoten dautsadazan txin guztiak ikas-liburuetan erabilten dauz. Joran bizi-bizia dau osagille billakatzeko, eta nik neuk ziur naz elburu ori jaritsiko dauala, naimen indartsuz gaiñera, adimen argikoa dalako. Ume ori dan andia...!

Etxolara elduta, Basi'k janaria atondu eban, eta bitartean, zabaldian zear osteratxu bateri emon neutsan nire oiko janari idorotearren. Arratsaldeko erdiand-edo biurtu nintzan, eta eguraldi epela gozatzeko, Basi itsua aulki baten etxola-aurrean egoan. Oartu nindueanean aurpegia alaitu yakon, eta bere ondolan geratu neintekion eskatu eustan onetaraxe:

–Egon zaitez nirekin emen, bear zaitut-eta. Azken urteotan bakartasuna nire etenbako patua izan dot, edonora lagundu daustan itzal ituna...

Isildu zan une batez Basi itsua. Arrats gardeneko eguratsean aurpegi zurbi-llan erredura izugarri baten orbana agiri eban, eta augaitik, urrean, itsu geratu izan zan. Erruki neutsan, benetan, begikada utsa urrunean jarrita isillik egoala bere gogoetan murgilduta. Alako baten, asperen bat jaurtirik, auxe esan eustan:

–Urte asko dira, adiskide, itsutu nintzala. Gudean jazo yatan, lerkaiaz ondatutako etxe-ondakiñen artean, lagun batzuk ataraten niarduala. Alako baten su-lerkai bat jausi, eta onen suzko txipristiñak aurpegian artu nebazan. Fosforoa zan erregai izugarri aren ondorioz, aurpegia orbanduz gaiñera, begiak zauritu eustazan. Asikerean begilariiek uste izan eben bietarik bat beintzat salbatuko neukela, baiña bigarrena be galdu neban. Gudea amaitu zanean, ezertarako gauza ez nintzala, etxera biurtu nintzan gurasoekin bizi izatera.

Ona elduta isildu zan une batez, aspaldi aretako jazoera izugarria gomutara ekarririk, eta gero,

–Ez neban bizi gura –jarraitu eban–, eta etenbarik ituntasun garaiteziñak artuta irauten neban. Aspaldi izugarria, benetan, nire gurasoentzat batez be, gatzetasun betean semearen etorkia ezereztua ikustean. Izan be, adiskide maite ori, itxaropen-eza edo etsipena gizaseme batek artu dagiken gatzik andiena da. Bein baten, baiña, Jaungoikoa barrero idoro neban, eta jazoera onek bakea ta eroapena ekarri eustazan. Arrezkero, mundu onetan ukatu yatan argia bestean gozatuko dodalaren itxaropenaz bizi izaten naz. Jaunak egunen baten emongo daustan besarkadearen yoranak oraingo naigabeak arintzen daustaz...

Basiitsuak, aurpegia gorantz jasorik eban, ea ezpanen irribarreak bere itxurabako aurpegia argitzen eutsan. Isillune baten ostean,

–Bein baten, adiskide, gurasoak il yatazan, eta bearrizan gorrian ikusi neban nire burua, nigaitik arduratu zeiten iñor ez neban-eta. Etxeko alogerea ordaintzeko beste ez izanik, itzi bear izan neban, eta eskaleen bizikereari ezinbestez emon neutsan. Asikereako arrotasuna iruntsita, lotsa itzela jasan bear izan neban-eta, Jaunak emon eustazan orretarako bear nebazan indar eta apaltasuna. Erririk-erri ibiltzen asi nintzan, eta orain bost urte-edo, or beean dagoan errira eldu nintzan, eta ordutik eleizako atean eskean diardut. Errira etorrita laster, egunoro lismona batz laguntzen daustan eleiztar batek, arrobiko etxol au eskiñi eustan, eta arrezkero emen bizi natzaizu.

Barrero be isildu zan itsua, eta gero,

–Nire bizikerean txarrena bakartasuna da, adiskide, baiña agertu zaiatazetik irautea jasankorragoa biurtu yat, eta ziur naz Jaungoikoak bialduta nire illuntasuna arintzera etorri zarala. Laguntasuna emenez gaiñera, bideko sostorrrak uxatzeko gauza naz zuri esker, eta errirako joan-etorria ariñago biurtu yat. Entzun egistazu ondo, adiskide... ez nagizu bakarrik itzi barrero, zu maite izaten asi naz-eta. Esaidazu ez nozula bakarrik itziko, adiskide maite orrek...!

Erantzuntzat kukurruku zaratatsua eguratsean zear jaurti neban, eta itsuak irribarre batz ordaindu eustan.

Olan ba, itsu-mutilla biurturik, biziera barri bateri emon neutsan. Basi ta biok alkar-ulertze andia jaritsi genduan, eta egunen bidean, nire oarrai jarraituz, iñongo oztopo barik Basi'k ibiltzen ikasi eban. Bein baten, oi genduan lez, eleiza'atean eskean giarduála, eleiztar batek erratilluan txin bat bota ebanean, aren emokaria "klo" batz eskertzen otu yatan, eta arrezkero, erratillura sartzen zan diruketearen giñoan aldarrikatzen neban. Burutapen onek eleiztarren esku-zabaltasuna eragin eban, eta dirua ugaritu zan neurri andi baten. Orduan jendearen emonkortasuna agirian jarteko, artutakoa ogerlekotik gorago zanean, kukurruku indartsua jaurtiten otu yatan. Burutapen onek lortu eban arrakastea itzela izan zan. Jendeak ez dautso emoteari zaletasun andirik, baiña bere emoitza aldarrikatzen danean, orduan esku-zabalago agertzen da. Arrezkero, esan dagiket beraz, erratillura jaurtitako txanponak ogerlekotik gora biurtu zerala geienak, eta au dala-ta, Basi'ren sarrerak gorakada itzela artu eban.

–Arraioa, adiskide –sarri askotan ziraustan itsu gaixoak–, benetan esateko, ez dakit ainbeste diruz zer egin, onen amarrenaz naikoa dot-eta.

Egunoroko eske-batza amaitzen zanean, etxerako bidean Basi'k eguneko janari-ta erosten eban. Erriko urizaiñek eta oinkari askok ezagutzen eben itsua, eta danok agurtzen eben maitetsu. Izan be, eta au ez artu arrokeritzat, oillardun itsua errian gero ta ezagunagoa biurtzen asi zan. Erritik urten baiño len, egurastegia zearkatzen genduan, eta Dunixi elbarria agurtuta gero, une batez berbetan ziarduan Basi'k, eta diru-pillo bat emon oi eutsan etxolara biurtu baiño len. Mutikoa oso irakurte-zalea zan, eta Basi'k emoniko diru guztia, liburuetan erabiltzen eban, elebarrietan bereiziki, eta onein artean Salgari ta J. Verne'renak batez be. Bein baten, Dunixi'k niri buruz itaundu eutsan, eta Basi'k zelan ezagutu ninduan eta zelan bere itsu-mutilla billakatua nintzan jakin ebanean, ni laztantzea laga egion eskatu eutsan. Basi makurtu zan, eta lumak laztantzen eustazala,

–Duni –itsuak esan eutsan–, oillar oneri esker, nire diru-sarrerak anditu yataz asko, eta augaitik, ez yatzuz utsik egingo liburuak, orretarako ta geiagorako beste dirurik badot-eta.

–Ba al-dakizu gauza bat, Basi...? Andia egin naitenean, osagillea izanez gaiñera, oillar baten gora-beerak idatziko dodaz.

–Orretarako, baiña, ikastolara joan bear izango dozu, gai asko ikasi bear izango dozu-ta.

Bidean gora giñoazala, Basi'k auxe irautsi eustan:

–Datorren urtean Dunixi'k ikastolan jardungo dau, eta nire ustez, bere asmamenaz osagille ta idazle on-ona billakatuko da. Diru batzuk aurreztu dodaz azken aldiotan zure laguntzari esker batez be, eta egunen baten mutiko

orrenzat izango dira, merezi dauan ezkuntza artu dagian. Siñistu egistazu, adiskide, asmo orrek zoriontsu egiten nau.

Bizimodu onetan negua aurrera joian, eta noizbait udabarria asi zan. Bein baten oi neban lez, Basi itxartu zeiten nire goizaldeko aldarria jaurti nebanean, arrituta oartu nintzan itsua ez zala oetik jagiten. Urreratu nintzakion, eta orduan sukarpean eta arnas-estuka egoala egiztatu neban. Alako baten begiak edegita, oartu ninduan, eta,

–Adiskide maite ori –esan eustan–, geisorik nago, alborengoak artuta, urrean, eta ezin naiteke errira joan. Zer egingo dogu...?

Itz oneik entzun baiño ez, arrapalada baten errira jatsi, eta erriko eguraste-gira joan nintzan. Andik laster, ezaguna neban zaindaria idoro neban. Ni ikus-tean,

–Kaixo, adiskide...! –esan eustan–. Non itzi dozu Basi itsua...?

Adierazo bear neutsan etxolan geisorik egoala, baiña zelan...? Alako baten, burutapen batek jota, mokoaz aren prakari eutsi neutsan. Asieran ulertu ez, baiña saio batzuen ostean, noizbait aditu eban, eta auxe esan eustan:

–Etxean dagoala esan gura daustazu, ezta...? Orain, baiña, jardunaldia dodan ezkerro, ezin naitekio joan, baiña nire eginkizuna amaituta gero, joango naz.

Basi'gana biurtu nintzan ba, eta etxolara sartuta ondoratu nintzakion. Itsuak egoera bardiñean zirauan, eta entzun ninduanean, auxe esan eustan:

–Adiskide, ez nagizu bakarrik itzi, bildur naz-eta.

Andik ordu bitara-edo, uri-zaiña agertu zan, eta Basi'ren egoereaz kontu-ratu zanean, arin baten errira jatsi, eta ordu biren buruan eri-berebil baten biurtu, eta beste lagun batz, burusietan bilduta Basi sartu, eta erriko geisote-gira abiatu ziran.

Leku onetan sartzetik ez neban ezkerro, etxolara biurtu nintzan jazoeren begira. Andik amabost bat egunera Basi biurtu zan, eta,

–Aizu, adiskide –esan eustan–, osatu naz, baiña udalbatzak erriko agure-etxera sartu naiten erabagi dau, nire bizitzaldiaren azken urteak an igaro dagi-dazan. Pozik nago, etxe orretan ondo biziz gaiñera, lagun onak izango dodaz, baiña bestaldetik tamala dot zu barik bizi izan bear, adiskide maitia...!

Jarraian bide-zorroa ta diru-zizku bat artuta,

–Goazen errira, adiskide –esan eustan–, eta gida nazazu azkenengoz errirako bidetik.

Lepo-gaiñean jarri nintzakion, eta azkenengoz itsu-mutillaren jardunaldia bete neban. Errian sartu-agiñean gintzazala, auxe esan eustan:

–Begira, adiskide, diru-zizku onetan azken aspaldion aurrezturiko dirua daroat, Dunixi, elbarri gaixoari emoteko, liburuak-eta erosi dagiazan. Benetan esateko, ez daust niri eskertu bear, zuri baiño, diru orren benetako irabazlea zeuk izan zara-ta. Ez dakit zelan ordainduko dautsun berak, baiña egunen baten idatziko al-dau zure gora– beerak...! Ezta, adiskide...?

Klo-klo baten bidez nire baietza adierazo neutsan, eta andik laster, egurastegian egoan Dunixi agurtu genduan. Diruketea ikustean, mutiko elbarriak ez ekian zer esan, begiak zabal-zabalik altxorra begizatzen ebala.

–Diruketa au, oillar oneri zor dautsazu, Duni –esan eustan Basi'k–, egizko irabazlea bera da-ta.

Mutikoak lumak laztandu eustazan, eta maitasunez begizatzen ninduala,

–Adiskide, oillar maite ori –irautsi eustan–, Jaungoikoak lagun, egunen bat osagille ta idazle izango naz.

Gero, Basi ta biok agure-etxera joan gintzazan, eta onen inguruko baratzean egoan lekaime batek, itsua ikusita eskuari oratu eustan, eta baratzeko burnizko atetik begizatzen nebazala, agure-etxeko atadira abiatu ziran. Sartzeko zorian zala, Basi niganantz biurtu, eta mintzo maitetsuz auxe esan eustan:

–Agur, adiskide, egunen baten, merezi dozun zoriona aurkituko aldozu...!

Saman korapillo bat eratu izan yatan, baiña itsua nire ikusmenetik galtzeko zorian zala, aal neban idartsuen, kukurruko ozen batz Basi itsuari azken agurra bialdu neutsan.

Eta barrero be, nora ez nekiala ibiltan asi nintzan, biotzean itsuaren oroitza bizia neroiala. Eguberdia zan; udabarriko zeru garbipean, erakarpen uxa-eziñaz zabaldiak dei egiten eustan, eta onen lillureari jarki eziñik, erritik urtenda, mendian gora edatzen zan bidexka batetik, ezaugerantz zuzendu nintzan.



Nora jo ez nekiala bideari ekin neutsan, eta baratxe-baratxe erria an beean itzita, zabaldi betean aurkitu nintzan. Udabarriko eguraldi eder aretan, bizitzaren aztarnak nonai ikusten ziran, eta inguratzen ninduan aintzak kutsututa, toki garai aretan aspalditxu bat emotea erabagi nenban.

Egun zoragarri batzuk igaro nebazan leku garbi aretan. Niretara bizi izaten nintzan, au da, egunez gose nintzanean zizaren billa jarduten neban asetu arte, eta gero, edozein adarretan kokatuta, inguratzen ninduan edertasunari begira, astia emoten neban.

Bein baten, bideko arresi baten gaiñean eguzkitan nengoala, zintzarrien otsak aditu nebazan. Andik laster, bide-okergune batetik artalde bat agertu yatan, atzetik txakurrak lagunduriko artzain batek zaintzen ebal. Zaarraren-zarrez txakurra nekez ebilken, ezueri andi batek jota, urrean, eta ernai bazirudian be, agiri zan zaarsaridunen biziereari emoteko garaia etorri izan yakola. Atsegiña zan, benetan, zintzarri-otsen, artzaiñaren didarren, eta txakurraren zaunken artean, ardiak bidean gora igaroten ikusi. Artaldearen artean nabari ziran arkazteak, txikiagoak eta zuriagoak ziralako.

Artaldea igaro zanean, atzetik etorren artzaiñak ikusi ninduan, eta gelditurik,

–Zer zabiz or, Kurruku –esan eustan–, ez ete nai izango nirekin aspaldi bst igaro an goiko sarobean...? Leku zoragarria da, benetan, eta ziur naz gogokoa gertatuko yatzula.

Berba oneik entzutean, arresitik bidera zapart egin, eta artzaiñaren albotik ibiltzen asi nintzan. Izan be, artzaiña atsegin yatan, eta aren begietan ez neban niganako itxura gosetia igarten, eta onezaz gaiñera, ezpanetan marrazten yakon irribarrea guttiz begikoa zan ezker, bertanbera artzain arekin aspaldi bat emotea ebatzi neban. Bidean gora genbiltzala, artzaiñak auxe esan eustan:

–Ni Txolo nozu, eta sarobea an goian emendik ordu bitara dago. Leku eder eta osasungarri areri Bizkarluzea deritxo. Ango aizea mee ta gozoa da, bedarra samurra, eta lurra zizara-mordo gozoaz beterik. Nai al-dozu nirekin udea igaro...?

Berarekin niñoala ikustean poztu zan, eta andik laster

–Begira, Kurruku –esan eustan–, gure aurretik doan Txau, nire txakur ori ezueriak jota izanez gaiñera, edozein ordutan lo geratzen da, eta jatsitako esnea etxera daroadanean, txakurbako ardiak euren aukeran dabiz. Au dala-ta, Txau gaixoak iratzarle bat bear dau, eta iñor ez zu baizen egokia betekizun ori egiteko. Orren ordaiñez, nire begirunez gaiñera, eskubidea izango dozu goiko sarobean lo egiteko. Zer deritxazu orreri...?

Txolo artzaiñak eskintzen eustana bidezkoa iruditu yatan, eta baietzaren ezaugarritzat, kukurruku ozena jaurtita, aren alboan jarraitu neban. Bideak gora ta gora egiten eban etenbarik. Andik ordubete bitara-edo, mendi-bizkar zabal batera eldu gintzazn. Leku au ardien bazkategi bikaiña zan, bizkarreko alde biak bedar labor gozoaz estalita egozala, eta kilometro bat luze izango zan. Atx bik mugatzen eben leku zoragarri au, eta ezkerrekoaren ondoan Txolo'ren sarobea zetzan, eta onen albo baten eskorta edo esparrua ikusi zeitekean.

Elduta bereala ardiak bazkatzeari emon eutsoen. Illunabarra etorri zanean, Txau'k zaunka bizitan esparrura zuzendu ebazan, eta danak barruan ziranean, Txolo'k aulkixu ta suil bat ekarrezala, ardiak jatsi ebazan. Amaitu ebanean suil bete esne sarobera sartu, eta esparruaren sarrerea langa bat az itxi eban, barruan etzanda jarritako ardiak urten ez zeitezan. Jarraian, Txolo'k gaztai zati bat ogi ta ur gardenaz lagunduta apaldu eban. Gero, sarobeko txoko baten egoan artamalutazko oatze baten lo egiteko etzan zan. Ni, leiotik ur egoan aga baten kokatu nintzan, eta kanpoan ikusten ziran ortzi gardeneko izarrak begizatzen nebazala, loak artu ninduan.

Goizaldea barik nire oiko lenengo aldarria jo neban, eta egunsentia agertzeko zorian zala, bigarrena. Orduan Txolo jagi zan, eta gaztaizko gosaria izanda gero, beste suil bat eta aulkixua artuta, ardiak jatsi ebazan. Amaitu ebanean, aga bat artu, eta onen muturretan suil bana eskegita, soingaiñean ipiñi, eta mendian beera abiatu zan. Urten baiño len,

–Aizu, Kurruku –esan eustan–, an beean dagoan nire etxera noa, an bertan gaztaiak egiteko. Arratsaldean, illundu barik etorriko natzaizu, lenengo jaisketea egitearren. Bitartean, begira Txau lo geratu ez daiten, eta loak artuko ba'leu, iratzarri egizu txakur onari dagokionez artaldea jagon dagian. Agur, Kurruku.

Joan zan Txolo, eta esparrutik urtendako ardiak sakabanatu ziran bedar samur eta gozoari ekiteko. Egun aretan ipar-aizea zan ezkerre, ardiek bizkarreko ego-egia aukeratu eben alatzeko. Txau gaixoa, baiña, lo-gura astunari aurre egin eziñik, noizean bein lo geratzen zan, eta Txolo'ren aginduari jarraituz,

aren belarri-ondoan kukurruku biziak jaurtiten neutsazan bere eginkizuna bete egian. Txakur gaixoak baiña, ezin egikean atzarririk iraun, eta au ikusita, lo egian laga neban, eta bear-bearrezkoa zanean soillik, ardi deslairen bat ekarteko-edo, iratzarten neban. Bitartean, zizara gozoak aztarrika billatzen nebazan, eta izan be, Bizkarluzea'koak bikaiñak azaldu ziran.

Olan igaro neban artzaintzari emondako nire lenengo eguna. Arrats-beeran suil utsak agatik eskegita ekarrezala eldu zan Txolo, eta aurregunean lez, txakurraren bidez ardiak esparrura sartu, eta jatsi ebazan. Gau aretan ederto lo egin neban, goiko aizeak eta eguneko lanak eraginda, urrean.

Jardun barriari emondako nire biziareak gora-beera txiki batzuk alde batera itzita, beti bardin zirauan. Txolo'k eguneko aldirik geiena etxean emoten eban, jatsitako ardi-esnea gaztai biurtzeko, eta enparauko astia baserri-lanetan, urrean. Olan ba, eguna Txau'rekin emoten neban, eta biok guztiz ondo alkaritzen gintzazan ezkerre, egunek gora-beera andi barik alkarri erraikioen.

Txau, baiña, artzain-txakurtzat bere egitekoa beteteko, gero ta eziñago aurkitzen zan, eta aldiaren bidean ardien zaintzarako gai ez izanik, aren eginkizuna nire gain artzea erabagi neban. Olan ba, ardi deslairen bat nenkusanean, onen saietsetik kukurruka oldartzen nintzakion. Bide au, baiña, alperrikoa azaldu zan; samea urratzeraiño aalegintzen banintzan be, ardi denganiñoek ez eusten jaramonik egiten. Orduan, eginbidea aldatzea otu yatan, eta onetaraxe alegia: dalako ardia bide zuzenera ekarteko, didar bizitan oldartzen nintzakionean, egoak astintzen nebazan egazti erraldoi baten antzera, eta ardi geldoak egazti arrapatarizat artzen ninduan, eta olan arin baten nai izandako lekura eroaten neban. Laster oitu ziran ardiak nire agintzeari men egiten, eta luzaro barik ardien zaintza txakurra baizen ondo egiteko gai izan nintzan. Kukurrukua jaurtiten nebanean, artaldea gerturik jarten zan, eta bere saietsetik egakatzen ikusten nindueanean, nai izandako lekura joian. Egitekorik aspergarriena, ardiak esparrura sartu-erazotea zan, baiña ekiñaren-ekiñez au be laster ikasi eben.

Goizalde baten nire bigarren aldarria jaurtirik, eta Txolo ardiak jaisteko gertatzen zala, ateko bestaldean Txau gaixoa illik agertu zan. Tamal andia artu eban Txolo'k txakurra benetan maite ebalako. Aitzurraz obi bat sakonduta, an bertan lurperatu eban. Agiri zan artzaiñaren aurpegian, txakurraren eriotzak naigabe bizia sortu izan eutsala.

Gau aretan oiko jaisketea eginde gero, Txolo oeratu aurretik, aurpegian beera malko bat isurtzen yakola, mintzo atsekabetuaz auxe esan eustan:

–Benetan tamala dot Txau'ren eriotza, Kurruku. Izan be, uts andi bat sortu daust bere joateak. Amar urtez bere etenbako laguntza izan dot, ordaiñez ezer

eskatu barik. Maite-maite ninduan berak, baita nik bera be. Azken aspaldion banekian bere azkena ur egoala, baiña ezin nengikion bere joateari artaratu.

Une batez isildu zan Txolo, eta gero

–Bai, Kurruku –jarraitu eban–, bere gaztaroan txakur ernaia izan zan mundu onetan txakur ernairik izan ba'da, eta artzain-txakurren leiaketa askotara neroian, eta izan be, garaipen-sari asko jaratsi neban bere ekintzaz. Orain sei bat urte, Urkiola'n ospatu zan leiaketea txapeldun billakatu zan, eta diruketa polita irabaziz gaiñera, esku-erakutsizat txola dotore bat lortu neban.

Isildu zan barriro, eta gero ezpanetan irribarre baten keiñua agertzen yakola, auxe esan eustan:

–Urrengo urteko txapelketearen aurregunean, baiña, ondore barregarri ta siñisteziña ekarriko leuskidan gertaera bat jazo yatan. Ara... oi baiño gogorra-goa zan gaztai-zati bateri agiña sartzen neutsala, aurreko ortz bat galdu neban. Arazoari ez neutsan beste jaramonik egin, baiña urrengo egunean leiaketearen txandea etorri yatanean...

Egun aretan jazorikoak, antza, Txolo'ren umorea iratzarri eban, aurpegia irribarre zabalaz argitu yakon-eta auxe iñostanean:

–Siñisteziña baderitxazu be, Kurruku, agin edo ortz-galtze arek txistua besteratu eustan, eta augaitik, lengo txistu-doiñuari oitutako Txau gaixoak, ezin nire aginduak ulertu. Ezkerretako ardiak batu egiazan adierazo gura neutsanean, berak eskumakoai ekiten eutsen, edo-ta arin ibilli zeiten agintzen neutsanean, lurrean jesarten zan kokoloaren itxuraz begizatzen ninduala. Azkenean, eta amaika gora-beera jasanda gero, ardiak batu egiazan jaritsi nebanean eta txistu zorrotzakaz eskortara sarrerazoteko agindu neutsanean, sarreran jesarrita, zaunka bizitan ardiak lau aizeetara sakabanatu ebazan. Onen ostean ez neban beste biderik izan, leiaketeari uko egitea baiño, ikusleek ito egiteraiñoko barre egiten ebela. Arrezkero, betirako lotsatuta, iñongo leiaketean tarteko izateari uko egin neutsan.

Artzaiña une batez isildu zan, maitasunak eraginda txakurra gogoan ebala, urrean, eta izan be, onek Txolo'rekiko neban ederrespena geitu eustan. Bizitzeak irakatsi daust, abereak maite izaten dauzan gizasemea, geienetan arteza izan oi dala.

Arrezkero, bera errira joanda zelan erabilli artaldea, Txolo'ren buruaustea biurtu zan. Txau ilda ta urrengo egunean ardiak jatsita, etxera abiatu baiño len, une batez ezpaitsu geratu zan zer egin ez ekiala. Artaldea eskortatik urten zanean, onen atzetik oldartu nintzan, eta batuta, zuzenbide egokirantza eroaten asten nintzala ikusirik, Txolo zur eta lur geratu zan, eta orduan,

–Ederto, Kurruku –esan eustan–, ikusi zindudazanetik bertatik, edozelako

oillarra ez zintzazala oartu nintzan, eta zuzen nengoala erakutsi daustazu gaur. Oillar bat nire artaldea zuzentzeko gai izango litzakela, pentsau be...!

Eta aurpegiko itxura larria ezabatzen yakola, aga ta suillak sorbaldean jarrita, etxerako bidean ostendu zan, ni ataldearen zaindari itzita. Arratsaldean oi baiño goizago biurtu zan Txolo, artaldea zelan oituko zan egiztatzeko, baiña nire ardurapean ondo egoala ikusirik, urreratu yatan, eta,

–Izan be, Kurruku –esan eustan–, iñork ez leuke siñistuko Bizkarluzea'ko artaldea oillar baten agintzapean alatu leitekela, eta bai ondo gero...!

Laster zabaldu eban Txolo'k inguruetan, bere oillarraren gaitasuna artaldea erabilteko, eta aldameneko artzaiñak sarri askotan etozan ni ikustearren, eta izan be, abo-zabalik begizatzen eben artaldea zelan nerabillen, eta bein baten, uri andi samar bateko izparkarien ikerraldia izan neban. Onen ondorioz, urrengo egunean nire ekintza arrigarriak egunkari ospetsu baten agertu ei'ziran.

Bajoiazan egunak aurrera, artzaintza-lanetan arrakasta andiaz niarduela. Bein baten, baiña, galtzori gorrian ikusi neban nire burua, eta mirari batez ozta-ozta bizirik urten nintzan. Ona emen jazo yatana:

Beiñola, arri baten gaiñetik artaldea zaintzen nebala, ezustean, atx batetik azeri baten soin gorritzta, luzanga, iradi baten zear artalderantza abiatu zan. Zeozer aldentuta egoan arkazte bat ikustean, oneganantza jo eban. Artaldea ez zan oartu oraindiño azeriaren urretasunaz, eta bake osoan bazkatzen ziar-  
duan. Orduan nire betekizuna argi-argi ikusirik, eta barrukoari jarraituz, nengoan arritik didar ozena lau aizeetara jaurti neban. Nire aldarria entzutean, azeria gelditu, eta jarraian, nigana oldartu zan gero ta ariñago. Orduko, baiña, egitekoa ondo ausnartu izan neban, eta asmoa egi biurtzeko gertatu nintzan.

Arrapalada baten, noiz ariñeketan noiz erdizka egan egiñez, andik ez urrun ikusten zan urki mardo baterantz jo neban, atzetik tximista lakoa azeriak erraikidala, eta aalegin itzelaz azeria enborreraiño eldu zanean, lenengo adarrean kokatuta nengoan. Azeriak igolari yaioak dira, eta bereiztasun ori ustiatzearen, azeria urretetik etorkidala, adarrik-adar gora ta gora niñoian nire asmoa aurrera eroatearren. Atzaparrak enborrean untzatuz, azeriak aalik ariñen jazarten ninduan, nik adarrik-adar zapart egiten nebala. Pizti aren begiek suzkoak zirudien, eta musturra miazkatuz, gero ta urbillago etorkidan.

Noizbait, goreneko adarrera eldu, eta onen muturrean kokatu nintzan azeriaren begira. Orduan, aren aztapean adarra makurtu edo utzaitu zan, aren gaiñean kulunkatzen nintzala. Ur egoanean, azeria unetxu batez gelditu zan, so gosetiakaz begizatzen ninduala, eta gero, ardurarik andienaz, adarra estua zan-eta, urreratu yatan aurreko atzapar bat luzatuz ni arrapatzeko asmoz. Une aretan bertan, karraska biziaz adarra autsi egin zan.

Egoak eragiñez, lurreratu nintzan bigun-bigun, azeriak enbor-ondoko arri baten gaiñean plaust! egiten ebanean. Azeria une batez zorabioturik, jauskerea amabost metrokoa izan zan-eta, noizbait errenka egiñez ostendu zan. Bere ibillereaz agiri zan atzeko anka bat autsi izan yakola. Azeri gaixo arek uste izan eban Plorentzi edozein oillar zala... eta uts-egite onek erren biurtu eban betirako. Ain zuzen be, iñork ez eban nire ekintzea ikusi, eta augaitik egunkariak ez leukie jazorikoa aizatuko, baiña olan eta guzti be, nire baitan poztasuna gaiñez yabildan, oillokideen eraille amorratu bateri merezitakoa emon izateagaitik.

Andik astebete bi-edo, arrastian oi eban lez Txolo sarobera biurtzen zala, eskutik dingilizka azeri bat ekarren. Poz-pozik etorren, piztiaren ordaiñez udalak emongo leuskion sariagaitik, urrean, baita zizpa barik azeri bat arrapatzeko gai izan zalako be. Sarobera eldutakoan, arrapagaia lurrean itzita, auxe esan eustan:

–Begira, Kurruku, zelako piztia il dodan, eta ain zuzen be, makillaren bidez soillik. Errekagane'ko biurgunea igaro baiño ez, azeri au bidean zear errenka joiala ikusi, aida baten oldartu, eta makillakada itzela buruan jota, emen daukazu. Errian sortuko diran autuak, Txolo'k bere makilleaz azeri bat il dauala jakin dagienean...!

Eta bere buruaz poz-pozik barre-santzoka asi zan. Edozelan be, makilla bat az azeri bat iltea, anka-motz edo erren izanik be, ez da gaberdiko auntsaren estula, baiña nire uste apalez, bizi-bizirik eta osasuntsu aurkitzen dan azeri bat erren biurtzea, askozaz goragarriagoa da. Orraitiño, gero jakingo nebenez, egindakoaren ospe guztia Txolo'rentzat izan zan, baiña zuen zerbitzari au andinai ez dan ezkeru, artzaiñaren arrakastaz poztu nintzan nirea izan bai'litzan.

Udea aurreratu-ala, beroa anditzen zan, eta bein baten, Txolo'k Artzain zaarrari ta Txoria'ri dei egin eutsen ardien ule-mozketea egiteko lagundu egioen. Andik egun batzutara, Artzain zaarra ta Txoria gure sarobean azaldu ziran artule-mozketea egiteko. Artzain zaarra irurogeitsu urteko lagun begiko ta ikasia zan, gauzak egin aurretik ondo azterten ebazanetakoa. Artzain au itz urriko ta arteza zan ezkeru, inguru areitan oso ederretsia zan. Itxuraz lerdan eta argala zan, eta zer esanik ez bere eginkizuna ondo beteten ekiana zan. Txoria, ostera, berba-lapiko itzela zan, eta berak esana egi bakartzat artu bear. Indartsu ta malgua zan, eta arinlarizat Bizkarrondo'ko barrutian entzute andikoa.

Artzain-zarra ta Txoria'ren sarobeak geureatik alde banatan egozan, eta ordu-erdiko bitartera inguru. Artzain biok ez eben beste egitekorik artzaintza baiño, eta baserriko lanetan jarduten ez eben ezkeru, egun osoan sarobe-ingu-

rutik ebiltzan artaldeari soil-soillik emonak. Augaitik euren artaldeak geurea baiño andiagoak ziran, eta gaztaiak sarobean bertan egiten eta keatzen ebezan.

Goiz baten ba, etorri ziran alboko artzain oneik, eta bertanbera Txolo'rekin lanari ekin eutsoen. Txolo'k esparrutik ardiak banan-banan atara, eta etzanda jarrita, beste biok moztailu banaz orniduta, ardiari alde bateko ulea moztuten eutsoen, eta gero itzulita, beste alderdikoa. Ardi gaixoeak lumaturiko oillasko baten itxurea artzen eben, eta beeka bizian urruntzen ziran ulertu eziñik gertatu izan yakena. Izan be, nekez aurkitu daiteke ardia baiño abere iñuzenteagorik.

Mozketeak egun bi iraun eban, eta bigarreneko illuntzean, eginkizuna amaitu ostein, Txolo'k atondutako baba-lapikokoaz eta au ardao gorriaz ondo bustita, euren biziko aparria izan eban. Ain zuzen be, babai urdail-beerako bidean ondo laguntzeko, ez da gauza obarik ardao baiño, eta lapikotzarra ta zatoa amaitu arte, gure artzaiñek ez eben atsedetik artu. Gero, zigarro bana ezpanetan, ipuiñak alkarri esaten asi ziran. Artzain zaarra asko ikusi ta entzuna zan, eta alako baten, gaztaroan ezaguturiko arinlari edo korrikalari baten ekintza arrigarriak edestu ebazan. Amaitu baiño ez, Txoria'k auxe bota eutsan:

–Zuek beti antxiña bateko ekintzak onenetzat dozuez, eta gaurkoak eze-rezkerizat, baiña oraingo arinlariak lengoak baiño askozaz obeak dirala edozein postura egingo neuke. Uste al-dozu lengo artzaiñak munduko onenak izan dirala irusteko gerturik nozula-edo...?

Jarraian, Artzain-zaarra ta Txoria'ren artean eztabaida sutua sortu zan. Izan be, Txolo'k erretirako ekarritako ardao ona ta ugariari egotzi bear yako, eta artzaiñen arteko giro sutua gora ta gora igoten zan. Eztabaida luzetxu baten ondoren, eta amaikagarrenez zatotik txurrit egiñik, esku-gibelaz ezpanak txukaturik, artzain gazteak eupada auxe jaurti eban:

–Edozeiñeri jokaturiko neuskio baietz ni ariñago, bost bidar Bizkarluzea mugatzen dabean atx bien artekoaren joan-etorria egin.

Bizkarluzea mugatzen eben atx bien artekoa kilometro batekoa izanik bost bidar joan-etorria egitea, beraz, amar kilometroko leiaketea zan. Artzain zaarrak eta Txolo'k ez eutsoen erantzunik emon Txoria'ren erronkeari, eta zigarroari must egiñez isillik zirauen. Jaurtitako eupadeak erantzunik ez ebalatzean, Txoria'k Txolo'ri,

–Aizu, lagun –esan eutsan–, zu onenatariko arinlarizat zaitue barruti onetan. Zer deritxazu bosteun ogerlekoko postorea egiteari, ia nor lenengoa izan...?

Une batez, Txolo'k isillik iraun eban, eta

–Amabost urte lenago izan ba'litz –erantzun eutsan–, orduan zure erron-

kea onartu neuke, baiña orain berrogei urtekoa izanik, eta zu ostera, ogei ta bostekoa...

–Ez niri esan gero, Txolo andia Txoria'ren bildur dala...

Nire ugazabak ez eutsan erantzunik emon, eta Txoria'k bere arrandikeriari jarraitu eutsan. Alako baten, gaztearen arrokeriaz ase, Artzain zaarrak auxe esan eutsan:

–Diñozuzanak egiak izango dira, urrean, baiña bost aldiz atx bien artekoaren joan-etorria egiñez gaiñera, beste joan-etorri bi suil bete bi esne sorbaldaren gaiñean eroatekotan, Txolo'k baietz irabaziko leukela egingo neuke...

–Ken ortik –eten egin eutsan Txoria'k–, burutik eginda ete zagoz...? Ori marraskillo ta erbi arteko leiaketea izango litzake.

–Alan eta guzti be –Artzain zaarrak ostera–, bosteun ogerleko Txolo'ren alde jokatuko neukez.

Barre-santzo itzela bota eban Txoria'k, eta jarraian,

–Iñuzente ori...!

Ordurarte isillik, baiña asarrez irakiten iraun izan eban Txolo'k, auxe jaurti eutsan:

–Eta nik beste ainbeste jokatuko neuke nire alde.

Berandu samar zan orduko, eta gaiñera, zatoa utsik egoan ezkerro, Artzain zaarra'k eta Txoria'k, euren sarobeetara biurtzen erabagi eben, eta urrengo Igandeko meza-ostean, leiaketearen baldintzak zeztuko litzakezala.

Noizbait, urrengo astean, leiaketearen gora-beerak barruti aretan zabaldu ziran, eta oneixek izan be: illeko laugarren Igandean, ospatuko litzakela. Leikide biok, Bizkarluzea'ko zelaian bost joan-etorriak eginda gero, beste bi sorbaldan jarritako agatik suil bi eskegita egingo leukiezala. Ibiltearen bilinbolakak isuri ez zeiten, esnearen orde, suil bakotxean amar kilo ondar sartuko litzakez, eta bietako suil bat jausi ekionari, leiaketea galduko leuke.

Aspaldi aretan bala-bala ibilli zan, Txoria'k bere biziko iñarkunak ondarez zamaturiko suillakaz egiten ebazala. Ekintza onetan suillak jausi ez zeitezana, ezin ariñeketan ibilli, taka-taka leunaz baiño. Txolo'k, ostera, ogetak urte era onetan egunoro joian ezkerro, ez eban iñarkun orrean bearrik, baiña bai arinketearena, eta beraz, arratsaldeetan oi baiño goizago etorren, eta jaisketearen aurretik, iñarkunari bost aldiz emotsan atxen artekoa egiñez. Eta edu onetan, leiaketearen eguna etorri zan.

Itzela benetan, illeko azken Igande aretan Bizkarluzea'n batu zan jendetza. Erri bertatik eta inguruetatik lagun asko ikus-miñaz jota, etorria zan. Leiaketearen epaikaria erriko alkatea izateko zan, alboan artzain bi maikide izanik. Atx bakotxaren ondoan, taket bana sartuta egoan ibiltekoa mugatzeko.

Ziziriko baten eztanda entzun baiño ez, leiaketea asiko litzake, baiña onen aurretik suillen ondar-pisua egiztatzeko zan, eta onen bitartean demak edo posturak aldarrikatzen zirala, aga ta suillen zozketea eginda gero, arinlariak leiaketea asteko gertatu ziran.

Nire guraria Txolo'ren alde jarri neban, baiña bildurrak jota nengoan, posturarik geienek Txoria irabazletzat emoten eben-eta. Alako baten, zizirikoaren eztanda aditu zan, eta leikideek arinketea asi eben. Txolo'ren aurpegia benazkoa zan, eta bere barruan bilduta. Txoria'rena, ostera, irribarre arroaz argituta ikusten zan, eta ezpaibarik bere burua garailletzat eban. Txoria Txolo baiño garaiagoa zan, eta aren ibillerea gaztetasunaren jasekoa. Txolo, ostera, txikiagoa baiña bular zabalekoa, egunoro sarobetik etxerako joan-etorri aldapatsuak eraginda. Zoritxarrez, baiña, leiaketea zabalune leuntsu baten ospatzen zan, eta onek Txoria'ren aukerea anditzen eban, gazteagoa izanez gaiñera, luzeagoa zalako. Txolo'ren aukera bakarra, beraz, suillen lorketan egoan, baiña...

Asikereatik agiri zan Txoria'ren gaitasuna, bere anka luzeakaz aurea artu ebanean, Txolo gero ta atzeratuago geratzen zala. Edu onetan, leikide bion tartea anditzen zan, eta artzain gazteak boskarren joan-etorria amaitu ebaneke, Txolo bosteun metroko atzerapenez etorren. Astirik galtzeke, Txoria'k aga ta suillak sorbaldan jarrita, leiaketearen bigarren ekitaldia beteteko gertatu zan. Orain, baiña, ezin ariñeketan joan, taka-taka baiño. Artzain gazteak ekitaldi au asi ebanean, bere aurpegiak irabazlearen irribarrea erakusten eban, ikusleen didar eta adore-oiuen artean garaille sentitzen zala.

Txolo'k, baiña, aga ta suillak leporatu ebanean, gauzak aldatu zeitekezala iruditu yatan. Ekintza onetan maisu izanik, bazirudian ibilli baiño zalaian zear lerratzen zala. Agiri zan orain Txolo'ren gaitasuna erabillen jas eta arintasunean. Eta olan etenbarik bien artekoa gitxiten zala, lenengo joan-etorria amaitu ebanean, Txoria'k nekatuta emoten eban. Bigarrena ta azkena asi ebanean, Txolo ur samar etorkiola ikusirik, garaillearen irribarrea arrenkurazko keiñua biurtzen asi yakon. Izan be, Txolo'ren ibillerea obatzen joian eta asieran baizen atsedendua zirudian. Lagunen adore-didarek inguratzen ebela, Txoria'ren jazarpenari urrats nasaisuz emon eutsan, eta azken etorrerea oztaozta erditik joiala, Txolo'k Txoria arrapatu eban, eta ibillera nasaiaz el-marrea zapaldu, askoren arritasunaz eta adiskideen poztasunaz. Atzetik eta lerrenak eginda, izerdi patsetan, artzain gaztea arnas-estuka eldu zan, lengo arrokeria lotsa biurtuta.

Artzain zaarra Txolo'ri urreratu yakon, eta zorionik sutsuena emon eutsan, auxe iñotsala:

–Ederto, Txolo, zuk burua lengo lepotik, eta gazte orrek anak arin eta

burua ariñago. Orren eperdiak oraindiño praka asko ezagutu bear izango dauz buruak zentzuna irabazi arte.

Jarraian, txistu ta tun-tunaz oiko erromeria ospatu zan illuntzerarte, gazte-en alaitasunaz eta zaarren autuaz. Gau aretan ardiak esparruan jatsita, Txolo oeratzen zanean, auxe esan eustan:

–Ederra egin yautsaguk Txoria'ri, eta aspaldi luze batez, ez yok iñongo erronkarik botako. Bai, Kurruku, ori betiko ipuiña dok: gazteek ez yoek beste-akandik ikasiko, eurokan jasanez baiño. Dana-dala, Kurruku, bosteun ogerleko eder irabazi yoadaz, eta ori ez dok txantxetako gauza.

Gurenda onegaitik, aspaldi batez Txolo poz-pozik ikusi neban, eta ain zuzen be, ez zan gitxiagorako: Bere buruarekiko poztasunaz gaiñera, bosteun ogerleko irabazi izan eutsazan Txoria'ri, artzain gazte arro ta buruariñari, eta onen eupada ganorabakoak aspaldi luze batez ez litzakez entzungo.

Bajoian aurrera udea, eta amaitu-agiñean zala, artaldeari arkarea etorri yakon. Orduan ernalkuntzarako Txolo'k adari eder bat ekarri eban. Ardikariak kokolo itzelak izango dira beti, baiña Txolo'k ekarritako ardien nagusi arek, ergeltasun-marra guztiak birrintzen ebazan.

Dalako adariak artalde guztia bere jabetasuna zala uste izaten eban, eta ardirik ez zan guztiari, zoro antzera erasoten eutsan. Ezin egikean jasan, ardiak bildu, eta esparrura sartu nengiazan. Ni ikusi baiño ez, tximista baten antzera aurrean nindarabilen, demoniñoa bera bai'nintzan. Au dala-ta, beti ernai batetik bestera niñoan, aren eraso itsu ta amorratuak garaiz uxatzearren. Ainbeste erasoakaitik gogait eraginda, egoera aspergarri areri zelan edo alan amaia emoten erabagi neban, eta izan be, luzaro barik eretia aurkeztu yatan. Ardiak esparrura sartuta gero arresiaren ondoan nengoan bein baten, adari madarikatu arek, zezen asarratuaren antzera, tximista legez eraso eustan. Ez ikusiarena egin neban, eta adar biurrikatuakaz ni birrindu-agiñean zala, ikoti arin bataz arresi-gaiñean kokatu nintzan. Aren talkada izugarriak danbada itzelaren antzera ots-egin eban, eta une batez konortea galduta, adari iñuzentea etzanda geratu zan. Jote itzela izan zan, eta arresiak ozta-ozta zutunik iraun aal izan eban.

Adaria, baiña, bere senetara laster etorri zan, eta jagirik, jazo izan yakona ulertu ezin, alde egin eban. Bitartea naikoa andia zala ikusi nebanean, arresitik jatsita, kukurruku erronkaria jaurti neutsan. Adaria biurtu zan, eta arrapalada zoroan, barrero eraso eustan. Nik, baiña, lengoa egin, eta iñuzente arek len baiño indartsuago arresiari jo eutsan bigarrenez, zulo bat egiteko zorian iza-nik. Oraingo onetan, adari denganiñoak luzarago iraun eban konorte barik, eta noizbait jagita, ibillera kolokaz urrundu zan, nire bigarren eupadeari jaramon egiteke.

Badirudi, arresi-aurkako jote areik adimena zeozter argitu eutsoela, eta arrezkero ez eustan iñongo jaramonik egin, arro-arro aintzakotzat artzen ez niduala. Olan ba, galduriko bakea birrirabazita, artaldea oi neban lez zaindu ta zuzendu aal izan neban. Andik egun batzutara, Txolo'k adaria beste iñora eroan eban.

Adaria ostendu ta bereala, udagoia etorri zan, eta onezaz batera eguraldia aldatu zan nabariki. Orduko, Txolo'k txakur txiki zoli bat ekarri, eta nire irakaskintzapean laster ikasi eban bere eginkizuna.

Arrezkero, bearrezkoa ez izanik, eta etorteko zan eguraldiaren bildurrez, ardi-zaintzari uko egitea erabagi neban, eta bein baten, Bizkarluzea'ko leku garaietatik urrunduz, bazter epelagoen billa abiatu nintzan, artaldeak goiko larradiak laga egiazan baiño len.

Oarpen bakan batek sakalderantza eragiten ninduan, eta konturatu barik, nire jaioterriari astiro baiña etenbarik urreratzen nintzakion. Urrezko margopean zabaldia eder-ederra agertzen yatan, bizitzea moteltzen asten bazan be. Udagoiko kadentasun zoragarriak txoko guztiak edertzen ebazan, eta lillura arek kutsututa, neu be iradu barik ibilli nenbillen aroaren sorgindurak erakarrita. Janaria lortzea erraza yatan, nonai zenbat-gura zizara mardo nire aukerean egozalako. Olan ba, astiro-astiro eguzkiaren bideari nerraikion ortzi-zearko uztaian. Noizean bein gelditzen nintzan, eta zergaitia jakin barik, poztasun utsaz kukurruku adoretuak lau aizeetara jaurtiten nebazan.

Bein, bidegurutz baten auxe irakurri neban: "Ibargane 3 km". Barrutia guztiz ederra iruditu yatan, eta beraz, dalako Ibargane errixka, urretik ezagutzea erabagi neban. Olan ba, iragarkiaren zuzenbidea artuta, luzaro barik erri-txu edo obeto esateko baserri batera eldu nintzan, eta onek erakarrita, toki eder aretan aspalditxu bat emotea ebatzi neban.

Zortzi bat etxe jagiten ziran eparantza zabal baten inguruan, eta mendi bateko egian sakabanatuta, ogetak basetxe eder lur ugariakaz orniduta ikusten ziran. Lekuari garbitasuna ta baserri-usain jatorra eriozan, toki aretako agiriena bakea izanik. Gero jakingo nebanez, Ibargane berez ez zan iñongo erririk, beean, ibarrean kokatuta egoan erri andi samar baten auzunea baiño. Ez eban, beraz, udaletxerik, baiña bai Erriko Taberna. Onen atadian, andik lau kilometrorra egoan erriko udalaren agiriak eta oarrak, oltza baten josten ziran. Tabernaren aurre-aurrean, eta enparantzaz bestaldean, eleizatxu txairo, polita kokatzen zan, eta baserri aretako zaindaria Erroka Deuna izanik, aldare nagusiaren erdian, oiko txakurra alboan ebal, santu begiko orren irudia ikusten zan. Eleizearen edo obeto esateko, baseleizearen zaintza, illero etxe bateri etorkion, eta ogetak izanik auzune aretan, urte biro illabete batez sendi bakotxari egokion zaintza ori. Au dala-ta, baseleizea txukun-txukun ikusten zan beti, danek lei bizian ziarduela aalik garbien iraun-erazoteko.

Ibargane'n ez egoan abaderik, eta augaitik, erriko lekaidetxetik jaiegun eta

igandeetan, mezea emoteko praille bat etorren, eta izan be, Aita Errojelio eritxan lekaide zintzo ta sutua. Itzi dagiodan orain, baiña, arazo oneri, eta esan dagidan nire biziareari buruz zeozer.

Auzune aretako oillotarrak jas eta enda onekoak ziran, eta barkatu egistazue arrokeri baderitxazue, baiña esan bearrean nozue, Aldekone'ko Plorentzi drogosoaren leiñukoa zirala igarten yakiela, eta ango erritarrek asierean jaramon gitxi niri egin arren, oilloek, ostera, begirunerik andienaz erabilli ninduen, eta sarri askotan arein begi gozo, maitekorrak nigan josita ikusten nebazan. Ni, baiña, On Juan izatetik beti oso urrun ibilli natzaizuenetz, eta bestetik, Ibargane'ra ikerle edo txangolaritzat etorria nintzan ezker, ez neban nire endakoen bakea autsi gura, eta arrotz adeitsu bateri dagokionez, ez neban nire izen ona maitekeritan lorrindu nai izan, eta bein baiño sarriago oillarkideen begikada arro ta irrilariak nigan josita ikusi arren, ez neutsen merezitakoa emon, nire buruarekin burruka itzelak jasan bear izan banebazan be. Eta gaur, urte batzuk igarota gero, zerbaitek badiraust ondo jokatu nebala nire bidezko asarrea meperatuz, eta gorde neban begirunea, bere burua ederresten dakian arrotz zangar bateri dagokiona da.

Olan ba, nirekiko ta lagun-urkoarekiko bake osoan bizi izaten nintzala, baserri aretako zertzelada batzuk ikasten asi nintzan. Esana dan lez, Ibargane auzoak ogetak basetxe ebazan, danek abelazkuntza ta lurgintzari emonda. Toki baketsu aretan ez zan zarata andirik entzuten, bidean gora joian zama-berebil edo kamioiren bat izan ezik. Jaiegun gutietan Erroka Deuna'ren baseleizean ospatzen zan meza bakarrera ez eban iñortxuk be utsik egiten, geisotasun edo bearrizan andi bategaitik izan ezik.

Gauza batek, baiña, asieratik arritu ninduan, eta auxe alegia: Erroka Deuna'ren baseleizeak kanpai edo joalerik izan ez egian. Aspaldian baei'zan brontzezko eder-ederra, baiña bein baten, ijito-talde bat igaro zan, eta onen nagusiak Ibargane'ko barazkien merezitako ospe andiak erakarrita, aipu andi ori benetakoa zan ala ez, egiztatzea erabagi eban. Egindako batuketagaitik, eta kontuan arturik, nagusi ori abosabai bikaiñekoa zala, badirudi Ibargane'ko barazkiek mundu zabalean lortutako ospe andia ondo oiñarrituta egoala.

Ijitoen ederrespena, baiña, ez zan onezaz amaitu. Zoritzarrez, eleizatxuko joaleak illuntzeko deia jo ebanean, doiñuaren edertasunak lilluratuta, gain-gaiñeko musikalaria zan ijitoen nagusiak, Ibargane'ko bitxi arek benetako joaletegia merezi ebala erabagi eban, eta goizaldea barik, iñork oartu baiño len, joalea "bidebatez" lurrundu ei'zan. Alperrik arrezkeroko aalegin andiak kanpaia jatorrizko lekura biurtu zeiten. Bazirudian lur-ikara batek ijitoak eta joalea irunsi ebazala.

Astero erriko lekaidetxetik etorren Aita Errojelio, baiña, ez zan bereala kikiltzen diran orreitarikoa, eta Ibargane'ko eleiztarren onerako, goi-arnas santuak eraginda, sarrerako ate-gaiñean, lekaidetxetik ekarritako sartagin itzela eskegi eban. Dalako sartagin agurgarriak baeban eperdian zulo andi bat eta naikoa ugerra, baiña ogei urtez konbentuko arrautz-opil gozo-gozoak egiten iraunda gero, bazan zeozer Jaunaren etxerako deia barreiatzeko, eta izan be, gure Aita Errojelio'k bere gorostizko makillaz dingilizkia astintzen ebanean, bazeleizarako bidea artu ez egianik ez zan iñor.

Aita Errojelio'ren eritxiz, oraingo sasi-joaleak ez dautso brontzezko lengoari ezelan be zor. Ez dakit au egia ete dan, ala gure praillearen itsukeria, baiña Ibargane'n baserriar askok lengoari uts emoten dautsoe. Dana-dala oraingo dingilizkiaren bikaintasunaren barriak ijitoen entzumeneraiño ba'letoz, bildur naz len lez "bidebatez" sartagiñaren billa, gau baten Ibargane barriro ikertzera biurtuko ez ete litzakezan.

Ibargane'ra eldu ta urrengo Igandeko eguberdian, enparantzan zear ibilli nenbillela, alako baten zarata gortugarriak ia arnas barik itzi ninduan. Laster konturatu nintzan eleizpetik etorrela, eta ara joanda, praille edo lekaide indartsu batek makilkada bizitan eskegitako sartagiñari erasoten eutsala ikusi neban. Lekaidea goibe ertaiñekoa zan, baiña zabala ta indartsua. Erabillen txapelaren pean, ule baltz ugariak igarten yakozan. Aurpegi biribillean, begi illun sarkorrek dizdir egiten eben, eta aboaren itxuratik naimen indartsukoa zala agiri zan. Bazirudian sartagiñaren durundak eleizpeko teillatua aidean zear jaurti egingo leukela, baiña arrigarria bazan be, Erroka Deuna'ren baseleizeak ereti aretan ez eban teilla bat bera be galdu.

Asikerean uste izan neban, etxeren baten sortutako sua-edo amatatzeko galtzori-deia izango ez ete, baiña gero, mezatarako aldarria zala igarri neban, etxe guztietatik jai-soiñekoz jantziriko eleiztarrak baseleizerantz etozala ikustean. Orduan, Aita Errojelio joteari itzita, sakristegira sartu, eta jendea aulkietan egokitu zan. Ikusgurak bultzatuta, sartzetik ez neban ezker, inguruak aztertu ondoren leiarbako leiatilla baten kokatu nintzan, jazoteko zanaren begira. Andik laster, sakristegiko atea edegi, eta meza-mutil bik aurreratuta, Aita Errojelio meza esatera gertatu zan, eleiztarrek abesti oneri emoten eutsoela:

Alkartu danok eta kanta

Jauna geugaz badaukagu-ta...

Alako baten, Aita Errojelio'k abestiari eten egin eutsan, eta begiai asarrezko txipartak eriezala auxe esan eban:

-Zer, gaurko otzak eztarria elbarritu dautsue-ala...? Abestu dagigun barriro be, bear dan adoreaz.



Ibargane'ko eleiztarrek didar bizitan birrabestu eben lengo salmoa, eta izan be, bazirudian lur-ikara batek eleizea astintzen ebala. Aldare-gaiñean eskegita egoan baseleizearen bigarren eunurtea ospatzeko erosia zan argi dilindaria, zabuka asi zan, eta ari begira geratu nintzan noiz jausiko litzaken sabaia ta guzti. Zorionez, baiña, ez zan kalterik jazo, eta mezea aurrera joan zan, eleiztarrek meza-emoilleari oi bizitan erantzuten eutsoela. Alako baten, baiña, meza-mutiko bateri, praka-sakelako zulo batetik, antza, altzairuzko bostarri edo kanika bat jausi yakon, eta soru-gaiñetik txirrindolaka joan zan aldare-aurreko iru maillatan zear ikotika. Jendeak, mutiko barrabasek batez be, nekez egikien barre-gurea ito, eta irri batzuk aurreko aulkietatik sortu ziran. Aita Errojelio'k orduan meza-mutiko errudunari kozkorreko itzela emon eutsan, eta beste aldean eukanari barre-gurea kendu ekion beste andiago bat. Bakea birjarrita, mezeak jarraitu eban.

Barri Ona irakurrita gero, Aita Errojelio'k urruma egin ondoren, sermoiari asiera emon eutsan, irakurritakoaren mamiña azaltzearren. Eleiztarren erestaldea, erritar guztien oiuen laguntzaz zaratatsua ba'zan, Aita Errojelio'ren aldare-aurretik botaten ebazan orru ta trumoiak ez ziran makalagoak, eta ain zuzen be, makilkaturiko sartagiñari ez eutsan zor.

Ordurarte oitua nintzan On Markos'en berba gozo ta neurritsuari, Goikolanda'ko bere ardiai Jaungoikoaren maitasunaz eta giristiñauk alkarri gorde bear eutsoen begirunea, laguntza ta maitasuna, aldarrikatuz. Aita Errojeliok, ostera, abots durundutsuz Ibargane'ko artaldea Jaungoikoaren asarrez eta inpernuko suaz zemaitzen eban, bide zuzenetik ez ibiltekotan. Amabi miñutuz-edo jardun eban Aita Errojelio'k, pekatuaren ondore izugarriak bere eleiztarrai azalduz. Oneik, baiña, ez zirudien ereti aretan, bildur edo arrenkura andiz jota, gizaki geienek euren buruak pekatutik jareitzat joten dabez-eta. Pekatuaren errua beti lagun-urkoari egotzi bear yako.

Sermoi amaituta, eta mezeak jarraitzen ebala, adiñeko iru baserritar, bakotxak txilindun erratillua eroiala, ibillera astirotsu ta benatsuz, diru-batzea asi eben. Aita Errojelio'ren didarren ostean, leku aretako bake ta isillean, iru txilin arein doiñu gozoak, illuntzeko gentzan aditu daitekezan urretxindorren txorrotxioak zirudien. Astiro ta begirunez joiazan iru baserritar areik, errikideek bearrezko astia izan egien praken edo gonon sakonenean bearrezko txanpona idoroteko.

Geroago jakin nebanez, lenengo erratilluan batzen zan dirua, baseleizea txukun eta egoki gordeteko bear izaten ziran gaiak erosteko zan. Bigarrena, Erroka Deuna'ren jaiak duintasunaz ospatzeko, eta irugarrenekoa Aita Errojelio'ren lekaidetxerako.

Egun aretako bilduma, txanpon ugari ta diru-txartel gitxikoa izan zan. Diru geien erakusten ebana bigarren erratillua zan, Erroka Deuna'ren eguna bear dan duintasunaz ospatzekoarena. Izan be, emoteko orduan bazirudian sakelaren epeltasun gozoa galtzeko, dirua alperra azaltzen zala, edo-ta lapa baten eraspasun-indarraz urteteko jarkiten zala. Dana-dala, autortzeko bearrean nozue, iru txiliñen eresi arteko ibilkundea oso atsegiña azaltzen zala, eta amaitu zanean, irrika bizia oartu neban barriro entzuteko.

Meza-ostean, Aita Errojelio'k eleizpean baserritar-talde batekin autu nasaiari emon eutsan otordurarte, eta gero, aurretik izendaturiko Ibargane'ko etxe batera bazkaria izateko abiatu zan. Jaiegun bakotxean, lekaidea etxe batera deitua zan, eta egiari zor yakon begiruneagaitik, autortu bear dot emen, egokion etxean bazkari on-ona Aita Errojelio'ren begira egon oi zala. Bazkal-ostean, gorostizko makillea eskuan artuta, lekaidetxera biurtzen zan.

Aldiaren bidean, Ibargane'ri egokion gauza asko ikasi neban, baiña ezin nengikean ningandik kendu, iñork jaramon egin ez egidalaren sentipen mingotsa. Batetik bestera niñean, nire igarroteak iñongo ederrespenik sortzen ez ebala, eta edozeiñek oartu dagike, neu lako oillar ospetsu batentzat, ori mingarria dala. Guzurra badirudi be, leku aretara nire entzutearen dizdirak ez eban oraindiño biderik aurkitu, eta Ibargane'ko jende gaixoek benetako oillar bat zelakoa zan ez eben ezagutzen. Oilloek, ostera, gure endako oarmen biziak orniduta, begirunerik andiena erakusten eusten, eta joan neinten joan neintenetik, ederrespenik zintzoenaz begiztaten ninduen. Ni, baiña, gizakien oneritxiari oitua izanik, ezin nengikean arein ardura-eza jasan.

Bein baten, baiña, jendea meza-entzuteetik urteten zala, tximista lakoa burutapen bat otu yatan, eta bigarrenez olduztu barik, une aretan enparantzan zear sakabanatzeko zorian zan ostearen aurrean, Aldekone'n eta Goikolanda'n oi neban lez, aureskuia dantzan egiten asi nintzan. Oiñesturiak jota bai'litzan, jendea gelditu, eta nire inguruan jarrita, abo-zabalik dantza-ekitaldiari jarraitu eutsan. Amaitu nebanean, oi ta esku-zartada itzelak aditu ziran. Alako baten, oste-artetik andra baten berbak onetaraxe aditu ziran:

–Izango ete da Iñarratza'ko Aldekone'ko oillar ospetsua...? A lako oillarrik ez ei'da jaio oraindiño.

–Ene bada...?–eratsi eban beste etxeoandre batek-. Bai orixe, au Plorentzi oillar bardinbakoa dogu. Bein baten Aldekone'ra oillanda batzuen billa joan nintzan, eta orduan Plorentzi drogosoia ezagutu neban, eta izan be, orain konturatzen naz oillar au Plorentzi berbera dala.

Neuganako ederrespen onek, zapaltzen ninduen gogo illunak uxatu eustan, barriro be jendearen ederrespina irabaztean. Aspaldi luze batez aztuta

izan dan ertilari goren baten poz andia oartzen neban, jendeak oroimenean oraindiño nindaroala jakitean. Onen ostean, eta ango eritarrekin onezkoak egiñik, leku aretan jarraitzea erabagi neban, eta izan be, nireztat egotaldi zorionsua izan zan arrezkero asi yatan aspaldia, erritar guztien ederrespen eta begirunea nigan jarrita. Eta auzuneko giroaren aldakuntzea adierazoteko, ez dot besterik esan baiño, aurrerantzean jaiegunetako mezaren osteko aureskua amaituta, Aita Errojelio'rekin batera oiko etxera dei egiña nintzala, eta bazkaldu bitartean, Aldekone'n oi neban lez, maitik jausitako janari-apurrak garbitzen nebazala, eta edu onetan baserri aretako etxe guztietan oartu ziran, zelako jasekoa zan Plorentzi oillarra. Arratsaldean, Aita Errojelio'ri beeko bide-gurutzeraiño laguntzen neutsan, eta Ibargane'rakoan ostera, bidera urteten nintzakion, baseleizearaiño laguntzeko. Olan ba, merezi neban ederrespena irabazita, ni ta erritarren arteko bakea jarri zan guztien onerako.

Negua bajoian aurrera toki baketsu ta jator aretan, nire ospea gero ta zabalago egiten zala, eta bideetan zear niñoan guztien begiruneak jarraituta. Udabarria asteko garaian, aize zakarrak etorri yakuzan, eta onein ostean euri-jasa lodiak. Amaitu ziranean, Erroka Deuna'ren baseleizako teilla askok egan egiñik, barrukoa itogiñez bustita agertu zan. Onein artean, baiña, larriena, Erroka Deuna'ren txakur-gaiñean jausitako itogiña zan. Txakur zuri politaren burua musturretaraiño luzatzen yakon orban illun itsusi bataz zikinduta ikusten zan. Izan be, au dana eleiztarren errua zan. Aize zakarra ta euri-jasa baiño len, teillatua atonketa andiaren bearrean zan, baiña alpertu izan ziran, eta orain oraingoak.

Igande aretan, sartagiñari ekinda gero, Aita Errojelio baseleizara sartu zanean, zur eta lur geratu zan itogiñek sortutako kalteak ikustean. Erroka Deuna'ren txakurrari gertaturiko itsuskeria ikusi ebanean, baiña, praillearen naigabea itzela izan zan, eta une luze batez begiak orban aretatik kendu eziñik iraun eban, bere kautan auxe iñoala:

–Izan be, Satanas'en deabrukeri jasan-eziña da ori. Berak aizea sortu egin dau teillak erauzteko, eta gero doi-doi txakurraren gaiñean itogiña jausi-erazo, irudi santuak bere duintasuna galdu dagian...!

Otoi laburraren ostean, Aita Errojelio sakristegira sartu, eta bere aukeran beti eban arduradun edo mayordomoaren diru-kontuen liburua aztertu eban. Erroka Deuna'ren jaiak ospatzeko kontuak kopuru naikoa polita erakusten eban, baiña baseleizearen atonketak-eta egitekoarena, oso urria izanik, aize-uriek teillatu ta barruan egindako kalteen konpontzerik ez. Aita Errojelio, baiña, ez zan kikildu, eta bere jaseko bateri egokionez, egitekoa laster erabagi eban.

Igande aretako sermoia, ele-eder edo erretolikaren erdua izan zan. Barri Ona irakurrita gero, Aita Errojelio aldare-aurrean sermoia esateko jarri zanean, bazirudian bere aurpegiaren itxuraz, Goi-arnasaz jota aurkitzen zala. Oi baiño urruma zaratatsuagoa egiñik, onetaraxe asi zan:

–Eleiztar maite-maiteok...!

"Gaur gure biotza samiñez jota dago auzune maite onen eleizeari etorri yakozan kalteakaitik. Izan be, arerio gaiztoaren ekintza dogu Jaunaren leku santu onetan jazo dana. Jauretxe onen teillatua ondatu egin dausku aize zakarrak, eta au gitxi bai'litzan euri-jasa lodiak barrukoa itogiñez bete. Baiña arima sentikor bat geien mindu dagikena, gure Sandroke'ren (olan esaten eutsoen Erroka Deuna'ri Ibargane'n) txakurrari jazo yakona da.

Ona elduta, Aita Errojelio isildu zan, eta aldarerantz biurtuta atzamarraz txakurra erakutsirik, mintzo trumoitsuaz onetaraxe jarraitu eban:

"–Orra or Sandroke'ren aberentzako maitasuna adierazoten dauan txakur gaixo orren itxurea. Bere aurpegi errubakoa zikin agertzen da, iñongo obenik ez dauanak erri onen pekatuak bere gain artuz... Bai, onezkero arerio gaiztoak barre egingo dau, Sandroke'ren txakurrari jazotakoagaitik, irudi santu bateri egindako itsuskeria zero-aurkako iraiña da-ta...

Isildu egin zan barriro Aita Errojelio, bere barruan biltzeko, urrean, eta gero

"–Ondapena ikusi dodanean–jarraitu eban lekaideak-, nire buruari auxe esan dausat: "Ez larritu Errojelio, Ibargane'ko eleiztarrek eskuzabal emoniko diruaz sorturiko kalteak, txakurrarena batez be, laster atonduko dira, eta auzune onetako jendeek euren Jaungoikozaletasuna erakutsiko dabe... Eta nasaitasunezko oarpenaz sakristegira sartu naitzue diru-kontuen egoerea ikusteko, eta zer ikusi dot uste dozue...?"

Isillune luze samarra edatu zan, Aita Errojelio'ren begi salatariak eleiztarrakan kokatzen zirala, eta gero

–Zer ikusi dodala, uste dozue...? –jarraitu eban Aita Errojelio'k entzuleen begikada itaunkoiak beragan untzatuta ikustean –Ara ba... Sandroke'ren jaiak atontzeko diru-kopuruak ogerleko asko erakusten dauzala, baiña, eta au bai mingarria...! baseleizearen bearrianai aurre egiteko baserri onetan batzen dana, zazpi erreal baiño ez...! Uste al-dozue bidezkoa danik, gure Patroiaren jaiak ospatzeko, ziziriko-bolanderatan, ardaotan, soka-tiran, txinga-eroaten, dantzatan, txistu-ttuntunetan eta abar, ainbeste ogerleko erre, eta ostera, gure Sandroke'ren etxe au bear dan duintasunez iraun-erazoteko, zazpi erreal, zazpi baiño ez...!"

Ona elduta, Aita Errojelio'ren begiek eleiztarrakana zuzendu ziran bidez-

ko asarre-txipartak eriezala. Ezin entzule areik baiño isiltasun andiagorik. Zerbaitek adierazoten eutsen oraingo onetan sermolariak benetan ziarduala, eta Moises berberaren antzera jaurtiten eutsezan trumoi ta tximistak, merezita-koak zirala. Izan be, une aretan Iburgane'tarren adikunea sermolariaren ezpa-netatik dilindan egoan.

"-Jauna, Jauna...! -jarraitu eban Aita Errojelio'k- ez bialdu zure bidezko asarrea Iburgane'ko jendeeri, zer egin daben ez dakie-ta... Bai, pekatu andia egin dabe Sandroke'ren jaietarako ainbeste emonez, eta jauretxe au duintasunez atontzeko bearrezkoa dana ezer ez... Jokaera ori agirian ipinteko itzi egistazue adibide bat aurkeztu dagizuedan: ara... kir-kir baten adimenera ozta-ozta eltzen dan Plorentzi oillarraren jokabidea eredutzat artuko dot. Egazti iñuzente orrek Jaunaganako begirunez jota, jaiegunoroko meza-ostean auresku arrigarria dantzan egiten dasku gure Sandroke'ren goratarrez...!".

Onaño elduta, itzi egistazu irakurle maitia, Aita Errojelio'ren sermoiari eten dagiodan, neu lako oillar baten adimenari buruz esandakoa ezin dagikedalako onartu. Ni kir-kir batekin burua bat egin be...! Erretolikearen alorretatik dabizenek, gauzak indartzearren askotan lelokeri asko esan oi dabe, eta ereti onetan sermolariak eleizearen aldeko erretolikak eraginda, gauza ez-egokia esan eban, baiña bere elburua benetakoa zala kontuan arturik, biotz-biotzez barkatu egin neutsan. Onezaz gaiñera, Iburgane'n danok ekien zelako jas eta adimenekoa nintzan, eta prakerre ez nazan ezkeru, ekiodan barriri be Aita Errojelio'ren sermoiari.

"-Baiña Jauna -jarraitu eban gure prailleak-, ez jaurti zure bidezko asarrea eleiztar onein aurka, egindako zitalkeria, onezkeru garbitzeko gerturik dagoz-eta. Bai, euren damua adierazoteko, auxe erabagi dabe...: Sandroke'ren jaiak ospatzeko batu izan diran ogerleko ugariak, jauretxe onen teillatua atontzeko, eta txakurraren aurpegia txukuntzeko erabilliko dira, eta osteru, baseleiza onentzako batutako zazpi errealak, gure Patroiaren jaiak ospatzeko".

Ona elduta, isillune bat egin eban sermolariak, entzuleakan egindako zarrastadea egiztatzearren. Eta izan be, aurpegien itxurak euren damua erakusten eban. Ez dakit, baiña, benetako garbaiarena ete zan, ala Sandroke'ren jaiak itxarokien urritasunagaitik. Dana-dala Iburgane'tarren aurpegiek naigabe itzela erakusten eban. Jarraian, Jaungoikoarekin onezkoak eginda, baserriko jagolearekikoa egitearren,

-Gure Sandroke maitia -jarraitu eban-, azaldu zaitez errukitsu, Arerio Gaiztoak ekarritako kalteak laster baten atonduko dira-ta. Zure zaintzapean jarritako baserri onek, baseleizak merezi dauan txukuntasunari emongo dau-tso, eta luzaro barik eleiztar onein aalegiñaz dagokizun leku duiña izango

dozu. Ez uste, Sandroke maitia, emengo jendea esku-laburrekoa danik, ez orixe...! Olakorik bein edo bein esan ba'da, barrikeriak izan dira... Eta gaurko eretia ustiatuz, Iburgane'ko biztanleek beste gauza bat erabagiko dabe, urrean, ara... diru batza bat egitea, etxe santu onek merezi dauan joale edo kanpaia ipiñi daiten gure joaletagian...

Leku donetsuetan debekatua dago txalo-jotea egin, baiña une aretan Iburgane'tarren begietan agertzen zan adorea, iñongo esku-zarta baiño andiagoa zan, eta Aita Errojelio'k itzaldia amaitu ebanean, milla eskintza baiño egitiagoa zan adore isiltu batek eleiztarren biotzak piztuten ebazan.

Eta sermoi-ostean iru txilindun erratilluak eleizean zear oiko diru-batza egin ebanean, sakelen txin eta diru-txartelak iñoiz ez ezagaturiko bultzadaz egan egiñik, konponketarako zan bigarren erratilluan, begirunez beterik kokatu ziran, eta ontzia eretirako txiki billakatua beste osteratxu bat egin bear izan eban batzailleek. Eleiztarren eta Aita Errojelio'ren entzumenerako egun aretako txiliñen eresia iñoizkorik ederrena azaldu zan... Bai, iru urretxindorren txio maitagarriek zirudien.

Mezaren ostean, Aita Errojelio'k eta baserriko etxejoaun ospetsuenek batzar bat izan eban eleizpean. Baseleizako arduradun edo mayordomoak, Iburgane'ko erritarren izenean, Aita Errojelio'ri arrenkatu eutsan, Sandroke'ren jaietarako emoniko ogerlekoak elburu orretarako itzi egiazan, eta auzunearen izenean berba emoten eutsan, Arerio Txarraren eragiñez sorturiko kalteak, txakurra ta guzti, illabete bi barruan atonduko litzakezala.

Une batez oldozkor geratu zan Aita Errojelio. Izan be, erabillitako erretolikaren indarrez, egun aretan batutakoak, epe orretan baietz bearrezko dirua batuko litzakela adierazoten eban ezkeru, gure lekaidea Iburgane'ko eleiztarrekin bat etorri zan. Baldintza batekin, baiña, eta auxe alegia: epe orretan Sandroke'ren egoitzak merezi eban joale egokia lortzekotan, oraingo sartagiñea mezatarako dei egiteko gai izan arren be, baserriak eta Sandroke berak, beste tramankulu duiñagorik merezi ebelako.

Eta noizbait batzarkide guztiak bat etorrita, ereti andi arek eskatzen eban ezkeru, guztien aurrean iñoizkorik ondoen begirunezko aureskua dantzan egin neban, eta jarraian, aldarterik onenean bazkaria izateko, jendea sakabanatu zan.

Egun aretan txandea etorkion etxean bazkalduta gero, eta soruko apurrak garbitzeko neban erti gorena maikideek ederretsi ondoren, oi neban lez beeko bide-gurutzera iño Aita Errojelio'ri laguntzen neutsanean, lekaideak auxe esan eustan:

-Plorentzi maite ori, gaur pekatu andi bat egin dot. Bai, tximistak eta

trumoiak nire eleiztar onai bota dautsedaz, eta izan be errazoi barik, ikusi dozunez, baseleizearen kalteak konpontzeko eskuzabal agertu dira-ta. Orain nire buruari itauntzen dausat, eurok baizen ona ete nazan... Bai, damu dodaz orain esandakoak. Eta zeuk Plorentzi maite orrek barkatu bear daustazu zure adimena kir-kir batenarekin bardindu egiteagaitik. Erretolikazale prrokatua nozu, Plorentzi, eta augaitik zaletasun orrek eraginda, bidebako azaldu naz. Lekaidetxera eldu baiño ez, nire pekatuak autortuko dodaz.

Orduko, bide-gurutzean gengoan, eta Aita Errojelio bidean beera joiala, ni Ibargane'ra biurtu nintzan, nire oiko bizierari emoteko. Auzunera eldu nintzaneko, baseleizearen teillatura igonda, baserritar bik izandako kalteak ainbatzen ebezan, eta au atsegin yatan, Ibargane'ko jendea benetakoa zala adierazoten ebalako.

Bein baten, jaieguneko mezea esanda gero, Aita Errojelio jantziz aldatzen zala, Larregain basetxeko Eusebi neska gaztea, sakristegiko atean zear estu ta larri agertu zan. Gaixoari eskuak dardar egiten eutsoen, eta begiak malkoz beterik eukazan.

–Egunon, Aita Errojelio -abots bildurtiz agurtu eban.

–Baita zeuri be, Eusebi. Zer dala-ta zure ikerraldia...?

Ezer esateko gai ez zala, baiña, Eusebi negar baten asi zan. Olan ikustean, Aita Errojelio'k aulki bat eskiñi eutsan jesarri zeiten, eta gero mintzo arraiaz

–Nasaitu zaitetz Eusebi –esan eutsan– eta azaldu egistazu nigana zakazena.

Neskeak baiña, ezin egikean gauzarik esan, negar-zotiñek bularra astintzen eutsoela.

–Ez negarrik egin, Eusebi, ez bildurrik izan. Badakizu aal dodan giñoan lagunduko dautsudala.

Noizbait Eusebi baretu zan, eta mintzo totelaz, auxe esan eutsan:

–Aita Errojelio, azur barritan nago...

–Zelan, egin dozu ori, baiña...? Garbitasuna ezelan be galdu bear ez dan bitxia da. Orain gaixo orrek esan egistazu dana. Nor da bera...?

–Bitor, Arteta etxeko mutil nagusia.

–Egiñak egin, eragozpen andirik ez ba'dago, ezkondu zaitetze ta kitto.

–Berak ez dau ezkondu gura. Baiña txarrena auxe da: seme-gaia galdu dagidala bein eta barrero esaten daust.

–Ez orixe, Eusebi...! –didar egin eban Aita Errojelio'k– Ori eraiketa zitala da, eta ainbat zitalago izaki errubakoa danean. Dana-dala, gorde zure semea bizirik, eta ziñez diñotsut, ez zarala iñoiz damutuko. Ezin dagiket ulertu, aita batek bere seme-gaia erail gura dagianik. Jakiña, atsegin izanda gero, ondoreak betiko atzindu, eta or-konpon. Askotan ori da gaurko legea.

Une batez isillik iraun eban lekaideak, eta alako baten bekokiari txalo bat emonez,

–Zertan nabil, baiña...? –esan eban–. Gaur Arteta etxean bazkaltzea dagokit, eta izan be, ezin ereti obarik, zure arazoari buruz ango etxekojaunarekin itz egiteko. Laga egizu, beraz, nire eskuetan, eta ez larritu, Eusebi, ipiñi zure uste ona Jaungoikoaren errukian.

Malkoen artean, neskearen aurpegian itxaropen-antzeko itxurea agertu zan, eta auxe esan eutsan:

–Eskerrikasko, Aita, eta jakin egizu auxe: jazo daitena jazo daitela, nire semea bizirik jaioko da Jaungoikoak lagun, orretarako iñoren etxean neskame sartu bear badot be.

–Ederto, Eusebi, eta orain, Jaunaren izenean zure pekatua barkatzen daust.

Naisaitasunezko oarpenaz, neskea bere etxera abiatu zan, bein eta barriz lekaideari eskerrik beroenak emonda gero. Jarraian, Aita Errojelio ta biok Arteta basetxera bazkaltzera joan gintzazan, otordua emen egiteko yatorkun-eta. Eldu ta bereala, Ixidor etxekojauna agurtzera etorri yakun, eta oiko alkarrizketea izanda gero, Aita Errojelio'k auxe esan eutsan:

–Aizu, Ixidor, leku baketsu baten, zurekin eta zure emaztearekin aututxu bat izatea nai izango neuke.

Ixidor'ek etxeko iker-aretora eroan eban, eta emazteari dei egiñik, irurok aulki banatan jesarri ziran. Suzmo txar batek jota, senar-emazteak lekaideari arrenkuraz begiratzen eutsoen, eta isil-isillik, aren ezpanetatik dilindan egozan.

Alako baten, mintzo maitetsuz, Aita Errojelio

–Tamala dot benetan –esaten asi zan–, gaur barri txar baten ekarle izatea, baiña nakarren arazoa bete-bete dagokizuen ezkerro, eta onen geroratzea kaltegarriagoa izango dalakoan, oraintxe bertan, eta berba laburrakaz azalduko dautsuet: Larregain etxeko Eusebi'k zuen seme Bitor'ekin arremonak izan dauz, eta onein ondorioz, seindun gertatu da.

Itz onein bitartean, senar-emazteak begiak soruan josita, igige ta isillik zirauen. Lekaideak esatekoa amaitu ebanean, aurpegia atsekabeak zurbilduta, etxekojaunari auxe iges egin yakon:

–Seme zital orrek, bere buruaren atsegiñari begiratzen dausto bakarrrik, eta beste guztiari bost ardura...! Ezkondu-erazoko dot nai-ta-ez, bai orixe...!

–Begira, Ixidor –ebagi eutsan aita Errojelio'k–. Ez da iñor beartu bear ezkondu daiten. Oba da Eusebi'k ume egin dagiala neska izanik, ezkontzara beartua baiño. Oneik lako alkarteek geienetan ondore txarrak dakarrez, eta bein eginda, Jaungoikoaren legepean ez dago atzera egiterik.

Une batez isildu zan, eta gero,

–Baiña or ez da amaitzen dana. Eusebi'k esan daustanez, Bitor'ek eragiten dautso orain, egindakoaren ondoreak ezabatzeko seiña bertanbera galdu dagiala, eta olan egiñaren zantzurik ez.

Au entzutean, Isidor jagi zan, eta lengo aurpegiaren zurbiltasuna asarrearen gorritasunak ordeztuta, mintzo sumiñez, auxe jaurti eban oiuka,

–Iñongo errurik ez dauan seme-gaia erail...? Zelako sugea dogu semetzat gurean...? Nire semetariko batek nekez emon leikit, ori baiño naigabe andiagorik. Bere semea, nire billobatxua izango dana, jaió baiño len erail...? Ez orixe...!

Begiai txinpartak eriezala, Ixidor'ek gelako atea zabaldu, eta

–Bitor, zatoz ona beingoan...! –didar egin eban.

Bereala agertu zan Bitor, etxeko oiñordea, mutil lerdén eta yaioa berau. Aitak atea itxiteko agindu eutsan, eta,

–Egia al-da, Eusebi'k zugandiko seme bat itxaroten daula...?

Gorri-gorri eginda, eta oiñetako muturretara begiratzuz, Bitor'ek abots kolokaz

–Baaaai -bota eban.

–Eta egia al-da, Eusebi beartu nai dozula, jaió-aurretik seiña galdu dagian...?

Isillune larri-larri, eta gero lotsari-gorria aurpegian zear zabalduta, Bitor'ek,

–Beartu-beartu ez dot egin. Urtenbidetzat pentsa dagiala baiño ez...

–Madarikatu, zital, koldar orrek, zure semea izango dana il gura...! Non dago, etxe onetan eta eleizean ikasiriko Jaungoikoarekiko bildurra ta gizalegea, baita lagun-urkoari zor dautsazun begirunea be...?

Isillune larria edatu zan gela aretan, etxekojaunaren azken itzok entzutean. Noizbait, bere buruaren jabetasuna irabazita, etxekojaunak onetaraxe jarraitu eban:

–Eusebi'rekin ezkondu zaitezala ez zaitut beartzen. Aita Errojelio'k zentzurik andienaz esan dauskunez, ezkontzaren lokarria betirako izanik, ziurtasunik andienaz artu bear da. Baiña auxe badiñotsut: Eusebi etxe onetara bizi izatera etorriko da, eta emen, etxe onetan, nire billbatxua jaioko da, eta mutilla naiz neskatala izanik, egunen baten etxaguntza onen jabea gertatuko da, ori erabagiteko eskubide osoa badaukat-eta.

Isillunea barriri edatu zan. Etxekoandrearri malkoak mara-mara eriozan biotzeko otoi gartsuz batera. Alako baten, Bitor'en abotsa aditu zan auxe iño-ala:

–Benetan damu dot egiña, eta gerturik nago Eusebi'rekin ezkontzeko, berak nai ba'dau...

–Ori erabagi ariña izan daiteke –eten egin eutsan Aita Errojelio'k-. Nire burubidea, beraz, auxe da: zeuk eta Eusebi'k gora-beera guztiak aztertu dagizuezala, eta orren ostean, erabagiko dozue ezkonduko zarién ala ez. Baiña kontuan artu, giristiño batentzat ezkontza autsi-eziña dala, eriotzaraíño iraunkorra Jaunaren aginduz.

Igande aretan Arteta etxean gerturik egoan bazkariari ez eutsoen jaramon andirik egin, bakotxak bere gogoetai emotsela. Bazkalostean, Ixidor'en aginduz, Bitor Eusebi'ren etxera joanda, neskearekin biurtu zan. Jarraian, Aita Errojelio'k iker-gelan gazte biokin autu bat izan eban, eta azkenean auxe esan eutsen:

–Nire ustez aste biko epea naikoa da, astiro ta iñongo estutasun barik, zuen etorkia erabagi dagizuen. Amabost egunok igarorik, artutako aukerea azalduko dozue, eta onen arauz egingo da.

Jarraian, etxeko guztiak agurtuta, Aita Errojelio ta biok bide-gurutzera abiatu gintzazan. Lekaideak gogoeta sakonetan murgilduta zirudian. Alako baten, begiak zerurantzaz jatorik, auxe irautsi eustan:

–Lur-jota nago, Plorentzi maite ori, munduan egiten diran umegaien erailketakaitik. Urtean milloika dira jaió baiño len erailten diran umeak. Iñori bizitza kentzea pekatu larri-larria da, baiña seintxu errubakoak amaren sabeletik atara, il daitezen, zeru ta izadiaren aurkako oben barkagatxa da. Abereek egiten ez dabena, gizonék otz-otzean euren seme-gaiak eriotzera epaitzen dabez, iñongo arrenkura barik...

Isildu zan Aita Errojelio, eta gero,

–Gabero, Plorentzi maitia –esan eustan-, pekatu ori dala-ta, Jaungoikoari gizadia barkatu dagiala eskatzen dausat, baiña bildur naz, egunen baten Bere bidezko asarrea gugana jaurtiko ez ete dauan... Ai ene Jaungoikoa, bildur naz bildur...!

Errira bakarrik biurtzean, ezin nengikean Aita Errojelio'k esandakoa burutik kendu. Ain zuzen be, zail yatan asmatzea nire oillokideek errundako arrautzai mokoka eraso egitsien, barruko txita-gaiak jaió ez zeitezán. Arrezkero, gizakiai neutsen begiruneak beerakada itzela jasan eban.

Erabagitako amabost eguneko epea igarorik, Eusebi ta Bitor'en erantzuna ezkontzeko gerturik zirala izan zan, eta urrengo egunéan, Erroka Deuna'ren ate-gaiñeko sartagiñak ezkontzaren deia Ibargane'n zear barreiatu eban, eta etxekoek lagunduta, Aita Errojelio'k gazteak betirako buztartu ebazan. Ospakizun bakun baiña unkiagarria azaldu zan, eta nire ustez, lekaidearen

sermoi laburrua baiña sentikorra, eleizkizun aren bikaiñena azaldu zan. Ona emen gitxi gora-beera esan eutsena:

"Bitor eta Eusebi maite-maiteok, gaur zuen bizitzaldi osorako alkartu zarie. Alkarrekiko agintzariak egin dozuez, eta izan be, aukeratu dozuen buztarria ez da beti arin eta atsegiña izango. Izan be, zuen lokarria ondatu ez daiten, alkarrekiko maitasun eta jasapena gorde bear izango dozuez. Askotan, odei illunek, zemaituko zaitue, baiña ereti orreitan gogoan izan, zuen maitasuna oroz-gaiñean argitu bear dauan eguzkia dala.

"Zoriona, enetxuok, ez da nork bere naia bete dagiala, ez, zuetariko bakotxak bere eginkizuna bete dagiala baiño. Uts-egiteak, asarrealdiak-eta, alkarri barkatu bear dautsazuez, danok argal gara-ta, baiña au jakinda, bein edo bein asarreak erasoko ba'leuskizue zuen alkarrekiko maitasunak odei baltz orreik uxatu bearko dauz, eta au sendotzeko, gabero oeratu baiño len alkarri apa-laztan maitekorra emon egiozue.

"Bitor, maite egizu Eusebi, Jaunak bere eleizea maite izan eban antzera, bizi-bizi ta betirako. Erabilli egizu zeure-zeurea bai'litzan, au da, samurtasunik andienaz, zure lagun zintzoa izanez gaiñera, zuen seme-alaben ama arduratsua izango da-ta. Emoiozu euspen eta laguntza osoa etxe-erabilte ta sendi-zaintzari dagokienetan, eta ekintzaren baten oker azalduko ba'litz, zuzendu egizu gozotasunez.

"Eusebi, begirunerik andienaz erabilli zure laguna, eta makaltasunen bat ba'leuko, barkatu egiozu. Begira, Eusebi: gizonak kitar baten antzekoak dira; zarata txarra ataraten dauan esteki edo firuren bat badauko; esteki ori ba, ez ukutu furrustadarik artu ez dagizun, eta eroapen andiz aalegindu zaitez apurka-apurka doiñu txarra egiten dauan estekiak, benetako emon dagiala. Zure senarra egizko etxejoauna izan daiten, nagusizat erabilli egizu, eta etxeke aulkirik erosoena ta jakirik gozoena, berarentzat. Arazo garrantzitsuetan aren eritxia eskatu, eta emondako eretxi ori ontzat artuko ez ba'zenduke, berarekin goxo ta samurki eztabaidatu egizu arazoa, benetako urtenbidea idoro dagizuen, eta ez norberekeria garaille azaldu daiten.

"Zuek biok sendi bat sortuko dozue Jaungoikoak lagun, eta zuen umeak matsaren aienak lakoxe izango yatzue. Baiña oroz gain gogoan izan beti, etorkirako eziketa ona emon bear dautsezuela, eldutasun orduko bizitzari aurre egiteko gai izan daitezen. Ez egizuez azi bigunkerietan, aitzitik, maitasunez eta esku errimez, eta auxe izan beti gogoan: eldutasuna lortzean, eurenez bizitzeari aurre emon bear izango dautsoela, eta mundo au oztopoz eta maltzurkeriz beterik dagoan ezkerro, burrukarako gertutu bear dozuez. Askotan edo beti esango neuke, erosoagoa da seme-alabak euretara jokatu dagiela,

zelan eta norekin dabilten arduratu barik, ezkuntza ona emoteak buruauste ta nekeak berarekin dakarrezalako.

"Baiña etorriko yatzuezan seme-alabak bene-benetan maite izango ba'dozuez, Jaungoikoaren legepean gorde egizuez, euren etorkirako benetako giltza izango da-ta. Arimaren baliotasunak gero ta ezetsiakoak dira gaurko egunean, ezertarako gauzak ez diralakoan, baiña auxe diñotsuet: zuen seme-alabentzat etorki ona gura ba'dozue, ezi egizuez Jaungoikoaren legepean, eta auxe izango da zuekandik artuko daben aberastasunik andiena, eta aldiaren bidean, egunen baten, gurasoen jokabide zuur eta arduratsu ori bedeinkatuko dabe.

"Biotz on eta bearrezko indarrak opaltzen dautsuedaz, etorriko yatzuezan aldi illun eta argietan, zuen maitasunak eragozpen guztiak ezereztu dagiazan".

Onaiño Aita Errojelio'ren ikasbidea. Ezkontza amaitu zanean, eztegu-bazkaria Erriko Taberna'n ospatu zan, eta maipuruan jesarri zan Eusebi'k erregin baten edertasunaz dizdiratzen eban. Jai begiko ta atsegiña azaldu zan, eta bazkaria igaro-ala, danok gero ta alaiago. Lekaidetxera biurtu aurretik, Aita Erojelio'k senar-emazte barriak bedeinkatu ebazan, eta etxerakoan, oi neban lez bide-gurutzeraiño lagundu neutsan. Ibilli genbiltzala, Aita Errojelio'ri ezpanetan irribarre bat sortu yakon, eta auxe esan eustan:

-Plorentzi, maite ori, egunen baten ordua etorriko yat, Jaungoikoaren aurrean nire doaien edo "talento"ren kontu zeatzak emoteko. Praille izan arren, Aren aurrean agertu naitenean, besteak antzera edo are estuago artuko nau. Azken aldiotan nire buruari itauntzen dautsat gogorregi ez ete darabildazan erri onetako eleiztarrak, eta maitasuna erabilli bearrean, Jaungoikoaren asarrez larregi ez ete zemaitzen... Ez dakit garaia eldu dakidanean, Arek orren zorrotz erabiliko ez ete nauan... eta izan be, Plorentzi, batzutan burura yatort merezi dodala. Gaur baiña, ume-gai bat eriotzetik atara, eta sendi on baten altzoan jaioko dala burura yatordanean, Jaungoikoaren nire aurkako asarrea zeozer baretuko yakola uste dot, eta Bere errukiaren laguntzaz, inperuko garretatik nire burua jare ikusiko dodala.

Illuntze aretan bide-gurutzetik biurtzen nintzala, Aita Errojelio ezagutuago ta maiteago nebala oartu nintzan, eta praille aren oskol garratzpean, biotz maitetsu ta ongillea ezkututzen zala.

Astebete batzuk igaro ziran, eta egun gogoangarri baten, Ibarene'ko eleiztarrek merezi eben joalea eldu zan. Bai, baserri aretako emonkortasunak brontzeko kanpai ederra Sandroke'ren aintzarako jaritsi eban, eta guztien eritxiz lengoa baiño ederragoa. Baiña ez ori bakarrik: exeko lanari orduak lapurtuz, auzokoan aalegiñek teillatua konpondu izan eben, baita eleizpeko abe ustel batzuk ordeztu, eta onen soruko arribillak atondu be. Baiña aldakun-

tzarik arrigarriena erakusana, barrukoa zan. Itogiñek egindako kalteak ez ziran inondik ikusten, eta aulkiak baita zureri guztia be, argizagizko emonaldi dizdiratsupean, egundoko usain goxoa edatzen eben. Ereti aretan nabariena, baiña, Sandroke'ren txakurra zan...

Len bekokian beera irrist egiten yakon orban itsusia bein betiko ostendua zan, eta margo zuri ederpean, inoizkorik txukunen zirudian. Emakume batzuen eritxiz, belarri ta erpeakaitik ez ba'litz, bildotsaren irudia emongo leuke. Erroka Deuna'ri buruz, bardin esan bear dogu. Bazirudian txakurraren apaintasunak kutsutua zala, esku batek makillari eutsita, bestea txakurraren lepo-gaiñean jarrita, eta aren begi baltz sarkorrak urrutiari begira. Andrazko bateri bururatu izan yakon, Santuaren irudia zuringoz igurtzitea, eta orain bazirudian aregandik izpi dizdiratsuak eriozala.

Egun aretan joale barriaren deipean, Aita Errojelio Iburgane'ra eldu zanean, bere aurpegiak nekez estaldu egikean, gaiñezka ebilkion barruko poza, eta egun aretan, baseleizearen barruan jazotako aldakuntzea ikustean, zur eta lur geratu zan, Sandroke ta onen txakurregandik begiak kendu eziñik.

Baseleizea mukurru bete egoan Aita Errojelio'k mezeari asierea emon eutsanean, eta egun gogoangarri areri egokionez, eleiztarren abestiek teillatu barria galtzori gorrian ipiñi eben, eta eretirako txukundutako argi dilindaria, zabunka asi zan. Sermoia esateko garaia eldu zanean, eta eleiztarren begiak beragan josita ikustean, urruma zaratatsua eginda gero, Aita Errojelio onetaraxe asi zan:

"Maite-maiteok:

Gaur ez naiatzue luzerik izango, barruan yabildan pozak labor izatera beartzen naualako nekatu ez zaitezen, baiña bart izan neban amesa zuoi esan bear dautsuedala deritxat, Sandroke gure zaindariaren errukia, eta nire utsak agirian ipinteko. Ara...

"Zeruetan zear niñoala ames egin neban, eta izan be, Garbitoki edo Purgatorio'ko ate-aurretik igarotean, naigabeak jo ninduan, erri onetako eleiztar askoen didarrak entzutean. Egundoko larritasuna nitzaz jabetu zan, eta Karmen'go Andra Mari'gana joaten otu yatan. Baiña une aretan ondoratzeke zorian egoan itsasontzi bateko mariñelai laguntza emoteko jaoana zala esan eusten. Orduan, Gure Jaunak artuko ete ninduken itaundu neban, eta baietz esan eusten, une aretan jare egoan-eta.

Joan nintzakion ba, eta Jaunak auxe itaundu eustan:

–Kaixo, Errojelio, zer nai dozu...?

–Ara Jauna... Zerua baiño len dagoan Garbitokian, dirudienez Iburgane'ko lagun asko dago, eta andik atara dagizuzan arrenka natortzu.

–Ez ete zara zeu arein artzaiña izan ba...?

–Bai, Jauna.

–Orduan...? Eleiztar asko an ba'dagoz, zeure erruari egotzi bear izango yako, bide artezetik zuzendu ez dozuzalako. Begira, Errojelio, zuk beti agiraka erabilli dozuz, amaika zigorraz zemaituz. Maitasun gitxi erabilli dozu oster, zure irakaspenetan, eta auxe nire agindurik nagusiena izanik, zuk uts egin dozu. Zer diñostazu orain, Errojelio, zertarako ainbeste erretolika...?

Ezin nengikion ezer erantzun, ziraustana egi-egia zan-eta. Orduan Berak,

–Ez al-dozu uste –jarraitu eban–, areik Garbitokia'n ba'dagoz, erru orren zati bat eta ez txikia, zeuri dagokizunik...?

Buru-makur eta begiak soruan josita nengoan, erantzunik idoro ezin. Olan nirauala, Santu bat Jaunari urreratu, eta abopeka berba egiten asi yakon. Ba al-dakizue nor zan...? Nor eta gure Sandroke bera...! Alako baten, Jaunak eten egin eutsan esanez:

–Egia al-da, Eroka Deuna, Iburgane'koek zure baseleizako teillatua barriztu dabela...?

–Bai, Jauna.

–Eta zure txakurrari aurpegiko orban itsusia, kendu dautsoela be...?

–Bai, Jauna.

–Eta itogiñak kenduta gero, zure irudia zuringoz garbi ta dizdiratsua biurtu dabela...?

–Bai, Jauna. Baiña ez ori bakarrik, begira...

Au esanik, Gure Sandroke'k isil-misilka gauzak esaten jarraitu eban. Alako baten, Jaunak eten egin eutsan, auxe zirautsala:

–Egia al-da, Eroka maite ori, orrezaz gaiñera, joale barri ederra erosi dabela, ijitok egun aretan "bidebatez" eroan ebena ordezteko...?

–Bai, Jauna, eta lengoa baiño askozaz ederragoa.

Jaunak une batez isillik iraun eban, eta gero nigana biurturik, auxe esan eustan:

–Entzunak entzun, eta zure erretolika ta guzti, Garbitokia'n dagozan Iburganetar guztiak, bertanbera euren pekatuak amaitutzat emoten dodaz. Zure eskaerea entzunda, eta aintzakotzat artuta, beraz, biurtu zaitekez oiko eginkizunetara, baiña auxe entzun egistazu ondo bai ondo: aurrerantzean trumoiak urritu egizuz, eta maitasuna erein eskuzabal. Azkenez, Errojelio maite orrek, itzi alde batera zure erretolika, eta itz egiezu eleiztarrai berba leun eta errikoiaz. Agur...

"Itz oneik ozta-ozta esanik, amesa amaituta itxartu nintzan, eta lo egiten jarraitu eziñik, gogoeta sakon bateri emon dautsat, eta onen ondorioz auxe erabagi dot: zuen barkapena eskatzea, zigor asko ta maitasun gitxi erabilli

dodazalako oraiñarteko irakaspenetan. Gaiñera, nire eskerrik beroena zuei emotea egin dozuen diru-emoteagaitik, gaur leku onek erakusten dauan txukuntasuna lekuko, eta jakiña, aztu egin barik gure joale eder, barria.

Aita Errojelio'k sermoia amaitu ebanean, isiltasun osoa danatzaz jabetu zan, eleiztarren lekaideganako ederrespena mailla asko igonik. Ospakizun gogoangarria, benetan, jaiegun aretakoa, eta urteetan zear guztien oroimenean iraungo leukena.

Mezea amaitu zanean, aal neban ondoen Goratzarreko Aureskua dantzan egin neban; joale barriak merezi ebana, alegia. Jarraian, gizonaekoeleizpean batzar agiri bat ospatu eben, gai bakartzat auxe erabilliz: ordurarte mezatarako deietan erabilliriko sartagiñari, jubilaiziñoa emon ala ez. Arazo au abo batez erabagi zan, euretariko zaarrenaren eritxia entzunda gero, eta auxe zana: badaezpadakoan, ate-gaiñean dingilizka ordurarte lez gordetea. Zer eta ijtoek barrero joale barria "bidebatez" eroango ba'lebe...? Zerez orduan, meza-deia egin...? Erabagi zentzudun onek Ibarganetarren zuertasuna agirian jarri eban.

Egun aretan Aita Errojelio'ri Matserrota'n eskiñi eutsoen bazkaria gain-gaiñekoa azaldu zan. Txarto ikusi neban nire burua, sorura jausiriko apur guztiak garbitzeko. Eguraldi zoragarriak oroz gain edatzen eban bere urrezko ukitzea, Aita Errojelio ta biok bide-gurutzera giñoazanean. Ezin egikean gure lekaideak, aurpegian zear edatzen yakon zoriona ezkutatu, eta ezpanak irribarre bat az argiturik, auxe esan eustan:

—Izan be, Plorentzi maite ori, gaurko nire sermoia ames baten edespen edo kontakizuna izan da, eta egiari jarraituz, amestzat aipatu dautset eleiztarrai. Askotan, baiña, amesak egi biurtzen dira, eta orain nire buruari itauntzen dautsat, neugan sortu-erazo ez ete daustan Jaunak, ames orren bidez emeko jendeari Aren poza iragarri dagiedan...? Izan be, Plorentzi, areik artutako nekeak baseleizea atontzeko ez dira makalak izan, eta au gitxi bai'litzan, nik iñoiz ames egiten azartuko ez nintzakean, joale bikain-bikaiña erosi... Ziur naz, onezkero ez dagoala Ibargane'tar bat bera be garbitokian...

Aita Errojelio'k zerurantzaz begirutzen ebala, aurpegian irribarre zoriontsua loretzen yakon. Une batez isillik iraunda gero

—Izan be, Plorentzi —esan eustan—, gaur iñoizkorik ondoen dantzan egin dozu, eta esan bear dautsut, zeu lako oillar batek baserri oneri dizdira andia damotsala, bai orixe...!

Orduko, bide-gurutzera eldu izan gintzazan, eta pozaren-pozez kukurruku indartsu bat az, Aita Errojelio agurtu neban. Azkenengoz ikusiko neuken eguna izan zan. Ona emen jazo zana...

Udea zan arrezkero, eta ustekabez, beste iñora joateko gurari biziak artu

ninduan. Barruko zer bait ezkutuak sarkalderantza bultzaten ninduan, eta joran orreri jarki eziñik, bein baten Ibargane'tik alde egitea erabagi neban. Neketsu gertatu yatan ebazpen ori artzea, baserria ta onetik zer-ikusi eban guztia maite nebalako, baiña beste iñora nindaroan zirkiña, nire naimenarena baiño askoz az indartsuagoa zan.

Goiz baten, eguzkiaren gupil dizdiratsua mendien arteko askatik jagitean, eta Ibargane baserri bikaiña egunsentian esmeralez jazten zala, sarkalderantz abiatu nintzan. Muru bat zearkatzeko zorian nintzala, atzerantzaz begiratu neban, Ibargane zoragarria azkenengoz ikustatzeko. Jaieguna zan, eta orduantxe garbi ta eresintsu, joale barriaren soiñua etorri yatan... Asperen bat biotzaren sakonetik jaurti, mendixkaren bizkarra zearkatu, eta beste iñora bideratu nintzan...



## BIURPENA

Bai, Sarkalderantz nindaroan eragiña, On Markos'eganako erakarpen bizi ta jarki-eziña zan. Asierean ez nintzan oartu izan zeitekeana indar ezkutu a, baiña Ibarbane ikusmendik galdu baiño ez, Iparreko izarrari darraikion itsasla-riaren antzera, on Markos'en gomutapen kutunari nerraikiola oartu nintzan. Ezagutu nebanetik erakarri ninduan, eta orain atzo-miñez beterik oroimenak beragana nindaroan. Lagunik zintzoena nebala zerbaitek iñostan, eta joran andi batek bere ondoan nire egunak amaitzeko menperatzen ninduan.

Olan ba, iradu barik, baiña okertzeke aurrera niñoan, egunen baten elduko nintzakela ziurtzat emoten neban-eta. Zertarako arindu...? Bestetik, udako eguraldi zoragarripean, zabaldia aintzaz apainduta agertzen yatan. Amaika ots eta suzmurren artean, kir-kirren txilin-ots eresitsuek aroaren bikaintasuna aldarrikatzen eben, landaretzak usain samurrakaz oro inguratzen ebala. Bajoiazan egunak aurrera urre ta esmeralen artean, urte guztietako bizitzaren miraria barritzen zala.

Eta beiñola, mendixka bateko bizkarra zearkatzean, biotza ikoti zorotan asi yatan, an beean nire bidaiaren elburua zan Goikolanda barrero ikustean. Urrun samar egoan, eta iradu barik bideratu nintzan poz bakanaz jabetuta. Eldu nintzaneko, izarrak jaioten asten ziran illunabar yaukalean; aspaldiko ikondora joanda, zapart egiñez, onen adar baten kokatu nintzan, eta bidaiak nekatuta loak bereala artu ninduan. Nekearen-nekez iñoizkorik beranduen itxartu nintzan, eta arrapalada baten, On Markos'en lan-gelako leio-barrenera igonik, aspaldian oi neban lez, argi ta ozen kukurruku bataz nire etorrerea aldarrikatu neban.

Berealaxe, urrats eta abotsen otsak aditu nebazan, eta bapatean gelako atea zabalduta, On Markos tximista baten antzera sartu zan. Ni ikustean, didar bizitan oldartu yatan auxe iñostala:

–Plorentzi, Plorentzi, nire maitia...!

Eta besterik esateko gai ez izanik, aspaldian oi eban lez lepoko lumak

esku dardatsuz lazandu eustazan, begiak malkoz laiñoturik ebazala. Noizbait, berba egiteko gai zanean, irribarrez auxe esan eustan:

–Ezin dagikezu asmatu, Plorentzi, zein bakarrik oartu nintzan joan zintza-kidazanean. Idaroki edo etorria ostendu egin yatan, eta orko mai orren atzetik jesarrita, orduak eta orduak emoten nebazan ezeri eldu eziñik; ziñez diñotsut, Plorentzi, niretzat aspaldi txarra izan da, lanari ekin gura ta ezin. Aldiaren bidean naigabea zerbait arindu bayatan be, ez naz lengora biurtu, ez urrik emon be. Uts emon dautsut, Plorentzi, baiña orain barrero zaukadan ezkerro, antziñako goi-arnasa biurtuko yat, eta lengoa izango naz.

Une batez isildu zan, oiko irribarre gozoa ezpentan agertzen yakola. Gero, onetaraxe jarraitu eban:

–Zure igesaren zergaitia laster jakin neban, Eupeme'ri eskuko loturea ikusi neutsanean. Asiera baten, ez eustan azaldu gura, eskuan zuk egiñiko arramaskarena; estu-estu erabilli neban, eta azkenean dana autortu eustan. Zure joatearen eragillea bera zala jakin nebanean, asarratu nintzan, Plorentzi, eta iru egunez iñorekin berba egin barik iraun egiala, penitentzi edo ordaintzat jarri neutsan.

Jazoera au gogoratzean, umoreak eraginda, On Markos'ek barre-santzo itzela bota eban, eta gero

–Ezin dagikezu asmatu, Plorentzi maitia –esan eustan–, Eupeme gaixoa-ren nekaldia. Berarentzat iru egun larri, amaibako areik, iru urtebete billakatu yakozan, eta irugarren egunean, lurriñaren zapa-pean ler egiteko zorian dagoan lapikoa zirudian. Noizbait, epea igarorik, goizean ogi-billa joan zanean, okindegitik etxerakoa egiteko, iru ordu erabilli ebazan...!

Barre egin eban barrero Goikolanda'ko parrokoak, eta gero onetaraxe jarraitu eban:

–Eta zertarako Eupeme'ren asmo zitala...? Ezertarako be ez, Plorentzi. Sendotzea buruauste andi barik jazo zan, eta ospakizuna amaituta gero, sukua ta zu ordezteko atunduriko errekiia maira eroan-agiñean zala, Gotzain Jaunak eta bere laguntzailleak nire bazkarirako deia baztertu eben, beste iñora joan bear ebelaren atxakiaz. Lengo indiaben eta errekiaren gardospena burura etorri yaken, antza, eta begirunerik andienaz, nire bazkal-deia alderatu eben. Bai, Plorentzi, ondo gomutaten dot, zelan astebete batez, suku ta erreki areik bazkari ta apaitarako iraun yakuzala. Gure artean, Plorentzi –jarraitu eban On Markos'ek abotsa beeratuz–, nire uste apalez, Eupeme ez da jaio sukaldariñe izateko.

Une batez barre egin eban Goikolanda'ko abadeak, eta gero onetaraxe jarraitu eban:

–Baiña Eupeme'ren ekintza itsusiak ekarri eban gaizkiena, zu barik gelditu nintzala da. Egunsenti-aurreko ta geroko zure kukurruku adoretua ez entzuteak eta leio-barrean zu ez ikusteak, lanetarako bear izaten neban goi-arnasa edo etorria uxatu eustan, eta arrezkero ez dot ganorako gauzarik idatzi, aalegin guztiakaz saiatu banaz be.

Alako baten On Markos isildu zan, eta burutapen batek jota, bekokiari txalo bat emonez

–Baiña zer nabiltzu, Plorentzi –esan eustan–, oraindiño arto-garau bat bera be zuri eskiñi barik...!

Apal-gaiñetik aspaldiko latontzia artu, eta eskukada bete arto luzatu eustan. Baziran illabeteak arto-alerik jaten ez nebala, eta atsegiñez baterik garauok irunsi nebazan. Gero, eta On Markos'ek geiso bat ikertzera joan bear ebala-ta, errian zear osteratxu bat egin neban. Zer esanik ez, Goikolanda'ko uritarrek eta oilloek egin eusten arrera maitetsua Plorentzi gora ta beera ninderrabilela...! Orren txeratsu artu izateak arrotasunez bete ninduan, eta nire buruari zin egin neutsan, azken arnasa erri aretan eta ez beste iñon emongo neukela.

Illunabarrean leioan kokatuta nintzala, idaz-gelako atea zabaldu, eta Eupeme sartu zan aparria gerturik egoala esateko. Ikusi ninduanean, baiña, zur eta lur eginda, ikara bizian Aitaren egiñik, auxe bota eban:

–Ene bada...! Izango ete...?

–Bai, Eupeme, berbera da –erantzun eutsan On Markos'ek–, eta ez Plorentzi'ren mamua zugandik mendekua artzeko etorria. Ziur naz, zuk egiña barkatu dautsula onezkero. Nire lagunik maiteena garbitu gura izan zenduan. Bai al-dakizu zerekin bardindu dagikegun zure asmo zitala...? Urretxindor bat erailtearekin, Eupeme. Zorionez, Jaunaren naia beste bat izan zan.

–Baiña On Markos, nire asmoa Gotzain Jaunak merezi eban bazkaria atontzea zan...

–Ekintza zital batek ezin ondore onik ekarri, eta izan be, oillar gaixo onek eta biok ordaindu bear izan doguna, neurritz gaiñekoa izan da. Nik idazteko etorria edo goi-arnasa galdu neban, eta gure Plorentzi errubakoak, batek-baki zelako gora-beerak jasango ebazan munduan zear norabarik.

Isildu zan une batez, eta gero.

–Gauza bat, Eupeme, jakin bear dozu bein betiko, eta auxe alegia: Plorentzi Oillarra, niri agertzen daustazun begirune berberaz erabilliko dozu. Eta ori iñoiz aztu ez dakizun, gomutara ekarri zelan Jaunaren borondateak gure Plorentzi onik atara eban, eta zelan zuk eskuan artutako arramaskaz gaiñera, iru egunez berba egin barik zigortua zintzazan.

Azken ordaintza edo penitentzi onen gomuta larriak, auxe esaten eragin eutsan Eupeme'ri:

–Berorrek agindu dauan lez erabilli izango da.

Nekez ulertu egikean Eupeme gaixoak, meza-mutil mukitzu baiño askozaz gitxiagoa zan oillar batek, abadeari berari zor eutsan begirunea merezi egikean. Eupeme, baiña, abadeari men egiteko oitua izanik, ordutik ondo erabilli ninduan, eta olan autortzen dot, egiari zor yakon begiruneagaitik.

Arrezkero, gauzak aspaldian lez billakatu ziran, eta goizalde-aurreko nire lenengo aldarria jaurti baiño ez, On Markos oetik jagi, eta bigarrena adituta gero, eleizara bideratzen zan egunoroko mezari emoteko. Gosaldu ezketiño, idaz-gelako maiaren atzean jarrita, leioko laukian marrazten zan nire soin-ebakunari noizean bein begiratzen eutsan, eta onek goi-arnasa piztu bai'leutsan, bere "Euskal Eliztia Bizkaieraz"en idazteari emoten eutsan buru-belarri. Arratsaldeetan berak oiko biagoari emoten eutsala, nik arrastioroko egurastua enparantza ta kaleetan zear egiten neban, eta zer esanik ez, erritar eta oillotar guztien ederrespena zuen zerbitzari apal onegan josten zitala.

Olan ba, egunak joan egunak etorri, bein baten arrats-beera zala, asperen luzea jaurtita, luma edo idaztekoa mai-gaiñean itzi eban, eta nigana urreratuta, aurpegia irribarre argitsuaz pizten yakola, auxe esan eustan:

–Plorentzi maitia, Euskal Eliztia, nire bizitzaren lana, oraintxe bertan amaitu dot. Zoritxarrez, baiña, dirurik ez dot argitaratzeko. Zorionsua izango nintzake, benetan, egunen baten azalduko ba'litz, baiña Goikolanda'ko abadea saguak baiño ezeukiagoa da.

Isildu zan une batez, eta gero,

–Ez al-dakizu, Plorentzi, norberak idatziriko liburu bat agertzen danean, seme baten jaiotza lakoa danik...? Nork jaramonik egin, baiña, neu lako abade ezaugue batek idatzi dagianari...?

Nik dirurik izan ba'neu, dana emongo neuskion une aretan, bere eliztia argitaratu egian, baiña zoritxarrez sakristegiko saguak baizen txiroa nintzan. Ez neban iñongo ezpairik, berak idatzirikoa maisu-lan bikaiña izango litzakela, eta oldozkun onek areago mintzen ninduan. Alako baten, oi u bat iges egin yakon, auxe iñoala:

–Lengo baten, ez dakit nork esan eustan, gure barrutiko artzaintzaren arduraduna euskaltzale andia dala, erri-euskereari dagokionetan batez be. Gauza andirik ez dot galduko ba, berari bialtzen ba'dautsat nire eliztia. Ezetz izatekotan, orain lez eta kitto.

Andik amabost egunera-edo, gotzaindegiko idazkia irakurrita gero, On Markos pozezko didarretan asi zan. Arin baten etorri yatan begiak dizdira bizitan, eta,

–Aizu, Plorentzi –esan eustan atsegiñez gaiñezka–, Gotzaindegiko gutun onek diñoanez, nire Euskal Eliztia onartua izanik, abo batez argitaratzeko erabagi dabe. Au nire poza...!

On Markos'ek ezin egikean orixe baiño esan, eta begiak urrutian galduta, Jaungoikoa bedeinkatu eban. Ezin siñistu, bere seme kutuna zan "Euskal Eliztia Bizkaieraz", laster argitara jaioko litzakela. Ez neban iñoiz ain zoriontsu ikusi, eta bere pozak ni be kutsutu ninduan, iñoizkorik pozen oartzen nintzala, ugazabatzat neban On Markos'en zorion neurribakoa ikustean. Ez leuke bere burua munduko gizonik aberatsenarekin aldatu. Izan be, gogo-ogasunetan milloiduna zan, eta nire atsegiña adierazoteko, garbi ta ozen eguberdi-ko egurats gardenean, garaipeneko irrintzia zan nire kukurruku sarkorra jaurti neban.

Bein baten, irarkolako azken utsak zuzenduta, On Markos'ek gotzaindegi-  
ra bialdu eban bere eliztia argitaratua izan zeiten. Aspaldi aretan, Goikolan-  
da'ko abadeak ez eban besterik aipatzen, jaiotzeko zan bere "kimua" baiño, eta  
izan be, osasuntsu jaiotzeko zan. Bein baten, tximista lakoa idaz-gelara sartu zan  
idazki bat eskuan ekarrela. Zorionez lertu-agiñean zala begitandu yatan auxe  
iñostanean:

–Plorentzi maitia, semetzat dodan nire "Euskal Eliztia Bizkaieraz", argita-  
ra urten egin da, eta Mintegian bertan, liburuaren aurkezpena edo "bataioa"  
datorren asteko Barikuan izango da. Egun orretan arratsaldeko zazpiretan  
andik azaldu naiten eskatzen dauste Gotzaindegitik. Aurkezpena eginda gero,  
alkarriketa bat izango da, eta eliztiaren gora-beerak emon bear izango dodaz,  
guztitariko itaunai erantzunak emonez. Au bai zoriona...!

Ordurarte ez neban iñoiz ikusi On Markos orren zoriontsua. Zeozer baretu  
zanean, txiliña jo eban, eta Eupeme azaldu zanean,

–Aizu, Eupeme –esan eutsan–, datorren asteko Barikuan, nire Euskal  
Eliztiaren aurkezpena egitearren, Mintegira joan bearrean naz. Jai andi orreta-  
ra jende asko ta garrantzitsua azalduko da, eta itzaldi bat esan bear dot.  
Ospakizun eder orreri dagokionez, Goikolanda'ko abadeak ondo jantzita azal-  
du bear dau. Augaitik, ondo garbituta gero, sotaneari botoi guztiak josiko  
dautsazuz, eta ia bidebatez idoroten daustazun lengo egunean galdu yatan txapela.

Eupeme gaixoa negar-agiñean egoan, eta egoera larri arek beartuta, begi-  
rune baita irmotasunik andienaz, auxe esaten azartu zan:

–Baiña, On Markos, zure sotaneak ez dau beste garbiketarik jasan aal  
izango. Gaiñera, aretan ez dago non josi botoirik, eta begiteak urrututa dagoz.  
Piltzartua ta koipez beterik izanez gaiñera, ez dago munduan aren margo orle-  
gia baltza biurto dagikeanik. Aparra-mantarra orren barruan berori txorimalo  
baten antzera agertuko da, eta dagokion errua niri egotziko dauste guztiek...

–Naikoa da, Eupeme...! Eliztiaren aurkezpena ta itzaldia egin bear dauzana, Goikolanda'ko erretorea da, eta ez iñongo sotanea. Eta gaiñera, mezakotu nintzanetiko oroigarri kutuna dot.

–Bai On Markos, baiña zenbat urte dira berori mezakotu zanetik...?

–Bardin da, Eupeme. Ospakizun batera noanean, ez dot iñongo jaramonik egiten aurrean dodan gizakiaren janziari, berak diñoanari baiño. Zuek, emakumeok, ostera, itxureari bakarrik emoten dautsazue garrantzia.

Eupeme gaixoa lur-jota urten egin zan gelatik. Izan be, bidezkoa zan ainbeste urteetan zear On Markos'en ondo-izateari ardurarik andienaz emon izan zanak, bein edo bein bere arrenkurak azaldu egiazan. Zer egin, baiña, kinka larri aretan...? Ondo bai ondo ekian Eupeme zintzoak, munduko gauzatarako On Markos ume baten antzekoa zala. Zer egin, beraz, estualdi aretatik urteko...?

Gau aretan, arazo larri au gogoan erabilela, bururatu yakon abadearen neskameari, baebala gotzaindegian sukaldariñetzat ziarduan lengusiñe bat, eta asmamenari ekin eta ekin, naaspil aretan badirudi argi apur bat noizbait ikusi ebala...

Urrengo arratsaldean, eta On Markos'ek oiko biagoari emotsala, arin baten enperantzea zearkatzen ebala Eupeme ikusi neban, eta jakingureak zirikatuta, atzetik joan nintzakion. Erriko Taberna'ra bideratu zan, eta ona elduta, urrutizkiñez dei bat egin nai ebala azaldu eban. Erri guztian egoan bakarra emen aurkitzen zan, eta olako mezu-biderik gitxitan baiño erabilten ez zan ezkerro, laster jaritsi eban loturea.

–Aizu –mintzo trumoitsuaz itaundu eban Eupeme'k– Gotzaindegia al-da ori...?

–...?

–Begira, Jauna, or sukaldean diarduan Gorozika'ko Bittori nire lengusiñe-arekin, berba egin gura dot...!

–...?

–Nor ete nazan...? Goikolanda'ko parrokoaren neskamea, eta orra deitzera naraon arazoa oso larria da...!

Isillune luzetxua sortu zan, eta gero, abots trumoitsu bat aditu zan onetaraxe:

–Nor da...?

Zorionez, dalako Bittori'ren abotsa Eupeme'rena baizen zaratatsua zan. Izan be, bereiztasun onetan agiri zan senitartekoak zirala, eta oneri esker, bien arteko autua argi-argi ulertu aal izan neban.

–Bittori...! Ni Eupeme nozu, Gorozika'ko zure lengusiñea..!

–Aspaldiko, Eupeme...! Zelan bizi zara...?

–Ondo esan bearco, baiña askozaz obeto bizi izango nintzake, arazo den-ganiño batek gaur larrituko ez ba'nindu...

–Zer jazoten yatzu ba, Eupeme...?

–Begira, Bittori: sotana barri bat edo barri-antzekoa bear dot.

–Baiña, Eupeme, uste al-dozu iñuzente orrek, sukalde onetan olako jene-roak erabilten doguzanik...?

–Ainbesterañe ez naz lelotu, Bittori, baiña or, Gotzaindegian arandegie-tan baiño sotana geiago erabilten da, ezta...?

–Bai ba...

–Entzun ondo auxe, Bittori: baten bat egongo da or, eta ez dau Gotzaiña bera izan bear, Goikolanda'ra sotana bat bialtzeko gai izan daitena. Eta barriro diñotsut: ez da barri-barririk izan bear, erabilkorra baiño.

–Zertarako bear dozu ori ba...?

–Begira: On Markos'ek nire ugazabak datorren astean seminaria joan egin bear dau, berak diñoanez, bere liburua "bataiatzeko".

–Burutik eginda dago-ala...? Liburu bat bataiatu bear be...!

–Ori, erretolika utsa dozu, Bittori. Liburuaren aurkezpen edo presentazi-ñoa esan gura dau orrek.

–Eta orretarako, On Markos'ek ez ete dau sotanaren bat...?

–Bai, baiña altzitua izanez gaiñera, urteen bidean orlegi biurtu egin da. Berari bost ardura baltza ala orlegia erabiltea, baiña nire izen ona jagotearren, ezin dagiket laga jai orretara igelaren itxuraz azaldu daiten.

–Baiña, Eupeme, ez ete dagikezu margola edo tintetxe batera bialdu, bal-tzitu ta apaindu dagien...?

–Ai, Bittoretxu laztana...! Olako lekuren batera bialduko ba'neu, ez litza-kidaz botoiak baiño, eta ez guztiak, atzera etorriko...!

–Arazo larria benetan, baiña neu lako sukaldariñe batek, zer egin dagi-ke...?

–Ez dautsut eskatzen ostu dagizun, baiña emen, Goikolanda'n diñoen bai-zen sukaldariñe ona ba'zintzaz... Begira, lengusiñe maite ori, ez da ezer sukal-deko ertilari edo artista batek jaritsi ez dagianik. Jakiña, ona izanik eta nagu-sien urdaillak esker-onekoak izatekotan. Erdipurdiko sukaldariñe batentzat zailla izango litzake, baiña zeu lako batentzat...

Ona elduta, isillune bat sortu zan, eta andik laster, Bittori'ren mintzoa onetaraxe aditu zan:

–Ez dakit ba... baiña zeuk eskatzen daustazun ezkerro, eta ainbeste ede-

rresten dodan On Markos'en alde izanik, Obispaduko artzaingoa darabilenari esango dautsat, eta gaiñera sotanea egun baterako bakarrik izatekotan, ba...

–Eskerrik asko, Bittori. Benetako senitarteak bereala ezagutzen dira, baita sukaldariñe on-onak. Agur, lengusiñe maite ori, Jaungoikoak ordaindu dagizula, eta artuizu nire aurretiko eskerrona.

Nasaitasunezko asperena jaurtita, Eupeme Erriko Taberna'tik urten zan, eta nik On Markos'en biagoa amaitu arte, oiko osteratxuari emon neutsan.

Andik egun batzutara, ogi-banatzailleak ekarrita, lotuki andi bat eldu zan Abadene'ra. Suzmo zorientsuak jota, Eupeme'k esku dardartsuakaz askatu, eta... Bai, berak itxaroten ebana zan. On Markos'ek "bataiorako" erabiliko leuken sotana bikain-bikaiña. Ardurarik andienaz mai-gaiñean ipiñi eban, eta azterteketa zeatz bateri emon eutsan. Amaitu ebanean, berekiko berba egiñez, auxe entzun neutsan:

–Bai, eder-ederra da, eta eretirako ezin eleganteagorik. Egia esateko, ezin dagikeot antz emon barria ala erabillia ete dan. Ukalondoan dizdir salataria-edo ikusten yako igurtziak sortua bai'litzan, baiña urretik begiratuta isladuna emoten dau... Mauka-barrenetan badirudi altzi bat ikusten yakola, baiña ziur esateko, ez dakit euntegian bertan sorturiko uts txikiren bat izango ez ete dan. Dana-dala, onen barruan On Markos'ek kanonigu baten itxurea artuko dau.

Jarraian, sotanea artuta Eupeme arin baten On Markos'en idaz-gelara joan, eta didar bizitan sartu zan auxe iñoala:

–Eldu da, eldu da...!

–Zer da eldu, baiña...? –begiak ozta-ozta irakurten ebanetik kenduta esan eutsan On Markos'ek-

–Sotana barria, Jauna...!

–Eta niri zer...?

–Barikuko jairako da, eta onen barruan Berorrek artxipeste edo kanonigu baten itxurea izango dau.

–Lelotu al-zara, Eupeme...? Esango daustazu beingoan zergaitik ainbeste barriketa...?

Eupeme'k bereala ipiñi eban jakiñaren gaiñean, eta gogo txarraz bazan be, On Markos'ek une aretan erabillen txabuxa kendu, eta sotaneaz jantzi zan. Izan be, berarentzat berariz edo apropos egiñikoa zirudian, neskamearen poz andirako. Azken au eta sotanea idaztegitik ostendu ziranean, On Markos urreratu yatan, eta oiko arto eskukada niri eskiñiz

–Eupeme'k batzutan burutik eginda dirudi –esan eustan–. Niri bost ardura sotana barri ori kanonigu ta guzti. Gauza bat ziurtzat daukat, Plorentzi maite ori, eta auxe alegia: nire betiko sotana zaarraren barruan askozaz nasaiago

oartuko nazala, barri orren barruan baiño. Baiña ori ta guzti be, janzkiak dirala-ta, nork burrukan egin emakume baten aurka...? Saiatu al-zara Plorentzi, oillo batek erruntzeko aukeraturiko txokoa aldatu dagian...? Ori eziña da, ezta...? Niri be bardin jazoten yat, eta datorren Barikuan, mintegiko ospakizun orretan, jake batatz jantziriko tximiño baten antzera oartuko naz. Zorionez, baiña egun bakar baterako izango da.

Isildu zan une batez, eta gero.

–Dana-dala, Plorentzi –esan eustan– poz-pozik nagotzu. Urteak dira euskerarikiko maitasunez elizti orretan diardudala, eta orain, bere argitalpenaren garaian, iñoiz ez ezagaturiko sentipen bakan batek zorionez beteten nau...

Ospakizun-eguna eldu zan, eta goiz aretan gure agur maitetsua On Markos'eri esateko, Eupeme ta biok enparantzara joan gintzazan. An begira egoan ogi-banatzaillearen orgatxua Goikolanda'ko parrokoa eroateko. Eupeme'ren mezu-bideek ondo jokatu izan eben eretirako, eta kalean egoan jendetza ugariaz gaiñera, sapaillo-leioetan emakume asko ikusi zeitekean. Izan be, gure abadea jarlekuan egokitu zanean, ederrespenezko suzmur bat enparantzan zear aditu zan. Aren irudi txairoa sotana barripean bidean beera abiatzen asten zala, osteak maitekor agurtu eban.

Eupeme'k birloratuta zirudian, eta noizbait etxera ebatzi ebanean, asperen luze baten ostean, mintzo zirrarratuaz auxe esan eban:

–Sotana eder-eder ori, atzera emon bear be...!

Nire bizitzean lenengoz, Eupeme'rekin bat etorri nintzan. Izan be, On Markos bidean beera abiatzen zala, nire irudimenean, Gotzaiñaren jarduna artzeko uri andi batera doan merituz beteriko abade baten antzera agertzen yatan. Ordurarte ez nintzan azartu nire barru-min ori azaltzen, baiña Gotzain edo Gongotzain benetakoa izateko, nork berak beste ekubiderik...? Niretzat, baiña, obeto abade geratu zeiten, nork ikusi dau ba mundu onetan, Gotzain bat oillar batekin izketan...?

Biamonean On Markos'en biurpenari berantetsia itxaron neutsan. Noizbait, aurreguneko orgatxuan, eguberdian inguru gure On Markos agertu zan. Zeozer nekatuta zirudian, eta etxera eldu baiño ez, nasaitasunezko asperenaz sotanea kendu, eta oiko txabuxaz jantzita, bazkaltzera joan zan. Onen ostean, eguneroko biagoa egitera ostendu zanean, nire betiko osteratxua egitearren urten nintzan.

Egurastua eginda gero, leio-barrenean kokatu nintzanean, mai-aurrean jesarrita, On Markos'ek betaurrekoak garbitzen ziarduan, eta ni ikusi baiño ez, irribarretsu,

–Arrastion, Plorentzi –esan eustan–, gogo bizitan nagotzu atzoko ospakizunaren gora-beerak zuri azaltzeko.

Isildu zan une batez, betaurreak suur-gaiñean egokitzeko, eta,

–Ain zuzen be, Plorentzi –jarraitu eban-, neronek uste neban baiño askoz ederragoa azaldu zan nire eliztiaren aurkezpena. Gotzain Jauna maipurua zala, ni onen eskuman, eta ezkerrean artzaintza-saillaren arduraduna egoala, areto eder zabaleko argi guztiak dizdir egiten ebela, jaia ospatu zan. Eleiz-barrutiko goi-maillako jende ospetsuz beterik ikusten ziran besaulkiak. Baziran be, irrati ta ikustirratiko lagun asko, baita argazkilariak be. Bai, Plorentzi, itzetik ortzera badirudi Goikolanda'ko abadea entzute andiko izarra billakatu dala.

Barre egin ondoren, onetaraxe jarraitu eban:

–Isiltasun osoan Gotzain Jaunak asiera emon eutsan ospakizunari odeietaraiño jarten ninduala, nire euskaltasun, jatortasun eta jakintza agirian ipiñiz. Gero, bere berbaldiari amaiera emon eutsan, neu lako abadeek eleiz-barrutiarren izena mailla gorenetaraiño eroaten genduala esanez. Amaitzean txalo bero bat nire alde eskatu eban.

Entzutekoak ziran, Plorentzi, Gotzaiñaren itzaldiari jarraitu eutsoen txalokada itzelak. Nire sotana barriean atsegin utsaz ler egiteko zorian oartzen nintzan ainbeste ederrespenaz, eta au zala-ta, une batez arrokeria nitzaz jabetu zan. Zorionez, baiña, luzaro barik Goikolanda'ko betiko abade ezaiña izatera biurtu nintzan.

Jarraian, eliztiaren gora-beera zeatzak entzuleai emon neutsezan, esaterako, aditz-jokorako kontuan artutako oiñarriak, iztegiari buruzkoa, joscerea ta abar. Ordu bete bat iraun eban nire itzaldiak, eta txaloak amaitu ziranean, entzuleekin alkarrizketa bateri emon neutsan. Amaika itaun egin eustezen, eta nire ustez dana naikoa ondo azaldu zan, kontuan arturik batez be, sakon eta zaillak zirala aurkeztu eustezen gaiak.

Aukerako "lunch" edo jateko arin bat az nire eliztiaren "bataioa"ri amaiera emon yakon, an egozan gizaki ospetsuen zorionak eta itz adoretuak artzen nebazala. Alako baten, eta jaia aldarterik onenean joiala, abade naikoa gazte bat urreratu yatan. Bere burua aurrerakoitzat dauan orreitarikoa zan, lengoa dana txarto egiña dala uste izaten daben orreitarikoa, eta gauza guztien gaizkapen edo salbaziñoa, aurrerazale argi batzuen eskuetan dagoala. Urreratu yatan, eta nagusikerizko itxura jagoleaz, auxe esan eustan:

–Aizu, Markos, ez da lan txarra burutu dozuna, baiña "H" barik idatzi dozu.

–Zertarako, baiña, aboskatzen ez dana erabilli...?

–Gauzak errazagotzeko. Badira esaera batzuk "H"z obeto ulertzen diranak.

Une batez arrituta begiratu neutsan, siñistu ezin benetan esaten eustana, eta aren irriño isekaria ikusirik,

–Esan egitazu adibideren batez –irautsi neutsan–, zelan erraztu dagiken izki orrek edozein idazkera illuna.

Une batez bere ganbara urrian aztertu eban, eta,

–Orain ez naz gomutatzen, baiña adibideren bat idoro daiteke...

–Gauza barregarri asko idoro daiteke benetan. Esaterako, "Goiherri" izena, batzuk "Goiherri", beste batzuk "Goiherri" idazten dabe; "Leioa" itz errugabe ori, "Lehioa" "Leioa" ta "Leioha" idatzita ikusi dot. Ori ete da argitasuna...?

Une batez zer esan ez ekiala geratu zan, baiña gero itxura arranditsuz

–Begira, Markos –esan eustan–, izkuntzaren arloan asko dakienek, eta euren eritxia emoteko zeozer diranek, "H" a erabilli bear dala esan dabe.

–Eta zeuk, papao orrek, uste dozu iñongo "Sanedrin"ek esan daualako, zentzun eta errazoiaren aurka doana, dogmatzat artu bear dala...? Zuek, "progre" edo aurrerakoitzat zuen buruak jotzen dozuezanok, arazo askotan Aita Santuaren irakaskintzak eta enziklikak ezbaian jarriko dozuez, baiña "Sanedrin" batek zeozer zentzunaren aurka esondatzen edo agintzen badau be, zuek barrikerizaleok, beste barik ontzat emoten dozue. Iñuzenteok...!

Une batez abade aurrerazaleak isillik iraun eban, eta bere ganbara illunean arakatu ostean, garaillearen itxuraz,

–Baiña autortu bear dozu, Markos –esan eustan–, "H" a oso elegantea dala...

–Elegantea diñozu, papao orrek...? Ba al-dakizu "H" ganorabako ori zer dan gure elertia edo literaturari buruz...? Ara ba... lepo-gaiñean artu bear dogun kintaleko arri andia... ezertarako balio ez dauan zama aspergarria. Lerrenak eginda, nekatuta, batetik bestera eroango dozue arri ganorabako ori "Sanedrin" batek olan agindu daualako, edo zuen eritxiz "elegantea" dalako, edo "aurrerakoi-progrek" jakintasunaren ikurtzat dozuelako. Izan be, idazle geienek askatasunaren sentipenaz lepo-gaiñetiko arri aspergarri ori botako leukie, baiña gaixook ezin dagikezue, "Sanedrin" batek aginduta dalako, eta ortik zoaze zama astun ori zuekandik kendu eziñik elerti-munduan zear...

–Baiña, Markos –abade progreak esan eustan–, izkuntzaren batasunerako "H" ori bearrezkoa da...

–Ori ergelkeri utsa da, eta zeuk ondo dakizu. Dalako batasuna askozaz errazagoa da kintaleko arri ori lepo-gaiñean eroan barik. Ez niri kaikukeririk esan gero...!

Furrustada bat az erantzun eustan, eta asarre bizian beste iñora joan zan, ez-jakin eta atzeratuen aurka itzelak jaurtirik. Andik laster, Gotzaingo-barrutiko artzaintzaren arazoak darabilena, urreratu yatan, eta auxe esan eustan:

–Aizu, Markos, euskal elizti ori amaitu dozun ezkeru, orain asti ugari izanik, Gotzain Jaunaren gurari bizia da, gure Erriak darabillezan esaldi jatorrak jaso ta idatziz jarri dagizuzala, geroago bilduma ori argitaratzeko asmoz. Zer deritxazu orreri...?

–Oba ez...! –pozez gaiñezka esan neutsan–, auxe bai benetako eginkizuna nire asti-uneak beteteko. Biar bertan lan orreri emongo dausat.

Une batez On Markos isildu zan, eta gero,

–Benetan esateko, Plorentzi maite ori –jarraitu eban–, atzoko eguna niretzat aztu-eziña izango da. Buruauste andiak jasan dodaz elizti ori osotzeko, baiña orain ontzat emoten dodaz jasaniko nekeak...

Urrutira begiratzan ebala, amesetan bai'litzan On Markos'en ezpanetan irribarre gozoa agertu zan, eta gero zeozer gomutara etorri yakon, urrean,

–Aztuteko zorian izan bear be...! –esan eustan– An egozanan artean, euskaltzale andia dan Aita Errojelio izeneko lekaide bat ezagutu neban, eta ez dakit zelan, baiña zu aipatua izan zintzazan. Oillarra Plorentzi nirekin Goikolanda'n egoala jakin ebanean, benetan poztu egin zan, eta bere alde goraintziak emon nengizuzan esan eustan. Aipatu eban ango zure gora-beerak be, eta esan eustanetik, agiri da maite zaituala eta ez gitxi. Erroka Dauna'ren baseleizako joale barriarena edestu eustan, baita zelan ijitoek "bidebatez" barriro eroan ez dagien, inguruetatik agertu baiña ez, Ibargane'ko txakur guztiek zaunka bizitan jazarten dabezala, beste erri batera sartu arte.

Illuntzea zan orduko, eta lo-gurak menperatzen ninduan, ikondoko nire idarrean kokatu nintzan, oi neban lez izarren pean beila egiteko, eta On Markos bere garaian iratzarteko.

Andik egun batzutara, mai-ondoan On Markos'ek bere jardun barriari emotsala, eskuan lotuki andi samar ekarrela, Eupeme idaz-gelara sartu zan, auxe iñoala:

–On Markos, ogi-banatzailleak lotuki au emon daust, datxikion idazki onekin.

Parrokoak eskutitza edegi, eta barruko txatala artuta, auxe irakurten asi zan:

"-Markos maite ori:

"Danok ederretsi genduan lengo egunean, onekin doatzun sotana barriaz erakutsi zenduan itxura dotorea. Izan be, bazirudian berariz edo apropos zuretzat egiña zala. Au ikusita, ez deritxat ondo biok alkarren baztertuak bizi izan zaitezelari, eta bata bestearentzat izateko jaio zariela dirudian ezkeru, orra doatzu sotanea, urte askotan alkarrekin bizi izan zaitez. Biotzez agurtzen zaitu.

Artzaintzaren Arduradunak"

Idazkia amaitzean

–Gozaindegiko begirunea...! –jaurti eban On Markos'ek eskerronez.

–Sotana onegaz –pozaren-pozez Eupeme'k– berorrek kanonigu edo artxi-pesto...

–Isillik zaitez, iñuzente ori...! –eten egin eutsan On Markos'ek– Abade bategan beñena zuretzat sotanea izango da, eta ez benetako baldintzak. Jakin bear dozu, au baiña askozaz erosoagoa yatala lengo zaarra, baiña emen dagoan ezkeru, eta bialtzen daustanarekiko begirunez, eskegi egizu dagokion arasean.

Eupeme'ren aurpegi dizdiratsuak nekez ezkutatu egikiean meperatzen eban zoriona, eta begirunerik andienaz sotana barria tolestu eban, eta agindutakoa betetearren urten zan.

Arrezkeru, gure bizierak lengo'a biurturik, egunak alkarri erraikioen gorabeera andirik bage, eta oiko eleiztarren artzaintzea, esaldi jatorren bildumaz aldizkatzen ebala, On Markos'en maitasunak inguratuta bizi izaten nintzan, eta onekin batera, zorion eta ziurtasunaren sentipenek edonora laguntzen eusten.

Urteak igarorik, zartzaroen aurkitzen naz, eta iñongo zaar-saririk nire aukerean izan ez arren, "jubilau" baten antzera bizi izaten naz. Aspaldiko bizi-tasun eta jasa galdu egin dot, baiña orrean ordeaz bakeak eta ziurtasunak inguratzen nabe. Errian zear egurasten noanean, erritar guztien ederrespen eta ongi-naia nigan josita sentitzen dodaz, eta arein maitasunezko begikadak oartzean, poztasun esan-eziña nitzaz jabetzen da.

Ibillerea astirotsua biurtu yat, eta jaiegunetako mezaren ostean erriko enparantzan oiko aureskua dantzan egiten dodanean, lengo arintasunak ez daust laguntzen, baiña nire igikunak duintasunez gaiñezka agertzan ei'dira. Egunoroko ibillaldia egiña, On Markos'en biagoa amaitu orduko etxera biur-tzen nazanean, oillo guztien begikadak neugan untzatuta ikusten dodaz, baiña ez lengo maitasun sutsuaz, aitita bateri zor yakon begiruneaz baiño.

Eta orrek ez nau mintzen, izadiaren lege uxa-eziña baida, eta zartzaroen dan lez artu bear dogu, eta ez gure ames zoroek asmatzen dabenen antzera. Negua, edur, otz, illuntasun eta nekez lagundua da, baiña olan izanik be, badira egun alai ta argiak, eguzki barri baten besoetan laztan epelak artzen doguzala. Izotza, kaskabarra, eta eguraldi latza yatorkunean, gure baitan bidulta, atzokoaren oroitzen egoetan mundu argitsu baten zear egan egin dagikegu.

Indar eta adorea galtzen yoadaz, eta askotan leio-barrenean On Markos'en jardunari beilan nagokiola, lo-arin batek artzen nau, eta bapatean lepoko lumak laztantzen daustazala, aren mintzo gozoak,

–Baiña Plorentzi maite ori –diraust–, zer zabiz or lo-antzean...? Arratsaldeko laurak baiño ez dira onezkero, eta zu emen zabaldiko eguzki ederra gozatu barik...? Eutsiz, eutsiz, arto-garau batzuk lo astindu dagizun.

Nirea, baiña, ez da iñongo lo-gurarik, zartzaroko erdi-loa baiño, gero ta luzarago baidirau menperatzen nauan lo-kuma orrek. Askotan be, nire egun-senti-aurreko lenengo aldarria jaurti barik geratzen da, eta ozta-ozta goizabarrakoa aldarrikatzeko gai naz. Izan be, onek mintzen nau benetan, On Markos bere eginkizunetan atzera egiten da-ta.



Aspaldi onetan uxa-eziña billakatu yatan oldozkun batek etenbarik jazar-ten nau, eta auxe alegia: nire oroitzak edo gora-beerak idaztea. Barruko iratxo edo mamu txiki batek sarri askotan auxe diraust:

–Baiña, Plorentzi kokolo orrek, zergaitik ez idatzi zure bizitzaren gora-beerak...?

–Uste al-dozu, baiña, oillar bateri jazorikoa zudugarri edo interesgarria danik...?

–Ori zelan dan. Gizaki edo gizaseme askok zure adiñera ezker, euren bizitzaren gora-beerak idatziz gaiñera, liburu dotoretan argitaratzen dabez, beste munduko gauzak bai'litzazan. Inñuzenteok zar-saridun biurtzen diranean, beste egitekorik ezean, euroi jazorikoa munduko gauzarik arrigarriena dala uste izaten dabe, baita euren oroitzak barik zibilizaziñoak galtze izugarria jasango leukela be. Augaitik ba, eginkizunik bearrezkoentzat arturik, erdi-lelokeriz eta erdiguzurrez, irakurleen asperraldirako liburu mardulak argitaratzen dabez, erriko enparantza edo kale bateri euren izen ospetsua udalak emon dagion itxaropenaz.

–Niri, oster, bost ardura emoten daust iñongo kaleri nire izena emon dagioela. Baiña onezaz gaiñera, uste al-dozu Plorentzi oillarrari jazorikoa, iñorentzat zudugarria danik...?

–Ori, irakurri aurretik ezin dagikezut esan, baiña zeuri jazorikoa ez da auntzaren gaberdiko eztula. Irakurriko ba'zenduz ortik argitaratzen diran lelokeriak...! Gaiñera, ez diñotsut argitaratzea, idatzi dagizuzala baiño. Onek, zartzaroa igaroten lagunduko dautsu, eta bizitzea atsegiñagoa biurtuko be.

Burura etorri yatan, baiña, idaztea zein zaila izango litzakidan, ikara bizian asi nintzan, baiña jazoera batek nire zalantzak ezereztu eustazan, eta ona emen zelan. Udagoiaren etorrereaz egaztiok lumadia aldatzen dogu, eta alako baten ego bateko luma luze ederra jausi yatan. Une luze batez ari begira geratu nintzan, eguzkiak ortzadarraren margo guztiak emotsazala. Lumaren edertasuna...! Alako baten, baiña, aspaldi aretako iratxo berberak adierazo eustan axe zala nire gora-beerak idazteko bear izaten neban lanabesa, eta ziltza edo tentaziñoari jarki eziñik, bertanbera nire oroitzak idaztea erabagi neban. Lenago, baiña, irakurten ikasi bear... eta auzi au garbitu arte nire luma ederra arresiko zirritu baten ezkutatu neban.

Gomutara etorri yatan orduan, On Markos'ek abede-liburuxka bat sakristegian ebala, eta irudiz beterik izanda, aren bidez irakurten eta idazten ikasi nengikeala. Biaramonean, nire ugazaba biagoan egoala, sakristegira joan eta onen inguruak aztertzen asi nintzan. Zorionez, aren leio bat zabalik ikusi neban, baita andik barrura sartu neintekeala be. Bein barruan, laster idoro neban dalako liburuxka. Zabaldu, eta irudiz beterik egoala egiztatu neban,

baita irudi onein azpian azalpen egokiak be. Orduan oartu nintzan, ekiñaren-ekiñez nire elburua jaritsi nengikeala, bearrezko egonarrria izatekotan.

Ekin neutsan ba, lan nekegarri areri, eta apurka-apurka berba labur eta errazak idatzi nengikeazala oartu nintzan. Laster, baiña, abedea amaitu yatan, eta onekin ezaguerea zabaltzeko aukerea. Zorionez, orraitziño, bein baten liburuxka-pillo bat idaz-maiaren gaiñean agertu zan nik ez dakit zelan. Guztitariko gaiak erabillezan onei egokiezan irudiakaz, eta ikasteari jarraituz, noizbait egun baten idazteko gai nintzala egiztatu neban. Non idatzi, baiña, bear neban orain, eta sakristegiko txoko guztiak arakaturik, irarki-mordo zaar bat aurkitu neban. Oneik, antza, eredu zaarrekoa izanik, ez ziran erabilten orduko, eta irarki onein atzekaldean zenbat-gura idatzi zeitekean. Ez neban besterik bear ba, idaztura edo tintea baiño, eta au be eskura neban, sakristegiko idaz-maian ontzitzu bi baegozan-eta, bata oztiña, bestea gorria. Gero, arresiko zirritutik nire luma atara, muturra zorroztu, eta dana gerturik egoan nire gomutak edo oroitzak idazten asteko.

Neguko sarrera zan idazteari emon neutsanean, eta egun batzuk igaro bear ziran idazkerea menperatu nengian arte, eta izan be, ekintza zaila billakatu zan. Lumea eskumako erpeaz erabilli neban, eta beste erpea paperaren gaiñean jarrita, idazteari emoten neutsan. Asikerean zirriborro itsusi ta ulerteziñak urten yatazan, baiña aldiaren bidean, idazkerea menperatu neban, eta nire asmoa aurrera eroateko gai izan nintzan. Ona ezker, geien gogait-eragiten ninduana otz andia zan, eta askotan erpeak otzez erbalduta, idazteari eten egin bear izaten neutsan, odolaren zirkiña irabazi arte.

Arratsaldero, oiko eginkizuna amaituta, arin baten Abadene'ra barrero, eta ozta-ozta illunabarra zanean leio-barrenean kokatzen nintzan, On Markos'en arto-garauren eskukadea irusteko. Askotan,

–Baiña nire Plorentzi maitia-, esan eroian erretoreak-, zertan zabiz, orren berandu nigana etorteko...? Ziur naz –begi-keiñu bat az ziraustan–, ni bakarrik izteko, eginkizun andi-andi bat eskuen artean darabiltzula, ezta Plorentzi...? Aspaldi onetan nekatuta emoten dozu, baiña udabarria asi baiño ez, betikoa izango zara Jaungoikoak lagun. Agur Plorentzi maitia, joan zaitez ikondoko zure adarrera lo egiteko, eta biar arte.

Gaur noizbait, amaitu dot nire betekizuna, eta len zirikatzen ninduan iratxo edo mamutxuak bakean laga egin nau. Pozik nago benetan, eta ainbat are-

ago lan zailla ta neketsua burutu dodalako. Negua amaitzeko zorian da, eta udabariaren zantzuak eguratsean nabari dira. Ez dot uste, baiña, barriro be zabaldiko berpizkundea ikusiko dodanik, baiña pozik nago. Ez yat ardurarik betikotasunaren laztan otz, illun eta isilla artzea, orain bizitzak ez nau erakarten-eta. Lo egin baiño besterik ez dot gura...

Ez dakit, egunen baten nire gora-beera onein oroitzak argitaratuko ete diran, baiña nire buruarekin bakean nago. Atsegin izango litzakit, baiña, egin dodazan zirriborro onein mataza baten batek ulertu, eta argitara emon dagian, ez soillik oillotarrak zelakoak garan munduak ezagutu dagian, baiña On Markos'eri jakiñerazoteko batez be, noraiño maite izan dodan...